



ASKATASUN SUSTRAIAK

Antonio Merino Santamaria
Álvaro Chapa Imaz

Mariano Rajoyren hitzaurrea

RAÍCES DE LIBERTAD

Antonio Merino Santamaría

Álvaro Chapa Imaz

Lizentziako akordioa : Creative Commons.

Atribución-CompartirIgual 3.0 Unported (CC BY-SA 3.0).



(<https://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.es>)

Diseinua eta inprimatzea: FPEV.

© Euskal Ikasketetarako Fundazio Popularra, 2017.

ISBN: 978-84-948125-5-2

Elkarlanean:



*Gure seme-alabek uler dezaten
zertarako borrokatu zuten euren gurasoek*

AURKIBIDEA

AURKEZPENA

HITZAURREA

SARRERA

LUIS CANDENDO PÉREZ

JOSÉ ANTONIO VIVÓ UNDABARRENA

MODESTO CARRIEGAS PÉREZ

LUIS MARÍA URIARTE ALZAA

RAMÓN BAGLIETTO MARTÍNEZ

JOSÉ IGNACIO USTARAN RAMÍREZ

JAIME ARRESE ARIZMENDIARRIETA

JUAN DE DIOS DOVAL DE MATEO

VICENTE ZORITA ALONSO

ALBERTO LÓPEZ JAUREGUIZAR

JOSÉ LARRAÑAGA ARENAS

GREGORIO ORDÓÑEZ FENOLLAR

MIGUEL ÁNGEL BLANCO GARRIDO

JOSÉ LUIS CASO CORTINES

JOSÉ IGNACIO IRURETAGOYENA LARRAÑAGA

MANUEL ZAMARREÑO VILLORIA

ALBERTO JIMÉNEZ BECERRIL ASCENSIÓN GARCÍA ORTIZ

JESÚS MARÍA PEDROSA

MANUEL INDIANO AZAUSTRE

JOSÉ MARÍA MARTÍN CARPENA

JOSÉ LUIS RUIZ CASADO

FRANCISCO CANO CONSUEGRA

MANUEL GIMÉNEZ ABAD

BIKTIMEN ZERREDA (AVT)

AURKEZPENA

Euskal Ikasketetarako Fundazio Popularraren hasierako helburu bat betetzen da gaur liburu honen aurkezpenarekin. *Raíces de Libertad* ETako terrorismoaren biktimei egindako omenaldi hunkigarria dugu, euskaldun eta aldi berean espainol izatearen kontzeptu eta sentimenduari lotutako zentro-eskuineko ideiak aldarrikatzeagatik hil zituzten pertsonak.

Zentzu gabeko jarduera terrorista hori, ondo definituriko bi momentuetan bana dezakegu: trantsizio demokratikoaren hasiera (hirurogeita hamarreko hamarkada bukaera eta laurogeiko hamarkada hasieran), terrorismoa Zentro Demokratikoaren Batasuna eta Aliantza Popularreko ordezkarien aurkako atentatuen bitartez gure ideologia suntsitzetik oso gertu egon zenean; eta 1995etik aurrera, euskal zentro-eskuinaren berpizkundearekin, alderdi ezberdinek Alderdi Popularrean bat egitean lortutakoa. Orduan nazionalismoaren aurkako alternatiba politiko bat agertzen da, udal-mailan ere. Bi garaietan zehar, are ugariagoak izan dira liburuan agertzen ez diren kideen aurkako arrakastarik gabeko atentatuak. Horregatik hemendik, kide horiei guztiei eskerrak eman nahi dizkiet euren konpromisoagatik, izan ere, euren lana eta nahigabearekin gaur egun badakigu ETaren terrorismoa deuseztatu ahal dugula.

Oro har pertsonak gogoratu nahi izan ditugu, eta ez pertsona horiek izan zituzten karguak, ezer baino lehen guraso, senar eta seme-alabak izan zirelako, euren lanarekin liluratuta eta euren familiekin itxaropentsu bizi zirenak. Terrorismoaren gainontzeko biktimak bezalaxe, orain ezagutzera ematen diren azalpen biografikoak nahigabearen egutegian data bat baino zerbait gehiago dira guretzat.

Argitalpen honen bitartez, askatasunaren sustraiei eutsi egin zieten kide horiek gogoratu nahi ditugu (gainontzeko biktimekin batera), orain hain gertu daukagun askatasuna. Hau da Euskadiko Alderdi Popularreko militante eta jarraitzaileok daukagun arrazoi bakarra gure hildakoek defendatu zuten berdina defendatzeko: aske izatea, askea ez den gizarte batean, euskaldunen artean berdintasuna aldarrikatzea eta, euren ereduari jarraituz, hitz eta botorik ez dutenen ordezkari izatea.

Eta borroka honetan ez gara bakarrik egon, Espainia osoan zehar ere, sufritu duten kideak izan dira, izuaren biktima izan direnak, Euskadiko Popularren identitate berbera izateagatik eta gainera, babes falta kezkarri batekin.

Eskerrak eman nahi dizkiet euren lana eta arduragatik Antonio Merino eta Álvaro Chapa liburuko autoreei, Carlos Olazábalen beharrezko lan eta kudeaketaz ahaztu barik, obra honen “alma mater” eta sustatzailea. Mila esker guztioi.

Antón Damborenea Basterrechea

Euskal Ikasketetarako Fundazio Popularraren Presidentea

HITZAURREA

Espainiako demokraziaren hasiera puntuan geunden, “zero orduan”. Duda barik, trantsizioa gure gizartearen lorpen garrantzitsuenetako bat izan zen, eta baita gainontzeko munduarentzako elkartasun eta irmotasun adibidea.

Momentu horiek ere, gure herriko zentro-eskuinaren lehenengo orduak ziren. Zentro-eskuin horren sortzaile ugari, ordea, gure goibeltasunerako, ohore handiz hitzaurrea idazten dudan liburuaren protagonista ahaztezinak dira. Eta liburuaren autoreak, literalki euren ezin ordainduzko sakrifizioarekin Espainian demokrazia egotea posible egin zuten gizon eta emakume horien guztien balioaren lekuko harroak dira.

Zero ordua baita ere, gaur egun den guztia ikusteko bere buruari garai hartako ispiluan begiratu behar dion Alderdiarentzako. Izan ere, ispilu zintzo horretara begiratzean, edozein ikuspuntu posibletik, Askatasuna beti gure konpromiso politikoaren sustraian egon dela ikusten dugu, beranduago Alderdi Popularra osatuko zuten edozein siglaren atzetik. Askatasuna, letra larriekin. Askatasuna, ezinbestean demokraziaren beste hitz nagusiei loturik doana: Justizia eta Berdintasuna. Eta hiru zutabe hauen gainean eraiki dira bere jatorritik Alderdi Popularraren postulatuak, pertsonak bere konpromisoaren ardatza izanda, gehiegizko dogmatismoa alde batera utziz eta subjektu eta predikatuen arteko koherentzia beti mantentzen saiatuz.

Pasa den mendeko hirurogeita hamar urteen azken aldian, guztion artean gaur indarrean dagoen Konstituzioa eraikitzen hasi ginen. Eta 1812an osatutako subjektu politikoa berreskuratu genuen: herritar aske eta berdinen nazioa. Erreferendum historiko horretan, 1978ko abenduaren 6koa, ia hamar espainoletik bederatzik alde z aurretik Gorteetan onetsitako testuaren alde egin zuten boto. Egun hartan, Pontevedran euritsu gogoratzen dudana, nazio adiskidetze-egintza burutu zen, espainolen bakean elkarbizitzeko nahia argi eta garbi adieraziz.

Baina gizarte ireki guztietan gertatzen den moduan, beti daude historia zehazten duten argi-itzalak. Hemen, argirik handiena Zuzenbideko Estatua babestu eta defendatzearen aldeko apustua egin duten horien guztien

ausardia izan da, Askatasun hori Justizia eta Berdintasunarekin elkartzeko xedez. Itzalik astunena, dudarik gabe, terrorismoa izan da, gizarte irekien etsairik handiena.

ETAren terrorismoak, herritarren bizitza eta askatasunaren kontrako erasoan bitartez, elkarbizitzarekin bukatzea, demokrazia amore ematera behartzea eta zatiketa inposatzea izan du helburu. Heriotza, mutilazioa eta sufrimendua eragin dizkie milaka pertsonei eta gure demokraziaren indarra mehatxupean jarri du, bortizkeriaren bitartez espainolek 1978an sorturiko konstituzio-erregimena suntsitzen saiatuz.

ETAren terrorismoaren biktimen ahaide eta lagunen testigantzak bat datoz euren egunerokotasunean nolabaiteko inflexio-puntua egon zela aitortzean; aske edo erabat mehatxupean sentitzearen arteko ezberdintasuna ekarri zuen inflexio-puntua. Eta Espainiako gizarteak ere, bere inflexio-puntua izan zuen, Miguel Ángel Blanco bahitu eta hil osteko mobilizazioan, Gobernu eta herritarrei egindako xantaia saiakera kriminalaren ondoren, herritarrak Espainia osoko bazterretan talde terroristari ultimatumak bueltan emateko atera zirenean. Jada izua ez zen nahikoa; mehatxuek ez zuten balio, ez xantaiak, ezta indarkeriak ere. Inflexio-puntu horrek ETAren porrot soziala suposatzen zuen. Eta porrot hori gauzatzen hasi behar zen.

Terrorismoaren aurkako borrokan funtsezkoa izan zen José María Aznarren ondoz-ondoko gobernuaren garaian, zeinean beste eginkizunen artean Barne Arazoetako Ministerioak arduratu nintzen, lan hori egin beharra zegoen: talde terroristaren porrota gauzatzea bukaerako elkarrizketarik gabe, elkarrizketa horiek amaierarik ez egotea besterik ez bailukete eragingo.

Gure subjektu eta predikatuen arteko koherentzia, beti izan dugu argi eta garbi bukaera posible bakarra biktimak garaile bezala eta terroristak garaitu gisa aurkezten duen hori dela. Eta zentzu horretan, Gobernu urte horietan zehar, funtsezko bost ardatzen inguruan oinarritu genuen gure politika antiterrorista arrakastatsua: Lehenengo eta behin, irmotasun demokratikoa; horrek suposatzen du edozein prezio politiko ordaintzeari edo inolako xantaiaren aurrean amore emateari uko egitea. Bigarrenik,

Zuzenbideko Estatuaren sendotasuna; irmotasunez sinesten dut lege demokratikoan eta bere aplikazioan iruzur, inpunitate edo desafiorako inolako lekurik gabe. Jakina, nazioarteko lankidetzaz ez zen bakarrik eraginkortasun kontu bat, baizik eta baita eskakizun morala ere; beharrezkoa zen Espainian gertaturiko porrot sozial hori munduko gainerako gizarte demokratikoekin partekatzea. Laugarrenik, gure terrorismoaren kontrako politika Estatuaren Segurtasun Gorputz eta Indarren jardura eraginkorrean oinarritu genuen eta, azkenik, eta agian aspekturik garrantzitsuenak, biktimen ahotsa, oroimena eta errespetua.

Inork ez du konpromiso eta hurbiltasunezko testigantza handiagorik merezi Espainian, terrorismoaren biktimek baino: lehenengo eta behin, gure erakundeek euren familien ezbeharrak eta euren nahigabe pertsonala leuntzeko neurriak hartzeko beharra dutelako, merezi duten laguntza, babesa eta aitormen soziala bultzatzeko; eta bigarrenik, berezko terrorismo-adierazpen ororen kontrako borrokaren lehenengo erreferentzia direlako.

Gaurko Espainiak, euren kontzientziak agindutakoari jarraiki behar diren etika azken hariraino defendatu zuten gizon eta emakume horiek guztiak islatzen dituzten ispilu zintzo horretan. Eta isla horrek lasterbideetatik urrun gidatzen gaitu, terrorismoaren behin betiko porrota erdiesteko borrokan.

Garaipen garrantzitsua lortu dugu jada: biktimen memoria eta duintasunaren aitormena, eta baita kausa duinekoaren aitormena ere, euren kausa, alegia: Justizia. Eta terrorismoaren biktimen duintasuna, memoria eta justiziaren garaipen hori ez da negoziagarria eta ez du atzerapausorik onartzen.

Mariano Rajoy Brey, Alderdi Popularraren Lehendakaria

SARRERA

Liburu honek ETA erakunde terroristak 1978 eta 2001 artean era koldarrean hil zituen hogeita lau gizonen bizitzen berri ematen digu. Azalpen biografikoen bitartez, gizon horien bizitza xumeak erakusten dizkigu, zeinek irizpide politiko aske bati jarraitu eta herrikideen bizitza hobetzen saiatzeagatik, euren familiak eraikitzeari modu zirrargarrian uko egin zioten. Euren sakrifizioaren handitasuna aldarrikatuz, obra honek pertsona zintzoak hunkitzea du helburu.

Euskal Ikasketetarako Fundazio Popularrak argi izan du jaio zenetik, hori izan behar zela bere funtsezko xedea, gure hildakoen familiei ahotsa ematea, euren oroitzapen hunkigarrien bitartez belaunaldiak pasatu arren inork inoiz ahaztu ez dezan gure artean gizon apartak egon zirela, etengabean gurtu beharko genituzkeenak.

Hogeita lau biografia hauek, nazionalismo euskaldun erradikalak hildako pertsonen errealtatera hurbiltzen gaituzte, Aliantza Popularra, Koalizio Popularra-Foru Batasuna, Zentro Demokratikoaren Batasuna eta Alderdi Popularreko kide izan zirenak. Terrorismoaren gainerako biktimak, era inplizituan agertzen dira biografia txiki hauetan, haiek guztiek ere izuaren tragedia pairatu zuten eta.

Seguruenik aspaldi egin behar izango litzateke idatzizko omenaldi hau. Ordea, egia da ere duela hilabete gutxi batzuk arte, Euskadiko zentro-eskuin ez nazionalistaren arduradunek ahalegin guztiak bizirautera bideratzen zituztela, terrorismo nazionalistaren ehizaldi ankerraren aurrean. Omenaldia prestatu eta askatasuna nahi izan zuten hainbeste pertsonen oroimena gure egunetara ekartzeko, nolabaiteko baretasuna behar zen, liburuaren edukian pentsatu ahal izateko; orain da momentua, nahiz eta tamalez, segurtasun pertsonalari dagokionez oraindik ere guardia jaitsi ezin den.

Azalpen biografiko gehienak osatzeko, maite zituzten pertsonen oroitzapenak eta ETako atentatu bakoitzari buruzko egunkarietan argitaraturiko xehetasunak bildu ditugu. Hildakoen seme-alaba edo alargunekin elkarriketak izatea ez zen bat ere erraza izan. Izan ere, nahiz eta

kasu batzuetan aita edo senarra hil zenetik hogeita hamar urte baino gehiago igaro ziren, agerian zegoen familia bakoitzaren esentzia hildako senidearen maitasunaren bitartez eraiki izan zela, min neurrigabea eragiten zien maitasuna, eta euren barnean sentitzen jarraitzen zutena, oroitzapenetara jo behar gabe. Aita edo senarraren nostalgia horrek familia eta hildakoaren arteko loturek bizirik zirautea adierazten zigun eta elkarriketak malko artean bukatzen ziren ia beti.

Gogorapen horiek, gure kideetako bakoitza nolakoa zen nabarmentzen dute, euren familien ikuspuntutik, haiek izan baitziren azken finean, benetan ezagutu zituztenak. Gregorio Ordóñezen azalpen biografikoa Ordóñez Fundazioak egindako biografian oinarritzen da eta Modesto Carriegasena bere semea Rafak idatzi zuen. Juan de Dios Dovalena ere, Juan bere semeak egin zuen, kazetari ospetsua, eta José Ignacio Ustaranen kasuan, bere lagun min bat, Alfredo Marco Tabar, arduratu zen testua prestatzeaz. Solaskide guztiek elkarriketa grabatuak nahigabearen memoria honetan sartzeko baimena eman ziguten, baina, hala ere, testuek ez dute solasaldien literaltasuna islatzen.

Hildako gehienak zinegotzi anonimoak izan ziren edo, kasuren batean, ordezkaritza publikorik gabeko militanteak. Guztiak izan ziren pertsona onak, herri eta hiriak hobetzen saiatu baino ez ziren langile zintzoak, euren lanaren truke ezer eskatu barik. Kasu batzuetan udaletxe-karguetan ez zuten ezta kobratu ere egiten.

Erakutsitako ardura ikaragarri horrek, hain zintzoa eta ohorezkoa, Espainiako kargu publiko guztien erantzukizuna aldarrikatzen du, hildako zinegotzi eta parlamentari horien sakrifizio neurrigabearen hartzaile duinak izan daitezen, zeinei nazionalismo totalitarioak denbora deuseztatu zien. Zerrenda honetako kideek, euren familien sufrimendua eta doluminezko lore-koro bat baino ez zuten eraman hilobira. Etxean, inoiz desagertuko ez zen ezbeharrak utzi zuten eta, tokatu zenean, gutxiagoko muntako pentsioa. Aznar lehendakaria iritsi behar izan zen, ordura arte terrorismoaren biktimekin jarrera zikoitza erakutsi zuen Estatuaren injustiziari bukaera emateko.

Baina ez zen soilik Estatua izan. Azalpen biografikoek zein garaiko

prentsak aditzera ematen dutenez, euskal gizarteak ere jarrera guztiz lotsagabea hartu zuen hilketen aurrean beste alde batera begiratzuz eta askatasunaren defentsan euren bizitzak batere konplikatu barik. Herriak era koldarrean isiltasuna onartu zuen eta horrek gizartea zeharo usteldu zuen. Terrorismo nazionalistak sortutako kantzerra hain da larria, non askok terrorismoaren kontrako borrokan garaile eta garaiturik ez egotearen komenigarritasunari buruz teorizatzen duten. Gure hogeita lau hildakoek betiereko bakea baino ez dute gura, eta hil ziren egunean irabazi zuten loriaz gozatzea. Guk, bizirik gaudenok, askatasunaren alde borrokatzen jarraitzeko beharra dugu, hainbeste amestu dugun askatasuna lortzeko gure aurretik borrokatu zutenen konpromisoa eta oroimena aintzat hartuz.

Autoreak

LUIS CANDENDO PÉREZ

(1936-1978)

Nire senarra, **LUIS**, 1936ko ekainaren 17an jaio zen Las Cortes izeneko Galiziako herritxo batean, Ourense hiriburutik hurbil dagoen kontzeju batean kotatuta. Bere familia baserri-ingurune oso xume batetik zetorren. Horregatik, bere lurraldetik emigratu zuen bizitza eta etorkizun hobeago baten bila. Gipuzkoara iritsi baino lehen, Asturiasen denboraldi bat igaro zuen, bere osaba batekin, eta han gauzatu zituen lehenengo ikasketak. Kontua da pasa den mendeko berrogeita hamarreko hamarkada erdian gure probintziara ailegatu eta bertan ezarri zela, pozik, bere ahaleginarekin bizitza zoriontsua lortu ahal zuela uste zuelako.

Ezagutu nuenean, burdina eraldatzen zuen enpresa batean lan egiten zuen, *Unión Cerrajera*, beranduago Bergarako Labe Garaiak deitzera pasatu zena. Ezaguna denez, Vergara (edo orain esaten denez, Bergara) Antzuolatik lau kilometrotara dago, nire familiaren jaioterria hainbat eta hainbat belaunaldiz geroztik. Antzuola, Deskargako portuaren magaletan kokatuta dago, Oñati eta Legazpitik nahiko hurbil, hau da, Deba ibaiaren goi-ibarrean. Ni, nire familiaren baserrian bizi nintzen eta Luis, alokairuzko etxe batean, Antzuolan, Labe Garaietako lagun batzuekin. Herriko festaren batean ezagutu ginen eta denborarekin, gure bizitzak betirako elkartzea erabaki genuen, ezkontzaren konpromisoaren bitartez. Esan behar dut gauzarik garrantzitsuenean bizitza gure alde jarri zela eta hiru seme-alaba zoragarri eman zizkigun.

Ezkondutik eta urte gutxi batzuk pasa ondoren, Luisek lan-istripu bat izan zuen eta ezker hanka galdu zuen belaunetik behera. Hala ere, beti gizon kementsua izan zenez, protesik bati esker berriro ondo ibiltzea lortu zuen. Denbora pasa ahala, lanean mailaz igotzen joan zen, Labe Garaietako barne promozioak aise gaituz. Hori dela eta altzairu-fabrikaren funtzionamendurako ezinbestekoa zen makina baten

arduradun izendatu zuten, edo behintzat, hori izan zen nik momentu hartan ulertu nuena hain pozik ikusi nuenean, urteetako ahaleginari esker lortutakoaz.

Intentsitate handiz bizi izan zituen gure seme-alaben lehenengo urteak eta barre egiten zuen, zoriontsu, haurtxoek aita ezagutzen hasten zirenean. Irudi ederra zen, hunkigarria. Umeak nagusi egin zirenean, Antzuolan eskolatu ziren, lehenengo, eta gero Bergaran, Mariaren Lagundiaren Ikastolan, OHO (Oinarrizko Hezkuntza Orokorra) egin ahal izateko. Batek Gasteizko Corazonistas Ikastetxean bukatu zituen batxilergo ikasketak.

Ezkondu eta gero, Luis ez zen bere jatorrizko Galiziara bueltatu. Normalean bere ama urtero pare bat astetarako etortzen zen. Bat gurekin eta umeekin igarotzen zuen eta bestea, bere beste alaba batekin, Zumarragan, gure herritik oso hurbil. Hil zutenean eta seme-alabak nagusi egin zirenean, bere aitaren leinua ezagutzera eraman nituen, bere abentura hasi zuen lurralde zoragarri horretara, haiei bizitza eman zien abentura, alegia. Haietako baten bat bere kabuz itzuli da, heldua izanik, familiari bisita egin eta bere aitak zapaldu zituen paisaietan bere burua ikusteko.

Uda Andaluzian igaro ohi genuen, baina normalean, atsedena hartu eta bere aisialdiaz gozatu nahi zuenean Gipuzkoako ibaietara joaten zen, izokin-amuarraina arrantzatzerara, kutsadurak gure ibaiak hondatu baino lehen. Noiz edo noiz ere, Oriotik ageri izan zen, itsaso alboan aingirak arrantzatzeke. Baina ez zuen arrantzatutako ezer jaten: bereziki beldurtia zen kontu horretan.

Horrelakoa izan zen gure bizitza Luis politikan sartu zen arte. Trantsizioaren aurretik dagoeneko piztu zitzaion hurkoari laguntzeko lan egiteko gogoak. 1975 baino lehen, Bergarako Labe Garaietako sindikatu-bitartekoetako bat izan zen, nagusiei bere lankideen kexak eta konponbide posibleak helaraziz. Demokrazia iritsi eta alderdi politikoak ezarri zirenean, etxean maiz komentatu zuen askatasuna gauza benetan handia zela eta defendatu eta zaindu behar zela.

Horregatik, eta Jaime Mayorren laguna zelako ere, UCDren kide egin zen. Ez dut gogoratzen bere alderdiarekin hauteskunderen batera aurkeztu zen ala ez, bere bizitza politikoa ez zuelako familiarekin nahasten. Umeak oso txikiak ziren eta niri ez zitzaidan mundu hori gehiegi inportatzen. Kontua da etxean ez genuela sekula ere mehatxurik jaso, ETAren nazionalismo erradikalak hilketa egin baino lehen ezta ondoren.

1978ko azaroaren bederatzian bere kotxearen soinua entzun nuen, beti bezala, lanetik iristen zela adieraziz. Egunero ogitarteko bat eramaten nion autora, bere lagunekin euren sozietatean jan zezan, baina egun hartan bi pistolarik hil egin zuten (ia nire aurrean...) eta aldi berean gure bizitza birrindu zuten. Hilketaren ostean nire seme nagusiak, orduan 13 urte zituen, nik erantzuna izango banu bezala galdetzen zidan: *“Ama, zergatik egin diote tiro aitari? Bera ona zen, ona zen!”* Eta egia da, Luis beti ona izan zen ezagutu zuten guztiekin. Bere arimaren aldeko hiletara herriko jende asko etorri zen, baina ez denak. Handik gutxira, hiletara joan ez ziren lagun haiek beraien emazteen bitartez barkamena eskatu zidaten, beldur baitziren Luisen lagun bezala ezagutuak izatearren...

Harrezkero, hogeita hamar urte baino gehiago pasa dira, eta Luis lehenengo eguneko intentsitate berdinarekin maitatzen jarraitzen dugu.

JOSÉ ANTONIO VIVÓ UNDABARRENA

(1930-1979)

JOSÉ ANTONIO, gure aita, Burgoseko iparraldeko lur hotzetan jaio zen 1930eko martxoaren bederatzian, Espinosa de los Monteros izeneko udalerrian, Las Merindades eskualdeko herri nagusia. Bere familia, ordea, ez zen berez Burgosekoa. Aita Kordobakoa zuen jatorriz eta ama, Bilbokoa. Baina bizitzaren gorabeherak direla eta, gure aitonak herri horretan lanpostu bat lortu eta bertan ezarri zen amonarekin. Gure aita jaio zenean, bera Espinosako Idazkari judiziala zen.

Kontua da urte batzuk beranduago aita bere familiarekin Donostiara lekualdatu zela. Eta hainbeste maitatu izan zuen hiri horretan ezagutu zuen gure ama, Julieta Subijana. Hiriko udako festa eta berbenetan hasi zen haien arteko harremana. Gure ama Pedro Subijanaren izeba da, gure lehengusu propioa eta tokiko sukaldaritza gastronomiaren gailurrik garaienera eramandu sukaldari ospetsua.

Gure aitak bi anai gehiago izan zituen eta biak apaiz joan ziren. Enrique, Comillasen eliza-ikasketak bukatu eta sakramentua erdietsi eta gero, La Rotako Auzitegiko kide bilakatu zen; askok eruditua handia eta Urrutiko Unibertsitateko irakasle bezala gogoratuko dute.

Gure gurasoak Donostian ezkondu ziren, aitak aireko armadan soldadutza egin eta beranduago erizain ikasketak gauzatu eta gero. Han jaio zen lehenengo alaba. Geroago Goierriara lekualdatu ziren, Beasainera lehenengo, non bi seme-alaba jaio ziren; ondoren Idiazabalera, bi seme-alaba gehiago izateko eta azkenik, Olaberriara.

Goierriko eskualdera mugitzea erabaki zuten, nire aita *Acería Aristain*-eko pertsonal-gerente izendatu zutelako, langile mordoari lana ematen zion fabrika. Langile horietako gehienak, enpresak sortutako herrixka batean bizi ziren. Hortaz, gu enpresaren pertsonal-gerenteari zuzenduriko etxean bizi ginen.

Olaberrian haurtzaro zoriontsua izan genuen. Altzairu-fabrikako eskolan klaseak bukatu ondoren, ume guztiek futboleko jokatzen genuen herrixkako kaleetan, eta gure gurasoek ez zuten inolako kezkarik, jende onez inguratuta geundela eta guztiak ezagunak ziren ingurune hartan ezer txarrik gertatuko ez zitzaigula ondo zekitelako. Gainera, gure pozaren gailurrean, asteburuetan gure aitaren alaitasunaz gozatu ahal izaten genuen. Bere zaletasunetako bat gaur egun brikolajea deitzen den horretan murgiltzea zen. Horrela, etxeko konponketak egin ez ezik, gauza pila prestatzen zituen gure dibertimendurako, adibidez, zurezko gotorleku bat, indiar eta cowboyetara jolasteko erabiltzen genuena, edo goitibehera ugari, abiadura handiz herrixkako maldetan behera joateko erabiltzen genituenak. Animaliak haztea ere gogoko zuen, batez ere kanarioak, toki ezberdinetatik hartu eta gero gurutzatzen zituenak.

Denborarekin, helduagoak egin ginenean, gazteenok aparteko aita genuela ohartu ginen, oso maitekorra, familiakoa, bere hitzan sutua eta graziaz gainezka bizitzaren parterik barregarrienari txinpartak atera nahi zizkionean. Zoritxarrez, seme-alaba gazteenok ez genuen aita era sakonean ezagutzeko aukerarik izan, bere bigarren gaztaroaren gailurrean hil zutelako, berrogeita bederatzi urte dotore zituenean. Nahiz eta hil zutenetik denbora gehiegi pasatu den, ez ditugu ahaztu berarekin mendian zehar egindako ibilaldiak, edo noizean behin urpeko arrantza egin edo itsasoaz disfrutatzerako eraman gintuen momentuak, bere beste zaletasunetako bat.

Udako oporrak Donostian pasatzen genituen, gure aitona-amonetatik hurbil. Aldizka, oporrak *Aceria Aristain*-ek bere langileen eskura jartzen zituen apartamentuetan igarotzen genituen, beti Mediterraneoko Levantea aukeratuz. Denboraldi errepikaezinak izan ziren, zeinetan gure aitaren zoriontasunaz gozatu genuen, bere gailur eta intentsitate osoan. Izan ere, natural agertzen zen, bere familiarekin egoteagatik zoriontsu, pozarren.

Euskal nazionalismo erradikalaren terrorismoak bere bizitza eraman baino urte bat lehenago, Guardia Zibilaren eskoltaz lagunduta bizi behar izan zuen. Gure aita Olaberriako alkatea zen eta gainera, Gipuzkoako Batzar Nagusietako diputatua. Bere okupazio publiko eta profesionalak (batzuen ustez) bahitu edo, hiltzeko arrazoia izan ziren. Gure aita Aliantza Popularreko kide izan zela badakigu, izan ere, etxean oraindik gogoratzen

dugu ume txikienek nola lagundu genion bere alderdiaren boto-txartelekin tartekoak egiten, María Ostizen abestiaren melodia entzuten genuen bitartean.

Aita azkenengo aldiz ikusi genuen arratsaldean gure ama eta bi alaba txikiak zeuden etxean. Norbaitek txirrina jo zuen eta nire ama izan zen, lagunkoia beti bezala, bultzadaka gure aita etxetik eramane zutenei atea ireki ziena. Atea itxi bezain laster bere bizitzarekin bukatu eta gure familia betirako suntsitu zuten tiroak entzun genituen.

Hain izan zen basatia bere hilketa, hain geratu ginen lur jota, Euskaditik alde egin genuela. Batzuk, ordea, urteak pasa ondoren, beti maitatu izan dugun jaio ginen lurrera itzuli ginen, ziur aski gure aita lur hori maitatzen eta errespetatzen irakatsi zigulako.

MODESTO CARRIEGAS PÉREZ

(1932-1979)

MODESTO, gure aita, Artzentalesen (Bizkaia) jaio zen 1932ko irailaren hamabian, bere aitak herri horretan lan egiten zuelako. Izan ere, gure aitona Federico plaza horretako zergak biltzen zituen garai hartako katetxean, Kantabriatik Bizkaira sartzen ziren produktuak zergapetzeko helburuarekin ezarri zena. Amona Consuelo hurbileko herri batean jaio zen, Bercedo, Burgosek probintzian, baina laster bere familiarekin Zallara lekualdatu zen eta seguruenik bertan ezagutu zuen bere senarra izango zena.

Oso zoriontsuak izan ziren, baina denbora laburrez. Zoritxarrez, ezkondu eta gure aita jaio eta hamabost urte beranduago, amona ustekabean hil zen, familian atsekabe izugarria eraginez. Hori dela eta, gure aitonaren arreba ezkongabea beraiekin bizitzera joan zen, bere maitasunarekin Consuelo ordezkatzeko xedez. Gure aitak ez zuen anai-arreba gehiagorik izan.

Gerra Zibilaren ondoren aitona Ermura bidali zuten, zeregin berdinarekin, Gipuzkoako mugan Foru Aldundiaren zergak biltzeko, eta eskualde honetan bota zituen erroak gure familiak, aitak bere karrera profesionala Bilbon hasi zuen arte. Urteak pasa ahala, Ermua maitatzen erakutsi zigun, berak beti maitatu zuen moduan, ziur aski hango frontoiak piztu zuelako bere eskupilotarako grina, geroztik hainbeste disfrutatuko zuen zaletasuna.

1972an, dagoeneko anai-arreba guztiak etorriak ginen mundura eta Iralako auzoko etxe xume batean bizi ginen, Zabalburutik oso hurbil. Handik, aita egunero *Banco Mercantil e Industrial*-eko Indautxuko sukurtsalera abiatzen zen, bertako zuzendaria zelako.

Urteak bete eta kontzientzia hartuz joan ginen heinean, gure aitaren grina bere seme-alabekin ahalik eta denbora gehien igarotzea zela ikusi genuen. Beti gogoratuko dugu nola gozatzen zuen gurekin etxeko-lanak egiten; denbora orotan gure ume-gauzei buruz gehiago jakin nahi zuen eta

galdera mordoarekin zirikatzen gintuen, eskolako galdekizunei erantzuterako orduan zorrotzagoak izan gintezen. Eta asteburuetan guztiak berarekin joaten ginen herri ezberdinetara, bere igandeko bolo partidak ikusteko, Bizkaiko Pasa-bolo ligako jokalaria trebea izan zen eta. Guretzako Artzentales, Sopuerta, Ramales de la Victoria, Zalla eta Galdames bezalako herriek ez zuten sekreturik, han pasa genituelako gure aitarekin kirol-ligako igandeak. Bere alboan bidaiatzea benetan atsegina zen eta oso gazteak izan arren, bere elkarriketekin gure ume-irudimena suspertu eta oso zoriontsu egiten gintuen.

1972an, bankuak gure aitari Barakaldoko sukurtsalaren ardura eman zion, lan-kopuru handiagoa zuen tokia eta, hortaz, garrantzitsu eta nahasiagoa. Orduan gure gurasoek lehenengo urteetan kargu berriak gure aitaren arreta handiagoa eskatzen zuela ulertu zuten, beste kontuen artean, sukurtsaleko zuzendaria Barakaldoko industria eta komertzioan ezagutzera eman behar zelako. Horretarako denbora asko behar izango zuenez, lanalditik kanpo ere, guztiak berarekin hiri berrira lekualdatu ginen eta Bankuaren etxebizitza batean ezarri ginen denboraldi batez gure ohiko etxea utziz.

Hori baino lehenago Bizkaiko Bolo Federazioko presidente ere izendatu zuten, zentzu zorrotzean denbora ugari kentzen zion zeregina. Beraz, ohikoa zen guztiok laguntzea, eta bereziki gure ama, txapelketetarako zerrendak egiten, federatuen agiriak eta taldeen fitxak betetzen eta bere aisialdia xurgatzen zuten hainbat jarduera eta huskeria gehiagotan. Zentzu honetan, inoiz ez zuen besteei laguntzeko zereginak egiteko arazorik izan, nahiz eta gogorrak izan. Aktibista on horietako bat zen, hutsuneak bete eta non edo non giro ona sortzeko beti prest zegoena. Ez dugu zehazki gogoratzen zein izan zen Meltxor Erregearen mozorroa jarri eta bankuko langile eta bezeroen seme-alabei harrera egin zien urtea. Batzuek bere eredua jarraitu genuen urte asko pasa eta gero, eta horrela ulertu genuen, munduko gauza onetan baino ez duen sinesten ume baten burua ilusioz betetzea poz ikaragarria eragiten duela.

Noizean behin, oso lanpetuta ez zegoenean, neba-arreba helduenok eskolatik irten eta bankura joaten ginen bere bila. Herri-sukurtsal bateko zuzendaria baino ez zen, baina gure buru irudimentsuetan gure aita

Amerikako altxorraren zuzendaria zela uste genuen eta harro geunden, sekulako aita genuelako.

1979 urtea iritsi zen eta, politika arloan, konbultsio handia egongo zela eta trantsizioaren indar sozial anitzen elkarren arteko ulermena zaila izango zela zirudien. Zentro-eskuin ez nazionalistako hautesleak adorerik gabe zeuden, euren siglak euskal gizartean harrera onik ez zutelako. 1979ko martxoko Hauteskunde Orokorretan, zentro-eskuina *Coalición Democrática* bezala aurkeztu zen Nazio-lurralde osoan, José María de Areilza, Alfonso Osorio eta Manuel Fragaren arteko itunaren ondorioz, Euskadin izan ezik. Bertan, Euskal Herriko Foru Batasuna (Unión Foral del País Vasco) bezala aurkeztu ziren, Luis Olarraren gidaritzapean, ospe eta balio profesionala zuten aurpegi berriekin batera. Zerrendako bigarren kandidatua Aliantza Popularrak izendatuko zuen. Norbaitek orduko Aliantza Popularreko presidentea zen Antonio Merino eta Jesús Pérez Bilbaori (Euskadiko zentro-eskuineko gizon garrantzitsuak) gure aita kandidatu ona izan ahal zela proposatu zien, hurbil zeuden hauteskunde orokorretarako marka berrirako.

Geroago, eta aldez aurretik ezagutzen ez ziren arren, Antonio eta Jesús gure aitarekin Bilboko Ercilla Hotelean batzartu zirela jakin genuen, ziur aski 1978ko abenduan, eta euren alderdian erroldatzeko proposamena luzatu ziotela, bere ospe eta lanarekin itsasadarreko ezker aldean zentro-eskuina berpizten laguntzeko. Gure aita Barakaldon oso ezaguna eta maitatua zen, lanean erakutsitako eraginkortasunagatik. Bestalde, Bizkaiko kirolagatik zeukan ardura eta zaletasunak bere figura ikusgai jartzen zuten beste ezker aldeko pertsona ospetsuren aurretik, pentsatzeko modu jakin bat izan arren kategoria galtzen ez zuen gizonaren irudia emanez.

Gure aitak harriduraz jaso zuen eskaintza, inoiz ez baitzuen pentsatu inork bere esku-hartzea beharko zuenik. Urteak pasa ondoren, Antonio Merinok gure aitak erantzun ziona kontatu zigun: haiek bere presentzia beharrezkoa zela uste bazuten parte hartuko zuela, baino pauso hori eman aurretik bere familiari galdetu behar ziola, bere erabakiak guztiontzako ondorioak izan ahal zituelako susmoa baitzuen. Horrez gain beste baldintza eskuragarri bat jarri zuen: Bizkaiko Bolo-joko txapelketa hurbila jokatzeko asmoa zuen. Antonio eta Jesusek baietz esan zuten, noski txapelketan parte-hartzeko arazorik ez zegoela adieraziz, bera presidentea baitzen, eta agur

esan zuten, behin betiko erantzunaren zain geratuz.

Eta erantzun hori handik oso gutxira jaso zuten. Ez dakigu zehazki zernolako elkarriketa izan zuen gure amarekin, baina badakigu nola bukatu zen. Amak esan zion berak parte hartzea beharrezkoa zela uste bazuen, kontra egingo ez ziola. Guri dagokigunez, bere logelara deitu zigun, banan-banan, bere ontziratze posiblearen berri eman eta gure baimena eskatzeko. Hogeita hamapiku urte beranduago, oraindik samurtzen da gure arima eszena hau gogoratzean. Zenbat maite gintuen gure aitak. Borjak, txikienak, ez zituen oraindik lau urteak bete; horregatik, berarekin bakarka bildu zenean, muxu bat eman zion, isil-isilik, eta samurtasun zirraragarriaz besarkatu zuen. Ez zen gehiagorik egon.

Kanpainaren egitura arrazoi ezberdinen ondorioz oso kaskarra zenez, gure etxea tazituki ezkerraldeko Gorte Nagusietarako kandidatuaren egoitza bilakatu zen. Beharrezkoa izan zenean, guraso eta umeak hauteskunde-txartelak propaganda-gutunetan sartzeaz arduratu ginen. Eta disfrutatu genuen, gure aitaren jarduera berriagatik asaldatutako umeak baino ez baikinen.

Oso etsigarria zen mitin eta proiektua azaltzeko bileretara hain jende gutxi bertaratzen zela ikustea, baina familia beti agertzen zen. Gure aukera ia ezkutuan bizi zen, klandestinoak zen kasik. Kanpaina hasieratik egunero egiten ziren manifestazioak Bizkaiko Metaleko Hitzarmena zela eta, Luis Olarra Euskadiko Enpresarien Presidentearekin zerikusia zutenak. Hauteskundeak martxoaren batean izan ziren eta Foru Batasuneko euskal hautagaitzak porrot itzela jaso zuen, ez baitzen inor atera.

Hilabete bat beranduago Foru Batasuna apirileko udal-hauteskunde eta Batzar Nagusietara aurkeztu zen, baina azkenik, zenbait arazoren ondorioz, kandidaturak baztertu behar izan zituzten.

Orduan, gure aita bere egunerokotasunera itzuli zen, *Hispano Americano* izena hartu zuen bankuan, marka berriak lehengo bankua xurgatu eta gero. 1979ko urtarrilaren hogeita zazpian, Aldizkari Ofizialak hautagaitzak aditzera eman eta gero, bankuan agian alerta maximoan jarri behar izan gintuen zerbait gertatu zen: terroristek gure aitak zuzentzen zuen sukurtsalean lapurreta egin eta hamar milioi pezeta eramatea lortu zuten.

Hiru lapurrek, aurpegia estali ere egin barik, denen agerian dirua hartu eta gure aita hainbat orduz bahitu zuten. Hain izan zen handia eraso burutzeko izan zuten inpunitatea, non aita Barakaldoko tren geltokira oinez eraman, bagoi batera igo eta Bilbora abiatu baitziren, Parkeko geltokian jaisteko, Arte Ederretako Museoaren ondoan, antzinako Euskalduna ontziolen aurrean. Agur esan baino lehen, heriotza mehatxua egin zioten polizia bi ordu baino lehenago deitzen bazuen eta lapurretaren helburua ETA talde terroristaren diru-zamak arintzea zela adierazi zioten, kausa horrek errutik libre utziko balitu bezala.

Berria prentsan atera zen, jakina, eta seme-alaba helduenak guztiaz ohartu ginen. Bost egun lehenago, urtarrilaren hogeita bian, Asteleheneko Orrian (la Hoja de Lunes) Euskal Herriko Foru Batasunaren hautagaitza argitaratu zen. Inoiz ez zituzten terroristak atxilotu.

Hauteskundeetan porrot itzela jaso eta gero, bere ohiko lan jarduerara bueltatu zen eta berriro ekin zien astegun eta igande arratsaldetako pala partiduei Barakaldoko Gorostiza frontoian. Betiko lez, seme-alaba helduenak berarekin frontoira joaten ginen, aita kirolaz disfrutatzen eta besteek bere begikotasun naturalaren aurrean erakusten zioten adeitasunaz gozatzen ikustea gustatzen zitzaigulako. Guretzat erabat atsegina zen aita bere saltsan ikustea, irribarretsu, batzuk eta besteekin solasean, edonoren agurrari maitasunez erantzuten.

Gure aita ez zen futbolzale handia, baina bere seme-alabak gehien gustatzen zitzaizkien jardueretan ikustea izugarri maite zuen eta Eskolako futbol partidetara joateko orduan ez zuen inolako zalantzarik izaten. Behin, larunbat goiz euritsu batean agertu zen, Rafaren norgehiagoka garrantzitsu batean, alde aurretik abisatu gabe eta euritakorik barik. Bulegotik atera zen bere semea tarte labur batez ikusteko, eta tartetxoa pasa ondoren alde egin zuen, blai-blai eginda. Beste batean, Rafari elkarrekin San Mamésen Athletic eta Milanen arteko partida garrantzitsua ikusteko bi sarrera oparitu zizkion, berriro ere bere semea zur eta lur utziz. Hori izan zen seguruenik bere azken aparteko ekintza, nahiz eta gure aitarentzako ohikoa zen jokabide hori; gustu handiz egiten zituen horrelako ekintzak, bere seme-alabak zoriontsu ikusteko.

Hirurogeita hemeretziko uda denak elkarrekin igaro genuen, beti bezala, Lekeitio alokaturiko pisutxo batean, aurreko udak Laredo, Labastida eta Anguciana bezalako leku ezberdinetan igaro eta gero. Oraingo honetan, gure gurasoek Lekeitio aukeratu zuten gure arreba nagusiaren lagun gehienak herri horretan biltzen zirelako eta bere atsedean hilabetean beraiekin disfrutatzea nahi zutelako. Oporretan egon arren, aitak bere ardurei begira jarraitzen zuen beti. Goizero telefonoz deitzen zuen sukurtsalera, gauzak nola zihoazen eta arazorik ba al zegoen ikusteko. Hori izan zen azkenengo uda, eta seguruenik udarik zoriontsuena. Neba-arreba nagusiok bete-betean gure gaztaroa estreinatzen genuen eta izugarri gozatu genuen lagunekin planak egiten, etxean gure gurasoek bizimodurik onena bermatuz suspertzen gintuztelako.

Lekeitiotik itzuli eta egun gutxi batzuetara, irailaren hamahirua baino lehen, aita arratsaldean lau urte baino ez zituen Borja anaiatxoarekin joan zen Artxandako mendian kokatzen zen jolas-parkera. Biak liluratuta bueltatu ziren, batez ere Borja, bere aitaz era eskusiboan eta inguruan anai-arreba nagusirik izan gabe disfrutatu izanagatik. Gauean gure aitak amari esan zion: “Merche, gaur jarraitu nautela uste dut”.

Hurrengo egunean, goizeko zortzietan, lanera joateko portaletik ateratzen zenean hil egin zuten. Bost aldiz egin zioten tiro bularrean. Gu oraindik ohean geunden, eskola hasi ez zelako, baina ama altxatua zen dagoeneko, beti bezala, aitaren gosaria prestatu eta bere egunarekin ere hasteko. Danbatekoen zalaparta entzutean, korrika jaitsi zen eta, negarrez, gure aitarekin abiatu zen anbulantzia Gurutzetako ospitalera. Handik gutxira itzuli zen eta guztiak egongelan bildu gintuen. Inoiz egin ez zuen bezala besarkatu gintuen eta ahapeka esan zuen: “hil egin dute, orain guztiok elkarrekin egon behar dugu”.

Geroztik, hogeita hamar urte baino gehiago pasa dira eta oraindik jarraitzen dugu gure aitaren hurbiltasuna sentitzen, inoiz alde egin ez balu bezala. Gure familiak asko sufritu zuen, izugarri, bere heriotza beldurgarriak eragindako nahigabearen ondorioz. Baina horrelako tragedia pairatu arren, beti jakin izan dugu era misteriotsu batean gurekin egongo zela, etengabe, gure bihotzetik oso hurbil.

LUIS MARÍA URIARTE ALZAA

(1924-1979)

LUISEK Francoren diktaduraren osteko trantsizioaren aurretik ekin zion bizitza politikoari, Fernando Ybarra López-Dórigak, garai hartan Bizkaiko Foru Aldundiaren presidentea zena, bere burua foru-diputatu bezala aurkeztera animatu zuenean. Zeregin horretan Pedro Zubiría ezagutu zuen, orduan Getxoko alkate eta aldi berean foru-diputatua zena, eta lagun onak egin ziren. Elkarren artean sorturiko adiskidetasun horren bitartez, Luis Aliantza Popularreko fundazioan esku hartzen hasi zen eta beranduago baita probintziako zuzendaritza-batzordeko kide bilakatu ere. Fundazioaren lehenengo presidentea Pedro Zubiría izan zen, hain zuzen ere. Era berean, Luis Uriartek 1977ko ekainaren lehenengo hauteskunde orokorretan parte hartu zuen, zentro-eskuin ez nazionalistak behintzat aukeraren bat izan zezan. Aliantza Popularreko fundatzaileetako bat izan zen.

Hala ere, Luis ez zen politikaz bizitzen, gaur egun hainbestek egiten duten bezala. Bizimodua garajeen ateratzen zuen, *Cementos Lemona* enpresako kamioien mantentze-lanak egiten. Dena den, 1978rako enpresa utzi behar izan zuen, hainbat heriotza mehatxu jaso ondoren polizia eta bere lagunek ingurune horretatik denbora luze batez urruntzea gomendatu ziotelako. Handik hilabete batzuetara hil zuten, lan egiten zuen konponketa-lantegiaren atean.

Urte bat eta erdiz familiako lagun batzuek euren etxean hartu zuten. Eta hori bereziki gogorra izan zen berarentzat, izaera aktibo eta langilea izanik, estradizioa saihesteko izua eta lanik ez izatearen gogogabetasunaren zigorra jaso zuelako; baina moldatu behar izan zen, ez zuen beste irtenbiderik izan.

Luis Durangokoa zen jatorriz (1924-VIII-20) eta bere emaztea, María Victoria Garay Ugarte, Bediakoa, euren familia osatzeko aukeratu zuten herria. Horregatik, logikoa litzateke bere ihesaldia eta ondorengo hilketa bereziki gogorra izan zela pentsatzea, eta jakina, hala izan zen, baina Luisen

aurretik beste lagun batzuk hil zituztela ere adierazi behar da. Beti jakin izan zuen bere ideiak demokratikoki defendatzeak zekarren arriskua, batez ere Bedian, Arratiako bailaran. Beti jakin izan zuen arriskuan zegoela, arrisku lausoa agian, gerrarik odoltsuenetan ere, borrokalariek bizirik ateratzeko itxaropena mantentzen baitute.

Luis izaera alaiko gizona zen, hiltuna, zalaparta maite zuena eta bere lagunekin beti bromak egiten eta errondetan edo poteoan solas egiteko prest zegoena. Izugarri disfrutatzen zuen bere lagunekin eta inoiz ez zuen denbora nahikorik aurkitzen beraiekin gozatzeko.

Durangoko maristekin eskolatu zen herri horretako edozein ume bezala, eta ondoren, Eibarrera abiatu zen hango armategietako eskola profesionaletan (gaur egungo lanbide-heziketa) ikasteko eta han pasatu zuen bere lehenengo gaztaroa.

Bere emaztearen familia beti egon zen zementua fabrikatzeko harrobiekin lotuta. Horregatik, 1954an ezkondu zirenean, eskualde hartako ia herri guztiei lana ematen zien fabrikan lan egiten hasi zen. Luisen familiak inspirazioa tradizio karlistetatik hartu zuen beti, dinastia-edukiak eta tradizio karlistak mundua ulertzeko zuen modua euren bizitzan aplikatuz. Bere sinesmenak Jainkoa, Aberria, Foruak eta Erregea leloan laburbiltzen ziren eta lau ardatz horietan aurkitu zuen bizitza ulertzeko modua. Ohikoa zen berarentzat familiarekin Montejurrara joatea. Urteak pasa ahala eta bere aro politikoa ulertuz joan zenean, bere sinesmenak hobeto batzen zituen espektro politikoa alde egin zuen apustu, bere familiako tradizio politikoak ahaztu barik.

Luisen aita antzinako karlista zen, hau da, besteentzako onura besterik bilatzen ez zuen gizon on eta kuttuna. Zoriontsua izan zen tradizio-mundu horretan, bere pentsamoldea erlijioa eta aspaldiko usadioetan oinarrituz. Inoiz ez zen politikoa izan eta ez zuen inoiz giza antolaketarako eredurik ezartzeko borrokatu.

Bere bizitza osoan Foru Aldundian lan egin zuen, Bizkaiko errepideetako mantentze-lanak egiten zituzten taldeen arduradun bezala. Seguruenik bere emaztea izan zen bera baino aktiboagoa karlismoa zabaltzerako orduan, bere nortasuna dela eta agian, nahiz eta eksklusiboan

familiaz arduratzen zen etxekoandrea izan. Zazpi seme-alaba izan zituzten eta txikienak baino ez dirau bizirik, Rafaela.

Esan beharra dago Luis beti arduratu zela Bediaz eta bere eskolak, frontoia eta biztanleen bizitza erosoagoa bihur zezakeen guztia hobetzeaz.

Eta trantsizio politikoa iritsi zen. Bera alkatea zen eta aldi berean diputatua, Pedro Arístegui Aldundiko presidentea zen garaian. Ardura honetan Perico Zubiría ezagutu zuen, era berean diputatu kargua zuena, lehen aipatu den bezala; 1972 eta 1975 arteko urteak izan ziren.

Ez dut uste Aldundian lan egiteagatik heriotza eman zion nazionalismoaren lerro gorririk zeharkatu zuenik.

Nire aburuz, Luisen jazarpena trantsizio politikoaren hastapenetan hasi zen, ikurrina legalizatzearen aurka jarri zenean, euskal nazionalismoaren bandera. Handik aurrera bere pentsaera era publikoan adierazten hasi zen, alderdi baten bandera autonomia berriaren ikurrina ere izatea onartzen ez zuela azalduz. Martín Villarekin elkarriketatu zen ikurrina errefusatzeko zuela adierazteko eta honek bandera hori inoiz onartuko ez zutela esan zion. Baina, handik gutxira eta Luis eta beste askoren ezkutuan, bandera ontzat eman zuten. Momentu hartaz geroztik bere posizioa publikoki aditzera eman zuen; idazki batean EAJ-PNVren bandera bere adopzio-herriko Udaletxean jartzea inoiz onartuko ez zuela azaldu zuen eta ondorioz, bere kargua uzten zuela. Eta hori egin zuen. Momentu hartan, jakin gabe, hasi zen bere bizitzaren atzerako kontaketa.

Alkatetza uztean, bere bizitza publikoa desagertu zen eta bere ohiko bizitzarekin jarraitu zuen, ordura arte egiten zuen bezala. Bere alkate garaian, inoiz ez zuen *Cementos Lemona* enpresako lana alde batera utzi. Alkatetzari aisialdiko denboran ekiten zion, arratsaldeko sei edo zazpiak eta gero.

Trantsizioa heldu baino lehen, nazionalismoak ez zuen oraindik kultura etno-euskalduna monopolizatu. Baina ezaguna denez nazionalismoak adierazpen kultural horiek materia baztertzailerik bihurtu zituen eta guztia hondatu zuen. Luisek aldi oro esaten zuen gure nortasuna lapurtzen uzten ari genitela eta, zoritxarrez, hala izan zen, nahiz eta berak ahal bezainbeste

borrokatu zuen akats larri hori gertatu ez zedin. Urte latzak izan ziren benetan.

Bere etxea utzi behar izan aurretik, Luis Guardia Zibilaren eskoltarekin bizi izan zen hainbat urtez. Seme-alabak babes-auto batekin batera eramaten zituen eskolara. Baina zaingoa ez zen bere bizitzeko gauza berezi bakarra izan. Izan ere, 70. hamarkadako hasieratik, izuaren eragileek eta bortizkeriari aurre egiteko adorerik ez zuten horien isiltasun zantarrak sozialki seinalatu zuten.

Urte gogorrenetan ere, ez zuen bizitzeko alaitasuna galdu, bere familiarekin egoteko zituen gogoak, elkartzen ziren bakoitzean bromak eta txantxak eginez, bilerak pozez betez. Bere erbestetik oso noizean behin etortzen zenean ere, ez zuen inoiz bere izaeraren itzal ñimiñorik galdu.

Gizon aparta zen.

Familiak ez du ahazten ezta barkatzen, baina gorrotoa beraien bihotzez inoiz jabetu ez dela esan dezakete. Bedian bizitzen jarraitzen dute. Luis hil zenean, familia osoak erabaki zuen, hitzez adieraztearen beharrik gabe, inoiz ez zela dagoeneko sentitzen zuten nahigabe handiagorik eragingo liekeen ezer egongo.

Hiletara herri osoa bertaratu zen eta momentu horretan bai, Bediako herriaren beroa sentitu zuten.

Lemoan metrailatu zuten, 1979ko irailaren hogeita bederatzian, garajeko atean, larunbat batean, goizeko zortzietan, eta Basurtuko Ospitale Zibilean hil zen, handik eta egun gutxi batzuetara, urriaren bostean.

Luis oso pertsona ona izan zen. Bere gorputza tirokatu eta bost egunetara hil zen. Pistolariak ezagutu al zituen galdetu ziotenean, negar eta isiltasunarekin erantzun zuen, hitzik esan barik. Ulertzen da hiltzaileak ezagutu zituela eta ez zuela ezer esan bere seme-alabek justizia euren eskutik aplikatzeko tentaziorik inoiz izan ez zezaten. Aparteko gizona izan zen eta bere familiak beti jarraitu du bere bihotzaren gertutasuna sentitzen, maitasun hori euren barnean une oro eramanez.

RAMÓN BAGLIETTO MARTÍNEZ

(1937-1980)

Nire senarra **RAMÓN** aparteko arrazoiak direla eta jaio izan zen Bilbon, 1937ko urtarrilaren bostean. Bere aita Nerbioiko hiriburuko espetxe batean preso zegoen bere sinesmen politikoen ondorioz. Urte latz horietan Bagliettotarrak karlismoaren aldean jarri ziren, Gipuzkoako bailareiz zentzua eta elkartasuna beti eman zien eskuinagatik apustu eginez. Kontua da gorriek Ramonén aita atxilotu eta Bilbora eraman zutela.

Bere emaztea, Azkoitikoa jatorriz, betidanik aparteko karlista ere izan zen. Bere senarra atxilotu zutenean, bera ere Bilbora abiatu zen, nahiz eta Ramónekin haurdun egon, bere senarraren bizitzagatik beldur zelako. Egoera horretan, izugarri sufritu zuen. Izan ere, bere familiatik urrun erditu behar izan zuen (bi egunez luzatu zen erditze batean), eta erabat atsekabetuta, Bilboko espetxeetako sarraskien berriak iristen zitzaizkiolako. Ezezagunen batek Azkoitiko neska bat erreketeez setiatuta zuten hirian zer egiten ote zuen galdetzen zionean, beti berdina erantzuten zuen: bere senarraren zain zegoela, gerra kontuetan lan egiten zuena. Eta, Jainkoari eskerrak, nire senarra izango zenaren aita Bilboko espetxeetako harakintzatik libratu zen. Askotan esan dut Ramón baldintza ikaragarrietan jaio zela, bere gurasoen etxetik urrun, eta baita hil ere, euskal nazionalismoaren gorrotoaren zamaren azpian, etarren totalitarismoa, alegia.

Hirurak berriz elkartu zirenean, Eibarreko etxera bueltatu ziren, zoriontsu, euren ohiko bizitzari berriro ekiteko. Bagliettotarrak aspaldiko familia bat dira, jatorriz Genoakoa, urrutiko Italian. Bere anaia, Pedro Mari, zehatz-mehatz azaltzen du nola sortu zen euren klanaren bere anaiaren hilketaren inguruan idatzi zuen liburuan. Nik orain esan dezakedana da aspaldi, duela ehunka urte, Bagliettotar batzuk Murtzia eta Lanestosatik azaldu zirela, eta denborarekin, denak Eibarren elkartu zirela. Aparteko artisten leinua ziren, zehaztasun handiko pintore eta dekoratzaileak, Italia distiratsuan belaunaldiz belaunaldi bereganatutako gustuarekin ibar

hauetako etxeak apaintzen zituztenak.

Ramónek Eibarren egin zuen batxilergoa eta ezkondu ondoren, ilusio eta ahalegin handiarekin dekoratzaile titulua lortu zuen; izan ere, garai hartan beharrezkoa zen titulu ofizial baten bitartez prestakuntza minimo bat aurkeztea. Ramón oso gaztetatik hasi zen bere aitarekin lanean, betiere Azkoitia, Azpeitia eta Eibarrek mugatzen duten eskualdean. Egia da triangelu horrek ez zuela biztanleria gehiegirik biltzen, baina familia beti lanpetuta zegoen auzotarren etxeak apaintzen, eta lan hori pasio handiarekin egiten zuten.

Gaztetxoa nintzenean ezagutu nuen, nire aitonaren anai baten dendan laguntzen nuen bitartean. Han eskariak, emate-agiriak, eta eskualdeko lantegiek behar zuten guztiaz arduratzen nintzen, nire osaba zaharraren negozioak osagarri eta ordezeko piezez (widiatzko punta zulatzaileak, adibidez) hornitzen baitzituen eskualdeko makina-erremintako lantegiak. Nire osabaren dendaren aurrean pintura denda bat zegoen eta Ramón askotan han egiten zituen erosketak eta bestelako eskariak.

Han hasi zen dena. Esan daiteke, ni ezagutu bezain laster irribarrea atera zitzaiola. Orduan, mota guztietako hitz ederrak esaten hasi zen: Azkoitiko neskari ederrena nintzela, herrialdeko bailara berdeetako gozoena, nire presentziarekin eskualdeari zentzua ematen ziona. Hain zen adeitsua, dibertigarria eta aldi berean errespetuzkoa! Berarekin egotea zoragarria zen. Berari esker, beste modu batean barre egiten ikasi nuen eta bere alaitasunaren ondoan bizitza ederra eta distiratsuagoa zela ulertu nuen.

Horrela hiru urte pasa genituen. Bere Lambretta motorra nire lanera hurbiltzen entzuten nuenean poz-pozik jartzen nintzen. Ramón ostegunetan etorri ohi zen Eibartik mandatuak egitera eta orduan ikusten ginen, eta igande arratsaldetan, noski, nire ahizparekin gure familiaren gasolindegiaz arduratzen ginenean. Harremana formalizatu genuenean, herrira etortzen zen nire bila eta gainontzeko bikoteekin batera paseatzen ginen, Azkoitiko kale nagusian gora eta behera, berriketan, Ramónek neskatoei hitz ederrak botatzen zizkien bitartean. Oso argia zen, eta oso italiarra besteekin atsegina eta gozoa izaterako orduan eta nire bihotza ukitzen zuen bere hitz

dotoreekin barreak eragiten zizkidan bakoitzean.

Bere izaera xaloari esker, neskak alaitzeaz gain, bere adineko gazteen artean lagunak erraztasunez egiten zituen. Guztiekin harreman ona zeukan, baita geroago bere bizitza zapuztu zuten nazionalistekin, edonorekin. Ohikoa denez, txikiteoa eta futbola ziren bere lagunekin egoteko aitzakiak. Mendian ibiltzeaz ez zuen ezer jakin nahi. Asko kostatu zitzaidan igandeetan etxera bazkaltzeko orduan iritsi zedin lortzea; koadrilarekin berbetan izugarri disfrutatzen zuenez janaurreko erronda egiten zuten bitartean ordua ahaztu egiten zitzaion.

Ni neba-arrebetako nagusia izan nintzen eta niri tokatu zitzaidan hurrengoak familia ugari batean beti garrantzitsua den ordena eta diziplinan hezteak. Aita eta aitonari ezkonduko nintzela aitortu nienean, aitari ondo iruditu zitzaion, baina Eibarren ezkontzeaz ahazteko esan zidan: Azpeitia izango zen bere alaba nagusia senarrari entregatzeko aukeraturiko lekua. Nire aitonak, bere semea ahotsaz soilik ezagutzen zuena, diabetes baten ondorioz itsu geratu zelako, esan zidan: “Zer? Margolariarekin ezkonduko zara?” “Bai” erantzun nion. Bere etxean zegoen pisu bat alokairuan emateko eskatu nion, familia osoa bizi ginen etxean alegia. Denborarekin, eta arazo medikoren baten ondoren, gure bi semeak iritsi ziren. Eta jaio zirenetik, familia alaitzen hasi ziren. Ramónek asko disfrutatu zuen umeekin, eta oraindik gaur bere irudia ikusten dut, gogotsu, beraiekin sukaldeko formikazko mahaian margotzen, marrazkien bitartez kontatzen zizkien historiekin txikitxoaren sormena zabalduz.

Ramónek bere aitarengatik ikasi zuen besteak politikaren bitartez laguntzen. Gaztea izanik, bere aita Errepublikako urteetan atxilotu askori laguntza eskaini ziela jakin zuen, erreketean murgilduta egon zela eta bere herria hobetzeko dena eman zuen Eibarko alkatea izan zela.

Ez dakit zehazki nola eta noiz elkartu zen Joxé Txiqui Larrañaga bere lagun minarekin kontu politikoetan sartzeko, baina zalantzarik gabe trantsizioaren hasieran izan zen. Gogoratu egiten dut, ordea, Juan María Aralucek, geroago ETAk ere hilko zuena, laguntza eskatu ziela Marcelino Orejak akta bat lor zezan, Gorteetako prokuradore izateko.

Ondo oroitzen naiz izendapen horretaz, nire seme txikiaren

jaiotzarekin bat egin zuelako. Oraindik gogoratzen dut Marcelino Orejak bere laguntza eskertzeko klinikara bidali zuen kamelia-sorta. Joxé Txiquik *Guipúzcoa Unida*-n izena eman zuen, Aliantza Popularreko hauteskunde-marka, eta Ramónek UCDn. Horrela jaio zen Gipuzkoako zentro-eskuin espainiarra, aipatutakoen eta gutxi batzuk gehiagoren esku-hartzearekin. Ia guztiak hil zituzten, baina inoiz ez gintuzten garaitu, min deskribaezina eragin ziguten arren.

Jakina, nik ahal izan nuen guztian lagundu nuen Ramón, gutun-azalak idazten, propaganda gutunak prestatzen, autobusean Azkoititik Donostiara etxean prestaturiko gutunez betetako kutxak eramaten, Jaime Mayorren idazkariari entregatzeko, beranduago bere emaztea izango zena. Eta guzti hori gure poltsikotik ordaintzen genuen, baita herrian prestatzen genituen askariak ere, Donostiakoek gure eskaintza politikoaren ontasuna azal ziezaguten. UCD eta bere buruzagiek ez ziguten inoiz pezetarik eman. Nire senarra hil zutenean, nire Ramón maitea, pertsonalki eta era aktiboan politikan sartu nintzen, berak emandako guztia nire bizitzaren bitartez mantentzeko helburuz.

Inoiz ez ginen heriotzaren beldur izan. Aurreko urtean Aliantza Popularreko Modesto Carriegas eta Luis Uriarte hil zituzten, baina ETak ez zuen inoiz UCDko inor ukitu. Hain sentitzen ginen maitatuak gure herrian eta hain zen popularra Ramón bere lagunaren artean, ez genuela batere arriskurik sumatu.

Egun gutxi batzuk lehenago, Ramónek kotxe bat bere dendaren atearen inguruan bueltaka ikusi zuela esan zidan, baina ezer gehiago. Gero, Joxé Txiqui Larrañagaren atentatua iritsi zen, hil baino lehen pairatu zituen hiruretako bigarrena. José Txiqui ospitalean bisitatzeko zortea eduki genuen, bala-zauriez osatzen ari zen bitartean. Barreak egin genituen bera eta bere familiarekin eta poz-pozik atera ginen bere gelatik, bizirik aterako zela nabaritzen zelako. Ramón pozarren zegoen eta ospatzeko, egun horretan erretegi batean txuleta on bat afaltzera eraman ninduen seme-alabekin batera. Gau ederra izan zen eta bera, beti bezala, burutsu, dibertigarri eta itxaropenez gainezka ageri izan zen. Hori izan zen gure seme-alabek euren aita ikusi zuten azken unea eta han eman zioten, jakin barik, azkeneko behin-betiko agurra. Hurrengo egunean, 1980ko maiatzaren 12an, etxetik

hurbil hil zuten, Azkarateko Mendatean.

Goiz hartan zerbait arraroa sumatu nuen. Etxetik hain goiz ateratzen zela ikustean leihora atera nintzen agur esateko, eta mutil bat ni ikustean ezkututzen zela ikusi nuen. “Ze arraroa!”, pentsatu nuen eta etxeko beste leiho batera hurbildu nintzen non zegoen ikusteko. Gaztea han zegoen, baina berriro ere ni ikustean arineketan alde egin zuen eta ez nuen berriro ikusi.

Beranduago jakin genuen mutil hori pistolaria izan zela, Ramón hil zuena, urte askoren ondoren kartzelatik ateratzean nire etxeko ate ondoan negozio bat ireki zuena. Gainera, gutxi batzuek baino ez dakite Ramónek bere hiltzailearen bizitza salbatu zuela haurtxo bat zenean, bere ama eta beste anai bat hil ziren istripu baten ondoren. Beti pentsatu izan dut deabruak hartuta zuela ETako gaizkileen arima, gisapetiko izakiak zirela, bere gorroto politika esku artetik ihes egiten ziola ikustean ezer egin ez zuen euskal nazionalismo baten malformazioak.

Gure herrian dolu zintzo eta beroa egin zen Ramón hil ondoren. Oso maitatua zenez, inork ezin zuen sinetsi notizia egia zela, baina hala izan zen. Gure atsekabearen barruan, gure seme-alabak zorionekoak izan ziren aparteko familia baten parte izateagatik; garai hartan gazteak ziren osaba-izebek eta oraindik bizirik zegoen aitonak une oro babestu zituzten, euren bihotzaren errukia eskainiz.

Ni munduko emakumerik bakartiena sentitu nintzen, Ramónek beste inork ez bezala nire egunak betetzen zituelako. Baina berregin behar izan nintzen, eta negar egin, eta gogor lan egin. Pentsio makal bat baino ez zitzaidan geratu, hogeit mila pezetara iristen ez zena eta indar handiagoz borrokatzen hasi nintzen, Ramónek beste bizitzatik bidaltzen zidan indarrarekin. Aznar presidenteari esker, familia eta alargunei laguntza ekonomikoa heldu zitzaigun eta aurretik ezeztatutako animoa, baina, hau ez da garrantzizkoa.

Etxean, nire seme eta bilobekin, oraindik sentitzen ditugu bere taupadak. Nire senarra, nire semeen aita eta ezagutzeko dohainik izan ez zuten nire biloben aitona gure ondoan jarraitzen du. Badakit nire seme nagusiak noizean behin bere seme-alabak aitonaren hilobia bisitatzer

eraman ohi dituela eta han bere aita dagoela kontatzen diela, bere bizitza besteengatik eman zuen gizon adoretua Orduan, nire ilobatxoak lore sorta bat jartzen du Ramónen hobian, eta bizitza berriz hasten da gure familiaren oroimenean.

JOSÉ IGNACIO USTARAN RAMÍREZ

(1937-1980)

JOSÉ IGNACIO Gasteizen jaio zen 1939an. “Betiko” gasteiztarra zen, biztanle gutxiko hirian, baina berari buruz ezagutu nuenetik bakarrik hitz egin nahi dut, bere giro familiar eta sozialaz, bere zaletasunei buruz, irakurtzen duenak ikus dezan zein krudela izan zen bere hilketa zorigaiztoko 1980ko irailaren hogeita bederatzi horretan. Izan ere, hilketa guztiak ankerrak badira ere, José bezalako pertsona batena bereziki lazgarria izan zen, hain intentsitate handiaz bizi zen pertsona baten ametsak zapuztea, bere emaztea eta lau seme-alabekin zoriontsua zirudien etorkizunaz gozatzeko gogoak egun batetik bestera itzaltzea. Ezin izan zuen bere umeak nola hazten ziren ikusi, euren bilakaeraren lekuko izateko aukera deuseztatu zioten, ez zioten bere seme-alaben seme-alabak ezagutzen utzi.

Bizitza asko hil zuten, eta gogoratzen dudanean, ahaztea gustatuko litzaidake, oroitzapen hori jasanezina baita niretzako. Berarekin batera, bere lagunak ere hil zituzten, eta baita ni ere, berarekin ehizan joaten nintzena, adiskidetasuna sendotu eta iraunkor egiten duen zaletasun hori konpartituz.

Horrela sortu zen José eta nire arteko adiskidetasun-harremana eta lagunak izan ginen gizaki itxurazko ETako kide ziren bi gizon eta emakume bat euskaldunak zirela esanez (lotsagarria!) bere etxean sartu ziren arte, bere emaztea eta seme-alabak han zeuden bitartean. Bertan, bi orduz torturatu egin zituzten, euren presentzia zitalarekin, euren armekin, euren mehatxuekin, euren zentzugabekeria eta iraineekin, nazionalista zen familia batean (Josérena), eta kasuren batean ezker abertzaleko militantziakoa ere, ardi galdua publikoki izateagatik sortutako gaitz guztiak egotziz. Eta azkenean, José etxetik atera, eraikuntzako garajera eraman eta era koldarrean garondoan tiro bat eman zioten, gorpua bere autoan sartu eta kide zen UCDko egoitzaren azpian uzteko, txarto aparkatuta, txantxa beltz batean, bere emaztea Charo eta seme-alabak etxean ikaratuta utzi zituzten bitartean, eta betirako kontsolaezin.

Beti gogoratuko dut bera zen moduan, bizar beltz eta trinko horrekin, bere soiltasun goiztiarra orekatu eta bere fisionomia serio eta patxadatsua osatzen zuena. Eta bere izaera kritiko eta inkonformista, gogotsu, bere familiatik ezagutzen zuen Euskal Herri ezberdin bat berregiteko prest. Izan ere José euskalduna sentitzen zen, oso, eta euskalduna zen, baina espainola izateaz ere harro zegoen.

Ehiztaria zen, oso ehiztaria, landakoa eta txakurrarekin joaten den horietakoa. Nik uste dut Charo, Sevillakoa zena eta Andaluziako azentua inoiz galdu ez zuena, Sevillara egindako bidai zinegetikoren batean ezagutu zuela. Charon berak ez zuena aurkitu zuen eta elkarren artean osatu ziren eta hiru alaba eta seme bat (nik gaur bere aita gogoratzen dudana bezalakoa dena) izan zituzten, zeinez, bere borraroeek ekidin ez balute, gaur harro eta pozik egongo litzateke.

José politikari bikaina zen, edo izan ahal zen, handinahirik gabe politika egiten zuelako, politika egitea ez bakarrik zaila baizik eta arriskutsua ere zen garaian, Euskadin independentzia eta garaipen nazionalistak ekar zezakeen zamarik nahi ez genuen horientzako.

Charo ezberdina zen, irekia eta kementsua, eta UCDko zerrendan parte hartzen ausartu zen lehenengo toki-hauteskundeetan, Konstituzioa onetsi eta gero egindakoak. Orduan, ni Gasteizko Alkatea nintzen, Trantsizioan zehar Udalaz arduratu zena eta Charo eta beste kide gogotsuekin Gasteiz eta Araba elkarbizitzaren adibide eta nazionalismoarentzako konporta izaten jarraitzea nahi genuen. Ez genuen gure xedea lortu, oso hurbil egon arren. Charok UCDko zinegotzi moduan lan egiten jarraitu zuen José hil zuten arte; nik, ordea, hauteskundeak amaitu eta urte batzuk pasa zirenean kargua utzi nuen, beste ilusio politikoetan murgiltzeko, batzuk erdietsitakoak eta beste batzuk bertan behera geratu zirenak batez ere Joséren hiletaren erruz.

Charo eta Joséren handitasuna ulertzeko, bere familia zeharo nazionalista zela azpimarratu beharra dago. Bere borroka, beraz, politika eta familia arloan izan zen, horrek dakarren zailtasunarekin, UCDko abenturari ekin genion horiekin bat egiteko. Beste zoro gutxi batzuekin batera hasi ginen, Chus Vianaren gidaritzapean, buruzagi aparteko eta errepikaezina, 1987an hil eta alderdia bere lidergotik umezurtz utzi zuena. Horietako

batzuek gorabehera askoren ondoren politikan era aktiboan esku hartzen jarraitzen dugu eta beste hainbat erretiratu egin ziren. Eta horiek izan ziren, ginen, lehenengo “Arabako foru kandidatura independentea” (candidatura independiente foral y alavesa) izenarekin aurkeztu ginen “tentelak”. Berehala, UCDn integratu eta geure burua Adolfo Suárez Presidentearen gizonak (orduan kontzeptu horrek emakumeak ere hartzen zituen barne) izendatu genuen. Horrela ekin genion Juan Carlos Ibarondo, Pedro Morales, Pepa Lafuente, Pepe Nasarre, Guillermo Valle eta Ierro hauek idazten ari denak Josék bukatzen ikusi ez zuen abenturari.

Zoritxarrez, Euskadiko demokraziaren historiak Euskal Herria maite ez zuten eta maite ez dutenek egindako ehunka hilketetan ditu oinarriak, ETA eta bere jarraitzaileak, alegia.

Joséren hilketak abentura ezinezkoa zelako sentsazioa ekarri zuen esperientziarik gabeko Euskadiko UCDra eta jaio berri zen alderdia desagiteko zorian egon ginen. Ezbeharraren ondoren, Arabako Probintzia-batzordea (edo hobeto esanda, bere kideak) Guillermo Valle kidearen lursailera joan ginen, Extremaduran, erabaki horren inguruan hausnartzera. Egia esan, ihesaldia izan zen, eta ia autoetatik jaitsi barik itzuli ginen. Goizeko ordu biak inguruan, Madrid zeharkatu genuen.

Nik SS-40030 matrikuladun Citroën bat gidatzen nuen eta Castellanako Ibiltokian semaforo batean gelditzean, taxi batean zihoan bidaiariak txistua bota zigun “vascos, hijos de puta” esanez. Zein gutxi zekien burugabe horrek gu handik ordu horietan pasatzeko arrazoiei buruz. Horrelakoa zen giroa Euskaditik kanpo, baina hemen, gure hildakoei lurra ematen genien, eta gure esaten dut ETAk hildako guztiak gureak direlako, ia sekretuan, izan ere, politikoki eta soziologikoki “gureak” izan beharko liratekeen horiek iraintzen gintuzten, gu hiltzaile deituz.

José Ignacio hil eta hurrengo hilabeteen, hau da, 1980ko irailaren 29tik urte bereko urriaren hogeita hamarrera bitartean, ETAk gaizkileek UCDko beste bi militante hil zituzten: Jaime Arrese eta Juan de Dios Doval. Gero UCDren hondamendia etorri zen, baina espainiar guztien memorian beti egongo dira gure Espainia demokratikoaren oinarria diren horiek guztiak.

Beraiek hemen ez izatearen atsekabeaz aparte, oraindik gaur hilketa

nortzuk egin zuten ez jakitearen mina daukagu. Izan ere, nahiz eta ETako gainontzeko krimenak egin zituztenen izenak jakin, oraindik ez zaio inori Joséren hilketa egotzi.

Ez dakigu, eta ez dakigu zergatik, baina ez dugu atsedetik hartuko zerri horien izenak jakin arte, giza itxurako izaki horienak, Jaungoikoak madarika ditzala.

JAIME ARRESE ARIZMENDIARRIETA

(1936-1980)

JAIME 1936ko martxoaren zortzian jaio zen, Elgoibarren, hainbat belaunaldiz geroztik bere bi familien jaioterria zen lekua eta inoiz utzi nahi izan ez zuena. Seme txikia izan zen, bederatzi neba-arrebako familia ugari batean. Ohiko familia zen, Euskadiko beste familiek XIX. mende bukaeratik zituzten ezaugarri eta balioekin. Hain zuzen ere, Jaimeren familia karlismoaren postulatuak menpe eroso sentitzen zen, eta ideia horien bitartez Jaimek besteen iritzia errespetatzen eta bere jaioterriko Elgoibar kuttuna maitatzen ikasi zuen.

Lehen mailako ikasketak Elgoibarko Pilar ikastetxean gauzatu zituen eta bukatzean, merkataritza-kontabilitatean prestatzen jarraitu zuen, berehala lanean hasteko. Bere familiak seme-alabek ahalik eta lasterren lana aurkitzea eskertzen zuen, etxeko egoera ekonomiko xumea arintzeko. Jaimek hamasei urte zituenean ekin zion bere lehenengo lanari, Bizkaiko Bankuan, mandatu-mutil bezala, Elgoibarren, noski. Denbora pasa ahala, entitatearen konfiantza irabaziz joan zen eta ahaldun izendatu zuten bankuko barne-promozio baten bitartez.

Laster, eskualdeko enpresek bere balioaz ohartu ziren eta ezkondu baino lehen galdategi batean kontratatu zuten, Mendaron, orduan Elgoibarko auzo bat zena eta gaur egun udaletxe propioa duena. Seguruenik ez zuen galdategi horretan administrari bezala denbora gehiegirik igaro; izan ere, berrogeita hamarreko hamarkadaren bukaeran eginkizun berbera zuen Elgoibarko ETE (enpresa txiki eta ertaina) batean, *Arriola y Compañía*, eskualdeko lantegietarako makina-erremintan espezializatutako enpresa, batez ere metala zulatzen zuten mandrinatzeko makinak fabrikatzen zituena. Lantegian hamabost pertsonak egiten zuten lan eta Elgoibarko zentroko Magdalena Plazan kokatuta zegoen, Jaimeren ahaleginen agertokia eta bere bizitza garatu zuen lekua. Arriola enpresan hil zuten arte egin zuen lan, 1980ko urriaren hogeita hiru, bere lantokitik oso gertu.

Bere lanean gora egiteko aukera ere izan zuen, Ángel Berazadik berarekin Sigma enpresan lan egiteko eskaintza luzatu zionean, Elgoibarren mila auzokideei lana ematen zion fabrika, hamabi mila biztanleko herrian. Baina arrazoi ezberdinengatik Arriolan jarraitu zuen.

Jaimek betidanik erakutsi zuen bere herrikideen bizitza hobetzeko nahia. Hirurogeita hamarreko hamarkadan, Ángel Ajubita alkatea zela, atzamarrez zinegotzi izendatu zuten udaletxean, horrela aukeratzen baitziren Franco garaian korporazioaren eserlekuak. 1974an, prozedura berdina jarraituz Elgoibarko alkate izendatu zuten eta karguan egon zen 1977 arte herria hobetzeko lan itzela eginez. Beti egon zen harro bere auzokideentzako Irakaskuntza Ertaineko Institutu Publiko Mistoa lortu izanaz, izan ere, ordura arte herriko gazteek Eibar edo bestelako lekuetara joan beharra zuten, unibertsitate aurreko ikasketak egiteko.

Etxeko hizkuntzari dagokionez, Jaimeren familia euskalduna zen. Bere bi seme-alabak herriko ikastolara bidaltzea nahiago izan zuen, Pilar ikastetxean eskolatu beharrean (bere ohiko eskola). Argi zeukan euskara kultura eta antzinako balio eta tradizioak transmititzeko tresna zela, ideologiaren erroalea baino lehen. Bere burua beti elgoibartar, euskaldun eta espainoltzat hartu zuen, euskaldun izatea zer zen, edo euskaldun izatearen funtsaren inguruko inolako tentsiorik izan gabe. Zalantzarik gabe, hori izan zen politika eta kulturari dagokionez bere bi semei utzi zien ondarrerik onena. Euzko Alderdi Jeltzalearen ikurrina onartu zuten eta euskal autonomiaren bandera bilakatu zen egunean, Jaime pozarren jarri zen; bera izan zen udaletxeko balkoian ikurrina jaso zuen lehenengoa eta ondoren, korporazio guztiarekin batera joan zen otordu batekin gertakizuna ospatzera.

Trantsizio demokratikoaren hastapenak gogorrak izan ziren Espainian, batez ere herri txikietan. Ondorioz, bere alkate garaian tentsio handia jasan behar izan zuen. Askotan auzokideak ordu txikitan agertzen ziren bere etxean eta txirrina jotzen zuten bere laguntza eskatzeko, aldi berean eta nahi barik, bere familia ere esnatuz. Ezgaraiko dei horietan, Guardia Zibilaren kuartelera abiatzea eskatzen zioten, alkate bezala, poliziak gauez prozesuko berme minimorik gabe atxilotutako neba-arreba edo seme-alaben egoerari buruz galdetzeko. Urte horietan, herrikide askok pairatu

zuten institutu armatuaren neurrigabekeria bortitza eta Jaimek lan ikaragarria egin behar izan zuen giza-eskubideak defendatzeko. Hala ere, auzokide batzuk bere legitimotasunaz fio ez zirela ikusi zuenean (eta hala gertatu zen 50 pertsona baino gutxiagok manifestazio batean kargua uztea eskatu ziotenean), birritan pentsatu gabe alkatetzari uko egin zion 1977an.

Baliteke orduan Marcelino Oreja ezagutu izana eta Espainiako etorkizunerako zentroko proiektu egituratzailearen berri izan ostean ilusioa eta itxaropena berreskuratzea. Zentro Demokratikoaren Batasuna (UCD) sortu zenean, Gipuzkoako zerrendan hirugarrena izatea proposatu zioten, Marcelino Oreja eta Jaime Mayorren atzetik eta hurrengo toki-hauteskundeetan, Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hautagai-zerrendako lehena. Prokuradore akta lortu eta bere aulkitik ilusio guztia jarri zuen horrenbeste maite zuen probintzia hori hobetzen saiatzeko.

Garai hartan, politika (behintzat, toki edo eskualdeko politika) ez zen bizimodua ateratzeko moduko lana; hortaz, betiko intentsitate eta eraginkortasunarekin enpresan lan egiten jarraitu zuen. Elgoibarko alkate izan zen bitartean, Jaimek ez zuen bere zerbitzu anitzengatik pezetarik jaso, nahiz eta herrikideek bereziki aintzat hartu zituzten. Gertutasun handia erakutsi zuen, seguruenik, politikari profesionala ez zela sinesten zuelako. Ahalegin guztiak jarri zituen bere herriko musika taldearentzako uniformeak lortzeko, eta baita dultzainak erosteko, Elgoibarren jai itzelak abian zirela aditzera emateko.

Gizon isila izan zen, baina aldi berean bere inguruan zeuden guztiekin maitekorra. Zaletasunei dagokionez, futbol atezain ona izan zela esan beharra dago, Aurrera Ondarroan lehenengo eta gero, Elgoibarko futbol taldean. Bere seme-alabek kirolarekiko zaletasunarekin jarraitu zuten, baina, kasu honetan, seme nagusiak eskupilota aukeratu zuen. Beste kontuetan grina berbera jarri zuen, zale zintzoaren dedikazioa. Ahal zuenean, eliza-abesbatzaren kontzertuetara abiatzen zen, bere emazteak astero abesten baitzuen, soprano gisa. Dena den, Jaimek ez zuen musika interpretaziorako dohaina, ezta pentsatu ere.

Bere bizitza nahasiz joan zen, baina inoiz ez zuen pentsatu nazionalismo totalitarioaren jomuga izan ahal zenik. Denboraldi batez,

Guardia Zibil baten eskoltarekin bizi izan zen, Anselmo, zeinari maitasun handia hartu zion. Urte batzuk beranduago, terrorismo nazionalistak Anselmoren bizitza ere eraman zuen. Hain zen handia Elgoibarrengatik zuen pasioa eta bertako herritarrek erakusten zioten maitasuna, ziur zegoela ezer txarrik gertatuko ez zitzaiola, zentro-eskuin ez nazionalistaren egoera sostengaezina izan arren. Ramón Baglietto hil zutenean, Jaime Azkarateko mendatera iristen lehenengoetako bat izan zen, bere lagunaren gorpuarengatik negar egiteko; era berean, Ángel Berazadiren hiletan beste lagun baten lana aintzat hartzeko ohore goibela izan zuen.

1980ko urriaren hogeita hiruan, bala terroristek bere bizitza eraman zuten, gizon on baten bizitza. Gertaera hori gaitzesteko, herritarrek manifestazio espontaneoak antolatu zuten Elgoibarreko kaleetatik eta horrek, izugarri kontsolatu zuen bere familia, batez ere publikoki hilketa terroristengatik inork negar egiten ez zuen momentu hartan. Bere gorpuaren gaubeilan, deigarria izan zen adinezko emakume batek, itxuraz anonimoa, Jaime Arreseren aurrean erakutsi zuen atsekabearen intentsitatea.

Hain zuzen ere, esker oneko emakume horrek urte gutxi batzuk aurrerago laguntza eskatu zion, Jaime alkatea zenean, zegokion autoritateen aurrean Frantzia ezkutatuta zegoen bere alabaren alde egiteko, Espainiara itzuli eta hiltzear zegoen bere aitari agurra eman ahal izateko. Jaimek kontua kudeatu zuen eta egun on batean, bere autoa hartu, Frantziako muga zeharkatu eta neskatoa Elgoibarrera ekarri zuen aitari azken besarkada emateko (bere aita handik eta egun gutxietara hil zen). Egund gutxi batzuk pasa ostean, berriz ere Frantziara eraman zuen. Urteekin, neska gazte hori Elgoibarrera itzuli eta Jaime alkatea izan zen udaletxean zinegotzi izan zen, Herri Batasunaren ordezkartzan.

Jaimeren emaztea eta seme-alabek nolabait berreskuratu ziren, urte asko pasa eta gero bere heriotzaren tragediaz. Geroztik, aldi oro gogoratzen dute, samintasunez, euren barnean bizirik jarraitzen duen aitaren handitasuna.

JUAN DE DIOS DOVAL DE MATEO

(1943-1980)

JUAN DE DIOS DOVAL DE MATEO Madrilen jaio zen 1943ko irailaren hamabian. Notario baten semea izanik, txikitatik aitaren eskutik justizia maitatzen ikasi zuen eta hala adierazi nahi izan zuen bere doktore-tesiko eskaintzan, hil baino urte eskas bat lehenago argitaratu zena. Izan ere, Calixto Doval Jaunak bere bokazioa oinordetzan utzi zien seme-alaba eta biloba batzuei. Horrela, gure aitak zuzenbide ikasketak gauzatu zituen. Ikasten hasi baino lehenago, bere familia Donostiara lekualdatu zen, aitari han lan egiteko plaza eman ziotelako.

Unibertsitate aurreko ikasketak bukatu eta gero Valladolidera abiatu zen zuzenbidea ikasten hasteko. Han ezagutu zuen gure ama. Harreman hartatik, bi seme-alaba jaio ziren; bizitzak ez zien gehiagorako denborarik eman. Doktore-tesia egin eta zuzenbide prozesaleko irakasle bilakatzeko ikasketak hasteko momentua iritsi zen, eta jaio berria zen Donostiako Zuzenbide Fakultatea aukera logikoa zirudien, hiri horrekin loturak zituelako eta zentro berri hori Valladolideko Unibertsitatera atxikita zegoelako. Hortaz, familia berria hiri berrian finkatu zen, era zintzoan maitatu zuten hiria, zeinean seme-alabak jaio ginen, eta gure aitak inoiz utzi nahi izan ez zuena, bere bizitza mehatxupean egon arren, beranduegi izan zen arte.

Euskal Herriko Unibertsitateko zuzenbide fakultateak, berriki, omenaldia egin zion bere hilketaren 30. urteurrenean bere irakasle fundatzaileetako bat izan zenari. Horregatik ikasleek praktikak egiteko erabiltzen duten bisita gelak bere izena darama. Ezin izan zuen fisikoki berak jaso zuen justiziarekiko maitasun berbera ikasleei transmititzen jarraitu, baina modu honetan behintzat, nahi duten fakultateko ikasleek inspirazioa hartzen jarrai dezakete Doval irakaslearengandik.

Omenaldi labur baina hunkigarri horretan aurkitu genituen bere lankide ohi horiek eta hogeita hamar urte luze hauetan zehar bere presentzia faltan botatzen jarraitzen duten lagun eta senideek kontatu

dizkiguten istorio hunkigarrietatik, eta lau eta zazpi urteko umeek izan dezaketen oroitzapenetatik datoz, hain zuzen ere, Juan de Dios Doval nor zen irudikatu gura duten zertzeladak. Izan ere, bere hiltzaileek gure aita sakontasunez ezagutzeko aukera ere lapurtu ziguten. Gure ama izan zen, nolako gizona zen azaldu ziguna.

Zertzelada horietako lehenengoa, bokazio akademikoarekin zerikusia duena, irudikatu dugu dagoeneko. Bigarrenari dagokionez, bere ideia politikoei buruzkoa, unibertsitate garaitik datorkigu lehenengo zeinua, Gazte Monarkikoen kide izan zen garaia. Bertan, erantzukizuneko karguak izan zituen eta bere ikaskideen artean Don Juan de Borbónen figuraren bitartez demokrazia berriztatzeke kausara atxikitzeke kide berriak bilatzen saiatu zen.

Ez dakigu, ordea, zer nolako bilakaera izan zuen bere pentsamenduak historia modernoan hain erabakigarriak izan ziren urte horietan eta nola hasi zen bere militantzia Euskadiko UCDn; berriro ere, xehetasunak lapurtu dizkigute. Baina badakigu, eta hala aitortu digute garaiko kide batzuek, alderdiak gure aita esku zabalik hartu zuela bere jatorri akademikoa zela eta. Zalantzarik gabe, solasean aritzeko gai liluragarria izan ahalko litzateke, baina inoiz ezin izan genuen berarekin horrelako elkarrizketarik izan. Piezak bildu ditugu, jakina, pieza ugari eta sakabanatuak, bere anai-arrebetatik eta anai bat bezala maitatu zuten horietatik. Baina pieza sakabanatuak dira, eta ez beste ezer.

Hirugarren zertzeladak, eta garrantzitsuena, gure aita zer nolako gizona zen irudikatzen du. Eta hori argi dugu gure amari esker, berari buruzko elkarrizketarik inoiz ez saihesteko erabakia hartu baitzuen. Amak beti jakin izan zuen hogeita hamalau urterekin bere senarrari lurra eman behar izanak sortu zion nahigabe ikaragarria bere barnerako gordetzen. Berarentzako garrantzitsuagoa izan zen bere semeei euren gaztaroaren oparirik ederrena ematea: normaltasuna.

Ez zuen argazkirik ezkutatu, ezta garai latz horietako egunkari-zatirik ere, nahiz eta azken hauek umeek adin aproposa izan arte itxaron behar izan zuten. Eta datuen argitasunarekin, ideiak ere garbi: ez zion inoiz batzuek egin zutenaren erru guztia hiri oso bateri leporatu nahi izan, baina beti izan

zuen argi gizarte gaixo horretan, jende onaren alboan, borreroak, txalo-jotzaileak, beharrezko laguntzaileak eta euren kontzientziak anestesiatzeko beste lekura begiratzen zuten koldarrak ere zeudela. Ez da inoiz zikoizkeria eta printzipio propioen traiziorako lekurik egon behar; ezta gaitzespenaren itzala printzipio horiek mantentzea erabaki zuen aita batentzako, nahiz eta horien ondorioz bizitza galdu, eta guk bera galdu.

Izan ere, Juan de Dios Doval uste oso argietako gizona zen, bere ideien gainetik pasatu nahi zuen edonor burua makurtzen behartzeko nahikoa jeinu txarra zuena. Horri esker bere inguru ezberdinetako jendearen esker ona irabazi zuen; etxean istorio ugari gogoratzen ditugu bere izaera gogor baina adeitsuaz. Hasiera batean, jendeak hildakoen idealizazio klasikoa egiten zuela pentsa genezake, baina bere heriotzatik hiru hamarkada eta gero bere lagun eta ezagun batzuen begi bustiak eta ahots hautsiak ikustean, ez dago aitaren giza-mailaren froga hoberik.

Txiste zalea; ordu txikitan kotxea hartu eta koinatuari bere herria erakusteko ehunka kilometro egiteko adorearekin, edo bere neskalaguna ikustera joateko, gure ama, ikasten ari zenean... Santiago de Compostelan; aurpegi serioz isekarik potoloena botatzeko kapaza, txantxetan zegoela ulertzen zuen arte solaskidea joko kanpo utziz; animoak berotzen zizkion horri aurre egiteko prest; eta ezagupen mordoa bildu zuena, bere jakintasuna ingurukoekin konpartitzea gustatzen zitzaiona; zoragarria zen berarekin elkarrizketa bat izatea edo txokoren batetik paseoren bat ematea. Espainola izan eta Espainia den guztia (espainola izan nahi ez duen jendea dauden lekuak ere) maitatzea esan nahi zuenaren kontzientzia sendoarekin. Horregatik oraindik gaur ez dugu ulertzen bere burua espainola deitu eta Euskadi edo Katalunia gorroto duen hori.

Guk berataz ditugun oroitzapen zuzenei dagokionez, aita normala irudikatzen dute, aita bat izan behar den modukoa: maitekorra, bihurrikeria jatorretan konplizea, baina behar zenean irmoa... urruneko oroimenean geratzen diren bere aurpegiaren irudi iheskorretan guri begiratzeara ateratzen zitzaion irribarrea nabarmentzen da; orain gure seme-alabak bidean daudela, irribarre horrek bere atzean ezkutatzen duen benetako zoriontasuna ulertzen hasten gara.

Juanchi Doval ezagutzeko beste ezinbesteko zertzelada batek bere lurra, Ezcaray, zenbat maitatzen zuen erakusten digu. Madrilen jaio arren, hori zen bere amaren herria, literalki, hainbat mendez geroztik; asko disfrutatu zuen Ezcarayko udaldietan ume, gazte, aita eta, batez ere, herritar bat gehiago bezala; eta hain zen sendoa lurralde horrekin zeukan lotura, bere hilketatik egun batzuk baino lehen, Jaime Arreseren ia ezkutuko hiletan, UCDko bizirauleek elkarri begiratu eta hurrengoa nor izango ote zen galdetzen zutenean, gure aitak hurrengoa eskatu zuela: “ni banaiz, Ezcarayn lur eman nazatela”.

Gauza biak bete ziren. Hara eramane zuten betirako atsedene har zezan; eta egunkarietako argazkiek garaiko pertsonalitate politikoak bere atautea eramane erakutsi arren, kontatu digutenez, horietako baten bati behintzat, herriko jendeari lekua uztera “animatu” zioten, ministroa izatea ez zelako “Juanchi eramateko arrazoi nahikoa”.

Beraie maitasunarekin, gure aita bizirik mantentzen jakin izan dute. Duela hilabete gutxi batzuk entzundako esaldi honek ezin hobeto deskribatzen du nolakoa zen: “ni taberna horretan sartuko banintz eta zure aita batean barrako aulki batean jesarrita ikusiko banu, niretzat munduko gauzarik normalena izango litzateke”. Ezcarayko jende askok maitatu izan gaitu, gu ezagutu barik, Juanchiren seme-alabak izateagatik soilik. Eta zor hori ordaintzeko modu bakarra zorionezko lurralde horrekiko maitasuna mantendu eta herriaz ahalik eta gehien gozatzea da.

Denborarekin, euren bizitza nola poliki-poliki amesgaiztoa bilakatzen joan zen ulertu dugu, kanporatu edo zuzenean hil nahi zaituen hiri batean. Hasieran, gure aitak ezin zuen ulertu inork hil nahi izatea. Bere izena mehatxatuen artean agertzen hasi zenean, agian bahitu egin ahal zutela susmatu zuen, bere aitaren posizioa zela eta. Baina bere alderdi-kideak sistematikoki hiltzen hasi zirenean, errealitatea agerian jarri zen. Eskolta bat eramateko aukera eskaini zioten, baina ezetz esan zuen, zerbait gertatzekotan ez lukeelako inoren bizitzaren zama jasango. Gainera, fakultatean zegoen giroarekin, eskolta batekin agertzea beste metxaren bat gehiago piztu zezakeela uste izan zuen.

Planteatutako beste aukera arma lizentzia eskatu eta pistola bat

eramatea izan zen. Ostera, txantxa batekin ukatu zuen bere oinarriekin hain bateraezina zen hori: “poltsikoan pistola bat eramaten badut, ipurdia zulatuko dut”. Baina egoera ez zen txantxetakoa. Eta gure gurasoek edozein izkinan hiltzaileraren bat ager zitekeela bazekiten. Oraindik gogoratzen dugu nola ikaratu ziren egun batean garajea sartu eta gasolina usaina zegoela nabaritu zutenean. Jakin izan dugu egun horietan gure aitak klaseen arteko etenaldia baliatzen zuela gure eskolako hesira etortzeko, gu jakin barik, agian ikusiko gintuen azken aldia izango zelako. Kontatu digute baita ere, alderdiari etxeko atea aldatzea eskatu ziela, ate blindatu bat jartzeko, etxean sartzeko pasahitzak erabili behar zituztela, eta azkenean alde egitea erabaki zuela, egoera jasanezina zelako, baina ez zuen denborarik izan.

1980ko urriaren 31eko goizean, ostirala, berandu zihoan lanera. Horregatik ezin izan gintuen berarekin eskolara eraman. Horrek hilketa ikusteaz libratu gintuen, eta nork daki zer gehiagoz. Izan ere, bere autotik metro gutxi batzuetara, bi etarra zeuden bere zain. Bederatziak hamar gutxitan, kotxera igo zenean, alde batetik tirokatu zuten. Bularrera zihoan bala batek bere boligrafoan jo zuen, baina besteak hil egin zuen. Hiltzaileek barrezka alde egin zutela diote. Oraindik bietako batek ere ez du krimen horregatik ordaindu. Ezta datuak eman zizkieten horiek ere. Non bizi zen zekiten, bere autoa zein zen, etxetik zein ordutan irteten zen. Zurekin kartetan jokatzeko duenak ematen dituen datu mota horiek; horren ziurtasuna badaukagu. Batzuetan bere iloba jasotzen zuen haurtzaindegian ere, bere mugimenduez informatzen zuen langileren bat zegoen.

Gure amak tiroak entzun eta berehala gertatutakoa igarri zuen. Auzokide batekin utzi gintuen eta bere senarra ikustera jaitsi zen, kotxe barruan hiltzear zegoena. Ondoren hileta iritsi zen, zuzenbide fakultatean bertan egin zena, non Antonio Beristainek elizkizunak egin zituen, hurrengo hau esanez: “amorrua, lotsa eta gorrotoa sentitzen dugu, baina ez dugu gorrotorik onartzen”; Ezcarayn lurra emateko momentua heldu zen, eta gero, Donostiako manifestaldia, ETaren aurka historian egindako lehenengo manifestaldi jendetsua. Erradikalek harrika ibilaldia moztu zuten, baina manifestatzaileek erantzun zieten eta era koldarrean korrika alde egin zuten. 1997an Ermuko izpiritua piztu zenean, askok parekotasunak ikusi zituzten berun urte sakonetan egindako martxa honekin.

Gu guzti horren kanpo geratu ginen; gutaz arduratu zirenek ezer arrarorik gertatzen ez zenaren ilusioan mantendu gintuzten. Auzokidearen alaba batek soilik esan zigun “zuen aita ospitalean dagoela esan didate”. Noski, ez genion sinetsi, tontoa zela eta oker zegoela pentsatu genuen. Baina gure ama itzuli zenean, baretasunez bildu gintuen eta aita hil zela esan zigun; horrela hasi zen gure bizitza berria. Gogorrena ametsak ziren, zeinetan norbaitek atea jo, ireki eta aita agertzen zen dena txantxa bat izan zela esanez.

Orduan esnatu eta txantxa makabroa errealitatearena zela ulertzen genuen. Ametsak laster pasatu ziren, baina atsekabeak hor jarraitzen du.

Gure amak hiri horretatik alde egitea erabaki zuen, bere gurasoekin bizitzera joateko; nire lehengusuetako batzuek, Donostian hazi zirenak, eskolan noizean behin “ETAk txerriak baino ez ditu hiltzen” bezalako komentarioak jasan behar izan zituztela kontutan izanik, eskerrak besterik ezin dizkiogu eman. Duela urte gutxi batzuk Donostiako Udalak hiriaren domina biktimei ematea erabaki zuenean, bere ingurunean gezurra esatea aukeratu zuen jendearen kasuak ezagutu genituen, lasai bizi ahal izateko euren senidea istripu batean hil zela esan zutenak. Berriro ere eskerrak eman genizkion gure amari, ordurako hilik zegoena, horretaz libratu izanagatik; baina, noski, horrek ez du esan nahi txanponaren beste aurpegia jasan behar ez duzunik, Donostiakoa zarela esatean jendeak “etarra” deitzearena, edo kotxean SS matrikula eramateagatik irain edo kolperen bat jasotzearena.

Gertaera horiek oso noizean behin jazo ziren, baina samintasun handiz gogoratzen ditugu, gure amak eman zigun normaltasun hori apurtzen zutelako. Hala eta guztiz ere, haurtzaro zoriontsua izan genuen. Aita ez zen bertan egon, eta ez dakigu egoera bakoitzean zer egin ote izango zuen, baina bere balioak eta ereduak gurekin egon ziren beti. Eta batez ere, gure ama egon zen, eta bere familia, gaur egun garena eraiki zutenak. Normal eta zoriontsuak izan gintezen erakutsi zuen indarra eta bere bizitzaz naturaltasunez gozatzeko gaitasuna, gertatukoa inoiz ezkutatu barik, ikaragarria izan zen. Patuak txantxa makabro berri bat egin zigun eta hori guztiaz ohartzeko nahiko helduak izan baino lehen gure ama hil egin zen, guk bere ahalegina behar bezala eskertu aurretik.

Esan dugu dagoeneko, baina legezkoa da azpimarratzea: urte hauetan zehar Juanchi Doval gogoratzean hunkitzen den jende ugari ezagutu dugu, eta horrek indarberritu eta bihotzean ukitu gaitu, bere erdipurdiko borroeroen porrota baieztatuz. Gaur are harroago gaude gizon on baten seme-alabak izateaz. Ezin izan zuten bere memoria ezabatu ezta berak defendatu zuena azpiratu: UCDko garai hartako eslogan batek esaten zuenez, “guztientzako Euskadi baten alde”. Legezko kausa, justizia maite zuen gizonarentzako.

VICENTE ZORITA ALONSO

(1920-1980)

VICENTE ezagutu nuen gure lurraldera etorri zenean, Bizkaiko Labe Garaietan administratzaile bezala lan egiteko. Ponferradan jaio zen, León, 1920an eta bertan igaro zuen bere lehen gaztaroa, bere gurasoek Madrilera mugitzea erabaki zuten arte, euren sei seme-alabek irakaskuntza ertaina eta unibertsitate ikasketak egiteko aukera izan zezaten. Bere aita gizon oso ekintzailea izan zen eta Espainiako hiriburuan *Canteras del Jarama* izeneko enpresa sortu zuen, hirurehun pertsoneri lana emanez. Anai oso ospetsu bat izan zuen, Zorita Komandantea, soinu-langa pasatu zuen Espainiako armadako lehen pilotua izan zena, 1954an. Zoritxarrez, istripu batean hil zen handik gutxira, 1956an, gidatzen zuen hegazkina ginbalet-eran erori eta gero. Ez nuen berarekin denbora gehiegirik pasatzeko aukerarik izan, baina oraindik gogoratzen dut bere irribarrearen zintzotasuna.

1977 urtearen hasieran politikan esku hartzen hasi zen, *Democracia Social* alderdiaren eskutik, beranduago Aliantza Popularrean integratuko zena. Alderdiaren parte izateko deia jaso zuenean Vicentek baietz esan zuen, nazionalismo erradikalaren jarrera eta ETaren jarduera onartezina iruditzen zitzaiolako. Horrela, bere alderdi kide eta ezkerraldeko enpresa ezberdinetako hainbat sindikatu-ordezkarirekin batera era antolatuan borrokatzen hasi ziren Euskadiko zentro-eskuin ez nazionalistaren posizioa lortzeko.

Ez da harritzekoa norbaitek Vicente politikan parte hartzeko deitzea, aparteko gizona baitzen. Bere lanean oso izen ona zuen, izaera xaloa, adiskidetsua eta dibertigarria izateaz gain, arazoen aurrean oso eraginkorra zelako. Beti borrokatu zuen bere lankideen baldintzak hobetzeko, eta, egia esan, bide horretan lan oso ona egin zuen.

Laster Aliantza Popularreko probintziako Zuzendaritza-batzordeko kide bilakatu zen, baina uste dut hain eraginkorra eta ona izan ez balitz ere, era berean deitu izango zutela, garai hartan jakina baita zentro-eskuina

afiliaturik gabeko erakundea zela, jendea logikoa denez terrorismoa eta bazterketa sozialaren beldur zelako. 1980eko martxoan Aliantza Popularraren Euskal Parlamenturako kandidaturan hirugarren izendatu zuten, baina ez zen aukeratua izan.

Urte oso gogorrak izan ziren. Nire familia eta ni Santurtzikoak gara eta aurretik inoiz ez genuen horrelako ezer bizi; terroristen lagunen kontzientzia beltzei gorroto ikaragarria zerien. Amonak haurtxoa zenetik euskara irakatsi zion nire amari, baina, antza, euskal kulturaren identitate-zeinu garrantzitsu horrek ere ez gintuen nazionalisten jazarpenetik libratu. Haiek bezala pentsatu edo euren jomuga bihurtzen zinen.

Vicente ez zen inoiz ikaratu ezta beldurraren ondorioz isilik geratu. Zentzu honetan oso adoretsua izan zen eta bere lagunen artean askatasun osoz ematen zuen bere iritzia, batez ere polizia edo militarren bat hiltzen zutenean (orduan ETAk maiz egiten zuena), hilketen injustiziak izugarri haserretzen zuelako, batez ere uniformeak zaramaten funtzionario gizajoena. Giroa are gehiago okertu zenean, Vicenterik hitz egiterako orduan kontuz ibiltzeko eskatu nion, mesedez zuhurra izan zedin. Bere anai batek ere, Madrilen bizi zena, pertsonalki kontuz ibiltzeko esan zion, urte bat lehenago Modesto Carriegas eta Luis Uriarte hil bazituzten, berari ere, Aliantza Popularreko kide izanik, zerbait gerta zekiokelako. Beti "ez naiz beldur" erantzun zuen. Ziur zegoen inoren helburu ez zela.

1980ko azaroaren hamalauan, ostirala, hil zuten. Asteburua hasten zenez, hainbeste gustatzen zitzaizkion afari horietako bat egin nion, berak goraipatzen zituen horietakoak. Izan ere, inoiz ez zitzaion loreak botatzea kostatu eta familiak aitari ematen zion maitasun eta atentzio hori hitz politekin eskertzea. Plater nagusia arkume buru errea zen eta arratsalde hartan ahaleginak jarri nituen janari hori prestatzeko. Bera errondan zegoen. Beti bezala, lansaioa bukatu eta gero lagunekin abiatu zen Capitán Mendizábal kaletik ardoak edatera. Badakit bederatzietatik eta minutu gutxi batzuetara etxerako bidean zegoela, gure alaba txikiak, Chari, faltan botatzen zuenez harriduraz galdetu zidalako: "non dago aita?, zergatik hartzen du horrenbeste denbora etxera igotzeko portalea irekitzen ikusi badut?" Han hartu zuten, portaleko atea irekitzera zihoanean.

Ahalegin ikaragarriak egin genituen zantzu txarrenetan ere hilko zutela ez pentsatzeko. Zalantza jasanezina egiten hasten zenean, poliziak bere gorpua zuloz josita Serantes mendiaren maldan aurkitu zutela esan zigun, mozal moduan ahoan Espainiako banderatzat bat zuelarik. Berria jasotzean gure mundua erabat goibeldu zen eta tarte luze batez gure bizitza ere itzali egin zen; gure existentziaren arrazoia, gure ahalegin guztia, bertan behera.

Orain ez dut gogoratzen hileta, gure Santurtziko parrokian egin zena, hurrengo egunean izan zen ala ez. Jende asko bertaratu zen. Nazioaren Lehendakaria gogoratzen dut, Manuel Fraga, Alderdiko agintari ugariarekin batera, hiletako mezan eta hilerrian lurra emateko unean, eta baita elizatik hilkutxa ateratzen zutenean nola poliziak borra-kolpe gorrotoz beteta “hil itzazue, hil itzazue” etengabe oihukatzen zuten nazionalista erradikalak dispersatu behar izan zituen. Ez dakit nola eraiki nahi duten modu horretan euren ameskeria.

Azaroaren 14an hil zuten eta hila bukatu baino lehen nire herritik alde egin behar izan genuen, belaunaldi askoz nire familia jaio, bizi eta hil zen lurretik. Han ezin genuen arnasarik hartu. Telefonoz mehatxuak jasotzen hasi ginen. Guardia Zibilak nire semea, Enrique, bere etxetik atera behar izan zuen emaztea eta urte bateko ume batekin, bere segurtasun fisikoa bermatu ezin zutela esanez eta Euskaditik alde egiteko eskatuz. Ni eta nire alabei, Elena, María del Carmen eta Chari, nirekin bizi zirenak, berdina esan ziguten eta betirako alde egin genuen.

Urteak beranduago noizbehinka itzuli ginen, egun gutxi batzuetarako, familiako batzarren batera. Eta momentu horietan ere, telefono deiak jasotzen genituen gaueko hiru edo lauretan hurrengo esanez: “badakigu hemen zaudetela... eta alde egiten ez baduzue berriz ere zuen bila joango gara...”. Abenduaren hamabian Manuel Fragak harrera egin zidan, nire familiarekin batera, Alderdiaren bulegoan, Madrilen.

Gogoratzen dut, bere hilketaren urteurrena zenez, familia osoa joan ginela hilerrian eskaintza egitera eta Alderdi popularrak Portugaleteko hotel batean 2005eko azaroaren hamaseian egindako omenaldira.

Ez gara bueltatu, ezta pentsatu ere, jendearen isiltasun lotsatian, hildakoen aurrean azalduriko koldarkeria iraingarrian, ez dudalako nirea eta

nire arbasoen lurra antzematen, garai batean distiratsua izan zen leinu hori, non Vicente ezagutu nuen eta berarekin egunero hitz egiten jarraitzen dudana lekua.

ALBERTO LÓPEZ JAUREGUIZAR

(1939-1982)

Inoiz ez genuen pentsatu ere egin gure familia hirurogeita hamarreko hamarkada bukaeran Euskadi suntsitzen ari zen terrorismoaren jomuga izan ahal zenik. Alberto pertsona anonimoa izan zen beti, gure familia eta bere laneko mugetatik kanpo. Horregatik ez genuen bere hilketa inondik inora ulertu.

ALBERTO Bilbon jaio zen 1939ko uztailaren lauan, oso batuta zegoen familia xume batean. Bere gurasoak, jatorriz, Valladolid eta Bakiokoak (Bizkaia) ziren. Ikasketa ertainak Indautxuko Jesuitak eta Saniago Apóstol ikastetxeetan (biak Bilbon kokatuta) egin eta gero, hamazortzi urterekin *Tabacalera Española* enpresan lanean hasi zen, 1958an, ilusioz gainezka. Denborarekin, merkataritza-irakasle titulua ere atera zuen.

Esan daiteke betidanik ezagutzen ginela eta, ezkongai-harreman liluragarria izan ondoren, 1964an ezkontzea erabaki genuen. Ordurako bukatuta nuen Filosofia eta Letretako lizentzia, baina familia izan nuenez ezin izan nuen eremu horretan lan egin. Handik gutxira umeak iritsi ziren eta beraiekin, zoriontasuna. Gure bizitza ez zitekeen bikainagoa izan.

Albertok bere karrera profesionala *Tabacalera*-n egin zuen. Bertan hogeita bost urtez lan egin ondoren, bere ahaleginak saria jaso zuen eta bere lanaren gailurrera heldu zen. Hain zuzen ere, Ahaldun izendatu zuten, bigarren lanposturik garrantzitsuena, Delegatuaren atzetik. Hilketaren ondoren, bere lankideek aho batez goraipatu zuten bere figura. Agerian geratu zen hogeita bost urtez bere ondoan lan egin zuten horiek lanean zuzena zen gizon xume baten heriotzaz sentitzen zuten nahigabea.

Pasa den mendeko laurogeiko hamarkadaren hasieran, Euskadin pertsona bakoitzaren ideologia hesi bat bezalakoa zen, trintxera hutsak, bakoitzaren bizitzaren kontuan hartuzkoak errespetatu eta balioetsi beharreko pertsona bakoitzaren funtsezko osagai bihurtzen uzten ez zutenak. Hala ere, Alberto bere lankideen laguna izan zen beti eta bere

laguntza eskaini zien behar izan zutenean. Ahaldun bilakatu zenean, *Tabacalera*-ko langileen alde lan egiten jarraitu zuen, batez ere hitzarmen kolektiboak defendatu eta hobetzeko xedez, nahiz eta bere lanpostuak aldarrikapen horiekin zerikusi zuzena ez zuen. Baina Alberto hor egon zen, erne eta tinko, besteen baldintzak hobetzen saiatuz.

Etxean beti zioen heziketa lehenengo gauza zela eta zeregin horretan jarri genituen gure ahalegin guztiak. Bere lankideek ere bere errespetu eta maitasun ikaragarriaz hitz egin zidaten, niretzako dagoeneko ezagunak ziren balioak. Aparteko gizona izan zen.

Albertoren bizitza gogorra izan zen aldi oro. Urte askoz arratsaldetan *Tabacalera*-tik irten eta *Los Millones de Las Arenas* loteriaren administrazioaren kontabilitateaz arduratu zen eta baita lagun batekin ireki zuen zerga-kontuei buruzko gestoria kudeatzeaz ere. Zentzu honetan aitortu behar da administratu zituen kontabilitateetan inoiz ez zuela pezeta zentimo batean ere huts egin, bere lanean ezin hobea baitzen eta horrez gain, oso zintzoa. Berarekin tratua izan zuen orok Alberto maitatu zuen, bere prestutasuna eta izaera apala, ona eta bihozbera zela eta. Hamasei urtetan inoiz ez zuen hamabost egun baino luzeagoko oporrik hartu.

Albertoren giza-idealak beti islatu ziren bakea, ordena eta askatasunaren ideian, gizonak elkarrekin eta harmonian elkarbizitzeko beharrezkoak diren goreneko balioak. Laburbilduz, Espainiaren esentzian sinesten zuen, bere historia komun eta tradizioen parte izan nahi zuten guztien familia bezala. Inoiz ez zuen edonori publikoki bere munduari buruzko posizioa azaltzeko arazorik izan, ezta zergatik nazionalismoek politika eta historia txikiagotzen zutela uste zuen esplikatzeko.

Ni hirurogeita hamarreko hamarkada bukaeran hasi nintzen Aliantza Popularrean esku hartzen, kontsulta demokratiko ezberdinak prestatzen. 1977ko hauteskunde orokorretan posta bidezko botoarekin zerikusia zuen guztian lagundu nuen, eta hauteskunde mahai bakoitzean ahaldun eta kontu-hartzaileak koordinatzen, hau da, alderdien hauteskunde makineria bizirik mantentzen duen guzti horretan.

Gure gurasoetatik tolerantzia ikasi genuen, fanatiko ugarik ez bezala euren ideien morroi bihurtzen ez zituen aukera politikoa hautatu zutenak.

Etxean Espainiako historia maitatzen ikasi genuen, espainol sentitzen, baina inolako gorespen berezirik gabe, beste arrazoi batzuen artean muturreko jokabideak ez zetozelako bat gure gurasoen adibidearekin.

Zoritxarrez, Albertori atentatu baten lekuko izatea tokatu zitzaion, Garellanoko kuarteletik oso gertu, Bilbon. Aurretik adierazi dudanez ez zen nazionalista ezta oso espainolista ere (orain esan ohi dutenez), hiritar arrunta zen, ideia oso liberalekin. Garellanoko atentatua ikusi eta gero, etxera zurbil bueltatu zen, itxuragabetuta, eta bizi berri zuen eszenagatik guztiz nahigabetuta; orduan, zerbait egin behar genuela esan zidan, jendea horrela hiltzea ez zelako bidezkoa, aita, ama eta izugarri sufritzen zuten familiak zituzten pertsona inozenteak... Momentu horretatik terrorismoaren biktimen hiletetan agertzen hasi zen, inor ez baitzen familiekin azken agur publiko horretara joaten.

Gogoratzen dut Algortako geltokiko taberna batean ere norbait hil zutela, ezagutzen ez genuen mutil bat, eta nor zen ez jakin arren bere hiletara joan ginen. Elizan ez zegoen inor, bere ama, senideren bat eta gu izan ezik. Eszena horrek zeharo samindu gintuen, guztiz itxuragabetuta geratu ginen. Ezin genuen ulertu jendea bere semea nola hiltzen zuten ikusi zuen familia baten nahigabea ikustean ez hunkitzea.

Handik gutxira beste hileta batera joan ginen, Ondarroan. Ailegatzeko zailtasunen bat izan genuen, Guardia Zibilak hiletan jende gehiegirik ez biltzeko agindua zuenez, bidea itxi zigulako. Mutil hori José María Arrizabalaga deitzen zen eta Ondarroan hil zuten, 1978ko abenduaren hogeita zazpian, bere herriko erakunde karlistaren burua izateagatik. Momentu horretan Alberto esku hartzen hasi zen, hilketen aurrean bere ordena eta bake ideiak defendatu nahi zituelako.

Hausnarketa egin eta gero, Aliantza Popularreko kide bilakatzea erabaki zuen, bere ideietatik gertuen zegoen alderdia zelako, nahiz eta, berak esaten zuenez, liberal zaharra izan. Garellanoko kuarteleko hileta horietaz oroitzen naiz, gelako isiltasun ikaragarriaz ia ezkutuan hildakoei lurra emateko unean; Ondarroako hiletaz, zeinean errepidea itxi ziguten eta milaka buelta eman behar izan genituen, elizara lau ordu beranduago iritsiz... Gure familia hiletaz hileta zihoan, isiltasunean, guk bai, hilketa horiek

izugarri sentitzen genituela erakusteko.

Polizia bat hiltzen zuten bakoitzean, Albertok Amesti kalean Espainiako bandera jartzen zuen lazo beltz batekin, polizia horrek guraso batzuk zituela esaten zuelako. Eta uste dut Amesti kalean lazo beltzarekin jarritako Espainiako bandera hori izan zela, Aliantza Popularrean afiliatzea baino, bere hilketaren zergatia. Beranduago bai, arazoak izan zituen sindikatuarekin, batez ere ideologia nazionalistako ELA-STVrekin, behin baino gehiagotan deitu ziotelako euren sindikatu-kideek *Tabacalera*-ko kamioiak deskargatzea eskatzeko. Albertok beti erantzun zien bere langileak zituen bitartean, gainera ondo lan egiten zutenak, berak ez zuela inor kaleratuko. Eta jarrera hori ere izan liteke, nik uste, bizitza kostatu zitzaion beste arrazoien bat, baina batez ere Amesti kalean Espainiako bandera lazo beltzarekin jartzea. Edozein hilketaren berri izatean, leku horretara lore sorta bat eramaten zuen.

Eta zorigaiztoko 1982ko uztailaren hamaseia iritzi zen, Karmengo Birjinaren jaia. Goiz horretan, beti bezala, Alberto Bilbora abiatu zen, kotxez, bere lanaldia betetzeko. Ez dakigu zer gertatu ahal izan zitzaion goizeko bederatzieta Torrene kalean egoteko, Algortako Correos eraikinaren aurrean, gure etxetik ehun bat metrotara. Norbait auto atzetik hurbildu zitzaion, isilean, animaliek beti egiten duten bezala, eta hainbat aldiz tiro egin zion. Alberto behingoan hil zuen.

Guk bost minutu beranduago izan genuen atentatuaren berri, auzokide batek portaleko interfonotik abisatu gintuenean. Seme nagusiekin hurbildu nintzen, nire senarra eta nire semeen aitari azken agurra emateko, eta hori egin genuen, atsekabearen etsipenarekin baina dagoeneko gure bihotzean sentitzen genuen bere maitasun etengabearen indarrarekin, gorpua altxatu zuten arte.

Bere heriotzaren ondoren, nahigabearekin batera erabateko bakardadea heldu zen, gure lagun onen maitasuna eta konpainiari esker biguntzen zena. Hauek kenduta, inork ez zigun kalean doluminik adierazi, ez genuen kontsolamenduzko telefono deirik jaso, ezerez bizi ginen gizartetik. Ordea, Espainiako marinako graduazio altuko militar batek beti eskertuko dudana detailea izan zuen: bere uniformearekin oinez etorri zen arratsaldeko

hiru eta erdietan Amesti kalea zeharkatuz doluminak adierazteko. Ekintza hori, uniformearekin agertzea, gizon adoretzu eta ona zela erakutsi zuen, arriskutsua zela jakin arren bere bizitza jokoan jarri zuelako.

Oraindik ez dugu ulertzen nola jasan ahal izan genuen hainbesteko mina. Nire lehenengo ardura gure seme-alabek beraien aita hil zuten horienganako gorrotorik ez sentitzea izan zen. Horregatik, Euskaditik alde egitea erabaki nuen Guiomar (15 urte), Lorena (14 urte), Verónica (13 urte) eta Rodrigo txikiarekin (8 urte). Alacanten ezarri ginen, Albertok noizbait bere azken egunak igarotzea gustatuko zitzaiola esan zuen txokoan.

Geroztik denok berarekin bizi gara, elkarrekin, bere oroimenean eta bere irribarre etengabea gogoratzen. Denboraldi batez Valentziako Erkidegoaren Terrorismoaren Biktimen Erakundearen Ordezkaria izan naiz.

JOSÉ LARRAÑAGA ARENAS

(1927-1984)

Gure aita **JOSÉ** Azkoitian (Gipuzkoa) jaio zen 1927ko martxoaren zazpian. Bere familia belaunaldiz belaunaldi (arbasorik urrutikoenetik hasita) gure aitak munduaren lehenengo argi izpia ikusi zuen herri horretan bizi izan zen.

Bere aita epaitegi idazkaria zen, zeregin hau egiteko ikasketa nagusirik behar ez zen garaian. Gure aitak ere oinarrizko heziketaz aparte ez zuen ikasketarik egin eta denboraldi luze batez bere aitarengatik oinordetzan harturiko lanbidean aritu zen bitarteko moduan. Jakina denez, urte horietan Azkoitian euskara erabiltzen zen eguneroko bizitzan, beraz idazkariak ondo menperatu behar zuen hizkuntza hori, auzokideen aurrean eraginkorra izateko. Bestalde, gutxi, oso gutxi ordaintzen zuten okupazio horretan. Gauzak horrela uler daiteke Azkoitira epaitegian lan egiteko inor etorri nahi ez izatea; bidezko soldatarik gabe eta bertako hizkuntza ezagutu barik ezer gutxi egin zezakeen zeregin horretan kanpotar batek.

Gure aitak zortzi anai-arreba izan zituen, familia ugaria benetan. Urte horietan zailtasun ekonomikoak zituzten familiak seme-alabak erlijio eskolaren batean eskolatzen zituzten barneko ikasle gisa, erakundeek ematen zieten bekaren bat baliatuz. Horregatik egin zituen gure aitak batxilergoko oinarrizko ikasketak Salesiarren Kataluniako eskola batean. Lehengo aldiz etxetik atera zenean ia ez zekien gaztelaniaz hitz egiten; hilabete gutxi batzuk pasa ondoren, hizkuntza gainerako mutilak bezala menperatzen zuen.

Zoritxarrez ez dakigu ezer gehiago bere lehenengo gaztaroari buruz. Izan ere, arreta orainean jarri zuen beti, esan daiteke ez zuela inoiz iraganera eta bere oroitzapenetara jotzen gurekin berba egiteko orduan. Urteak beranduago hamabi urterekin Kataluniatik bueltatu zela jakin genuen, lan egiten hasteko, ordutik aurrera bere egunerokotasuna izango zena. Azkoitiko gainerako mutil gazteak bezala, gure aitak bere lan bizitzari *Alberdi*

y *Compañía* lantegian ekin zion, espartin eta zapatilen fabrikazioan espezializatua. Pasa den mendeko berrogeiko hamarkadan fabrika nahiko mekanizatuta zegoen arren, eskulan intentsiboa behar zuten. Gure gurasoek elkar ezagutzen zuten; are gehiago, gure amaren nebak gure aitaren koadrilakoak ziren, eta beraz lagunak ziren, antzeko zaletasunekin.

1945ean, hamalau urte egin eta lan munduan sartzeko gutxieneko adina bete bezain laster, gure ama espartin fabrikan lan egiteko kontratatu zuten, Azkoitiko neska gehienak bezala. Herriko neska gazteek adin hori lehenbailehen bete gura zuten, helduen munduan sartu, ardurak izaten hasi eta etxera diru pixka bat eraman ahal izateko, gerraosteko urterik latzenetan hain tenkatuta zegoen familiako ekonomia arintzeko xedez.

Gure ama 1961ean ezkondu zen, hogeita zortzi urte zituela. Momentu horretan fabrikan lan egiteari utzi zion, buru eta bihotz bere etxe berriko lanetan jarduteko. Nahiz eta gure gurasoek elkarrekin espartin fabrikan lan egin eta egunero elkar ikusi, askoz aurretik ezagutzen zirela esan daiteke, izan ere Azkoitian umeak ia-ia ibiltzen hasten zirenetik ezagutzen ziren elkar. Gainera, gure aita amaren neben lagun ona zen, beraz oso txikitatik hasi zen euren arteko harremana. Amak esaten zuenez, José izatekoa zen, alaia, berritsua, maitekorra eta besteekin beti atsegina, batez ere bere seme-alabekin. Esan daiteke intentsitate ikaragarriaz bizitzea gustatzen zitzaiola; horregatik saltsa guztietan zegoen, beti bere lagunaren artean sortzen zuten algararen erdian, edozein egoera alaituz, bizitza nolabaiteko itxaropenarekin begiratzeko beharrezkoa den izpiarekin bidea argituz.

Kirolzale amorratua izan zen eta beti defendatu zuen kirola. Anaitasuna futbol taldearen presidentea izan zen eta eskupilotaren alde agertu zen beti, bereziki Azkoitiko pilotarien alde eginez.

Gure gurasoak ezkondu zirenean, 1961ean, Azkoitiak hamar mila bat biztanle izango zituen. Handik gutxira, immigranteak era masiboan iritsi ziren herrira, hiri-egitura eraldatuz. Udaletxean zinegotzi bezala sartu eta gero, emigratu behar zuen jendea laguntzeko helburuarekin, udalbatzak *Forjas Azcoitia* enpresa Azkoitian ezartzeko borrokatu zuen, kleroaren iritziaren aurka, immigranteak ailegatzean herriarengan zuen eragina galtzeko beldur zena. Era berean, Udaletxeak dantza lotua ezarri zuen plazan

eta erantzun moduan, kleroak Udaletxeari Elizako eserlekuak kendu zizkion.

Berrientzako lekua behar zen eta zenbait auzo eraiki ziren. Gure aita zentzu horretan asko lan egin zuen. Izan ere, hirurogeita hamarreko hamarkada hasieran bera eta beste hiru kidek Mekoleta Kooperatiba sortu zuten, etxeak eraikitzeko. Gure aitaren zeregina sozietate berri horretan administratiboa izan zen soilik, bereziki traketsa baitzen eskulanetarako; esan liteke bonbilla bat aldatzeko gai ere ez zela. Gure osaba Patxi zen obren burua...

Denbora pasa ahala, Mekoleta Kooperatibak Azkoitiko gasolindegia jabe zen sozietatearen %50a erosi zuen. Jabeek kalte ekonomikoren bat pairatu eta kosta ahala kosta kapitalizatu behar ziren. Horregatik saldu behar izan zuten sozietatearen erdia. Gure aitaren Kooperatibak negozio berriaz arduratzera pasatu zen eta, eginkizun berrian jarduteko trebetasuna hartu zutenean, Azpeitiko gasolindegia abian jarri zuten.

Kooperatibako jabeak ez ziren inoiz pertsona dirudunak izan eta hori argi utzi zuten, beste punturen artean, kooperatibaren figura juridikoa aukeratzeko orduan. Bizitza osoan zehar astoak bezala lan egin zuten eta inoiz ez zuten dirurik xahutu, batez ere bizitzeko dirurik besterik ez zutelako.

Bere lan bizitzaren bukaeran soilik izan zituen oporrak gure aita. Birritan udarako apartamendu bat alokatu genuen Laredon, beste bitan erregimen berdinean Harora abiatu ginen, eta Logroñora beste batean. Opor hilabete horretaz, gure aita hamabost egun besterik ez zituen hartzen gurekin atsedean hartzeko. Bere bigarren atentatuaren ondorioz ezintasun iraunkorra jaso eta erretiroa hartu zuenean soilik igaro zuen gurekin abuztuko hilabete osoa. Bi urtez, Benidormen bere alaitasunaz gozatzeko zortea izan genuen, hilketa baino lehen.

Egia esan, gure aita ez zituen ohiko oporrak gogoko. Ez zitzaion Azkoititik abuztuan alde egitea gustatzen, berak bere lagun koadrilarekin zegoenean hartzen zuelako benetan atsedena, batzuk eta besteekin hitz egiten. Berarentzat, txikiteoa lagunekin biltzeko aitzakia eta modua zen.

Ez zen oso umezalea. Behin batean bere ama gutako bat haurkotxe batean paseatzen ikusi zuen, igande normal batean hamabietako

mezaren ondoren. Buf! Zelako errieta bota zion semea bere iloba bat paseatzen ikusteagatik. Garai horietan Azkoitian gizon batek ezin zituen eginkizun hain femeninoak burutu...

Pixka bat hazi ginenean asko disfrutatu genuen gure aitaz. Astean zehar ia ez genuen ikusten, beti arratsaldea bukatzean heltzen zelako, lana eta politika zela eta. Baina amak beti bere komentario eta galderak helarazten zizkigun: "... zure aita atzo galdetu zidan, nola zoaz irakasgai horrekin?, nola konpondu zenuen arrebarekin izandako arazo hori?, nola joan da beste kontu hori?...". Horrela jakiten genuen gure aita beti gure gainean zegoela eta distantziatik maitasunez gutaz arduratzen zela.

Igandero, oster, elkarrekin bazkaltzen genuen. Berarekin egotea itzela zen elkarrizketetan gutaz benetan arduratzen zela nabaritzen zelako, eta gure inguruan gertatzen zen guztia erabat interesatzen zitzaiola. Apartekoa zen. Igandeetan pastelak erosi ohi zituen postrean jateko eta, neba-arrebetako baten batek milikeriaren bat egiten bazuen karolina edo merengeren bat gustatzen ez zitzaiolako, aita esaten zion ezin zirela kapritxorik izan, eta are gutxiago hirurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran Espainian zegoen krisiarekin. Eta berriro krisia, krisiaren azalpenekin gora eta behera zegoen beti, egun batean ea krisia etxera noiz ailegatuko zen galdetu genion arte... Seme nagusienak ez zituen oraindik hamahiru urte bete... "Ah! Ez dakizuela zer den krisia?" erantzun zuen gure aita. Momentu hartatik maiz azaltzen zizkigun petrolio gordinaren krisia, moneta inflazio eta deflazioa, langabezia, ogasun publikoa eta gure adinarekin inolaz ere ulertzeko gai ez ginen beste hainbat gaien gako ekonomikoak. Baina ilusio handia egiten zigun nagusiak bagina bezala kontu horiek azaltzea.

Bigarren atentatua jasan eta talde terroristak bizirik jarraitu nahi bazuen Euskadi uzteko exijitu zionean, gure gurasoek Logroñon pisua bilatzen hasi ziren. Ezin hobeto gogoratzen gara eszena horretaz. Haiek aurretik joan ziren alokairuzko etxe berria antolatzeke. Gu bi egun beranduago joan ginen taxiz, deitu gintuztenean, gure aita inoiz ez baitzuen autorik izan, gidabaimenik ez zuelako.

Neskek hamahiru eta hamabost urte genituen eta gure nebak

hamazortzi. Negar eta negar egin genuen sentitzen genuen atsekabearengatik, gure bizitza hondatu zuten. Era berean, gure amak nora begiratu ere ez zekien, malkoz beteriko begiak ezkutatzeko. Gure aita, ordea, gizon irmo eta baikorra zen eta gure lehenengo arratsaldean guztiak Logroñotik paseatzea erabaki zuen, gure hiri berria ezagutzeko. Kalea zapaldu bezain laster Beasaingo lagun batekin topo egin zuen, besarkada handia eman zuten elkar, eta negar egiten hasi ziren. Logroñon ere aurkitzen zituen ezagunak!

Gure gurasoek bizitza beraien alabak baino askoz arinago birrantolatzea lortu zuen, eta hori ez da gutxi. Baina oso txarto pasatu genuen. Lehenengo lagunak aurkitzean hiri berrira moldatu ziren eta edozein igande arratsaldean beraiekin ateratzen ziren. Gu haiek baino arinago irteten ginen, honekin edo bestearekin geratu ginela esanez, baina gezurra zen. Ezkutaturik portaletik atera eta izkina hartzen zutela ikusi bezain laster, etxera itzultzen ginen igande arratsaldea bakarrik igarotzeko. Gero zinemara edo klaseko neska batzuekin merienda hartzera joan ginela esaten genien. Hori zen orduan euren min handia ez areagotzeko aurkitu genuen modua.

Gure aidak oso denbora laburrean egin zituen lagun berriak. Esan liteke ia Azkoitian baino gehiago disfrutatu zuela hemen, lehengo aldiz urte askotan, nahi zuena egin edo esateko aske sentitu zelako, bere bizitza hondatu nahi zutenen gorrotoz beteriko begirada gaitzesgarririk gabe. Aldi oro herriko lagunak deitzen zioten eta asteburuetan berarekin egoteko etortzen ziren, edozein aitzakiarekin gure aita bazkariren batera eramateko, omenaldiren batera, jairen batera. Asko maite izan zuten eta berak beti bihotz-bihotzez eskertu zuen hori.

Esaten genuenez, Logroñon zoriontsu izan zen bere jendeak ezeztatu zion bakea aurkitu zuelako. Bere familiak tentsio gehiagorik ez pairatzeko (hori beranduago ulertu genuen), Azkoitiko etxean telefonorik ez izatea erabaki zuen, noizbait guk telefonoa hartu eta maiztasunez jasotzen zituen mehatxuak entzungo ote genituen beldur. Batzuetan auzokoarenera joaten zen telefonoz deitzeko.

Ezer gutxi dakigu gure aitaren arbaso politikoei buruz, baina gure

amaren familian gure aita hori bat zela esaten zuten, gure herrian karlismoaren fakzio integristenari deitzeko modua, hain zuzen ere gure herriko ia guztiak karlistak ziren garaian.

Gauza bat zen gure aitaren familia nola definitzen zen eta beste bat berak nola pentsatzen zuen. Erlijioari dagokionez, katoliko sutsua zen, baina ez zen igandero mezara joaten, bere harremana Jaungoikoarekin, arau moralak ezartzen dituen erakundea bezala ulertutako erlijiotik haratago zihoala uste zuelako. Guk etxean heziketa zeharo liberala jaso genuen beti.

Gure aita beti maite izan zuen politika, Azkoitiko zinegotzi izanik bere auzokideen arazoak konpontzea lortzen zuelako. Estatu errepublikar batean kargua okupatu behar izan balu, berdin eman izango lioke, ez baitzen pertsona ideologizatua. Bagenekien bere doktrina Espainiako nazioan oinarritzen zela eta ezer gutxi gehiago. Funtsean espainiar arrunta zen eta ez zuen ulertzen zergatik batzuek euskalduna eta espainiarra aurrez aurre ipini nahi zuten, ez zitzaion buruan sartzen, benetan.

Jarrera hori ohikoa zen Azkoitian. Esate baterako, buruzagi nazionalista baten amak beti Espainiako bandera jartzen zuen etxeko hiru balkoietan herritik independentziaren aldeko manifestaldiren bat zegoen bakoitzean; ordurako bere semeak sotana alde batera utzi eta EAJ-PNVko politikaria zen. Gure aita ez zigun inoiz ideia politikorik transmititu, aurretik komentatu dugun espainolitateaz aparte. Ostera, bagenekien gure familia eskuin ez nazionalistan kokatzen zela, eta gutxi gehiago. Etxean amak agintzen zuen eta ez zigun politikaz hitz egiten uzten, arazoak besterik ekarriko ez zizkigula uste baitzuen, eta hala izan zen.

Gure aita bere ereduaren irmotasunean hezi gintuen beti. Zentzu horretan ezin hobe izan zen eta legatu moral benetan sakona eta zabala utzi zigun.

1984ko Gabonetan eta dagoeneko gure aita hilik zegoela, osaba batek kontatu zigun hirurogeita hamarreko hamarkada bukaeran nazionalista batek (inoiz ez zigun bere izena esan) batzar batera deitu zituela, eta bertan helarazi ziela kolpe oso gogorrak ematen hasiko zirela, eta politika utzi eta erditik kentzeko eskatu ziela. Nire osabak, zuhurtasunez, politika alde batera utzi zuen; aita, ordea, ez zuen hori egin eta hil zuten. Bistakoa da inoiz ez

zutela ezta pentsatu ere egin euren bizitzak arriskuan egon zitezkeenik.

Aurrerago esaten genuenez, etxean ez zen politikaz hitz egiten, amak horrela agintzen zuelako. Hala ere, gogoratzen dugu garai batean etxean *Guipúzcoa Unida* markaren pegatinak egon zirela, aitik esku hartzen zuen Aliantza Popularreko erakundea. Bere eginkizun nagusia Marcelino Orejari eserlekua lortzen laguntzea izan zen. Baina ez zuten lortu.

Gauzak are gehiago nahasi zirenean, ez genuen inoiz etxeko auzokideetan (ideia ezberdinak zituztenak) politikaren gorrotorik nabaritu. Jainkoari eskerrak esan dezakegu politikak ez zituela inoiz auzokoen eta gure arteko harreman pertsonalak zikindu eta, gure sinesbidea alde batera utzita, guztiak familia bat osatzen genuela. Ezin dugu azaldu, ordea, nola hain denbora laburrean, 1975an orokorrean karlista izatetik, Azkoitiko herria EAJ-PNVra bihurtu zen bi urte beranduago. Ez gara hori ulertzeko gai.

Erabat atsekabeturik Azkoititik alde egin genuen arazoak hasi baino lehen, edo hori pentsatu genuen orduan. Gu beste auzokideen berdin ginen, hau da, euskaldun zaharrak hizkuntza, erro, tradizio eta kulturari zegokionez. Horregatik guztiz ulergaitza egiten zitzaigun gure buruak egoera horretan murgildurik ikustea. Lehenengo aldiz Logroñora iritsi ginenean amarekin dendetara joan behar izaten ginen, eroasterako orduan inork ez zuelako ulertzen, ia gaztelaniaz mintzatzen ez zekien eta. Aita hil zutenean gure herrira joateari utzi genion eta harrezkeroztik, gure lurraldeko geografia zoragarria dela jakin arren, ez da gure lurra, ez da gehiago gure etxea.

1978ko apirilaren hamalauan gure aitik lehenengo atentatua pairatu zuen. Hamar eta erdiak aldera gasolindegitik itzultzen ari zela, leku arraro batean kotxe bat aparkatuta ikusi eta adoretzu ibiltzen jarraitu zuen ez baitzuen beste aukerarik. Beraien aurretik pasatzean, tiro egin zioten eta bala bik zangoa zeharkatu zioten, peronea hautsiz. Sendatu zenean, bi polizia jarri zizkioten eskolta moduan, baina ezin izan zion hilabete bat baino gehiagoz bizimodu horri eutsi eta eskolta errefusatu zuen. Horrela, bere eguneroko bizitza bere kabuz egiten jarraitu zuen, inoren babesik gabe. Lehenengo hilketa saiakera horren ondoren, gure aitik inoiz ez zuen familiaren tentsioa areagotu zezakeen ezer esaten, baina ama guztiaz ohartzen zen, batez ere aurpegia itxuragabetuta etxera berandu iristen

zenean.

Geroago biziko genuenaren zerbait sumatu zuela uste dugu, denborarekin hurrengo gertakaria gertatuko zenaren iragarle bezala interpretatu nuen eta. Guardia zibil baten aurkako atentatua gaizki atera ondoren, zeinean ume bat hil eta beste bat oso larri zaurituta geratu zen pakete bonba batek leher egin eta gero, lehenengo aldiz Azkoitian manifestaldi isila antolatu zuten herriko kaleetan zehar, bakea aldarrikatzeko. Gure aita tarte batez egon zen manifestaldian eta gero etxera joan zen. Zergatik alde egin zuen galdetu genionean, bera lehenengo lerroan denbora asko zeramala erantzun zigun eta orain beste batzuen txanda zela terrorismoaren kontra azaltzeko.

Egun batean etxera itzuli zen gu Azkoitiko mutil bati jaramon egiten genion bitartean, denboraldi batez *Círculo de Lectores*-eko musika eta liburuak saltzen bizimodua atera zuena. Saltzailea irtetean, kezkatuta, mutil horrek etxean zer egiten zuen galdetu zigun. Beranduago liburu saltzaile horrek gure aitaren aurka atentatuko zuen eta handik eta hilabete batera aita eta familiaren lagun min bat hilko zuen, Ramón Baglietto.

Bigarren atentatu hau bi urte geroago gertatu zen, 1980ko apirilaren hamahiruan. Hamaika eta erdiak inguruan etxera itzultzen zela, auto bat ikusi zuen atalondo aurrean aparkatuta. Barruan bi pertsona zeuden. Azkoitian eta ordu horretan kotxe barruan bi pertsona aurkitzea egoerarik arraroenetakoa zen. Horregatik, gure aita, ibilgailu ilun horretan ezkutatzen zirenak urduri jartzeko asmoz, kotxera hurbildu zen bere eskoltak atzetik zetozeela esateko. Erantzun moduan su egin zioten eta tiroetako bat bere sorbaldatik sartu eta bularrezurraren paretik atera zen.

Terroristek autoan ihes egin zuten gure aita oso larri zaurituta utziz. Auzokide bat laguntzen saiatu zen, baina gure aitak, atentatuaren efektua eta odola galdu izanagatik zorabiatuta, korrika ihes egin zuen Atraskua tabernan babesa hartzeko, laguntza eskaintzen ziona beste hiltzaile bat zela pentsatuz. Tabernatik anbulantzia eta polizia deitu zioten eta Donostiako ospitalera eraman zuten. Bertan hiru hilabete igaro zituen, oso larri.

Alta hartu zuenean ez zioten etxera itzultzen utzi eta Azkoititik urrun bizi behar izan zen, Donostiako Gobernu Zibilean, behin betiko konponbide

bat aurkitu arte. Denbora tarte horretan gure amarekin bizi izan zen, bi eskolten babesarekin. Gu osaba-izebekin bizitzen geratu ginen eta beraiekin maiz joaten ginen aita bisitatzera. Guztiz debekatuta genuen edonori gure gurasoak non zeuden esatea.

Bizitza berria egiteko Logroño aukeratu zutenean, polizia buruek hiri hori Euskaditik hurbilegi zegoela ohartarazi zioten eta ondorioz ez zela guztiz segurua. Baina han bizitzea erabaki zuten, hain zuzen ere, gure herritik ahalik eta hurbilen egoteko. Hain zen ona gure aita, berriro bere bila joango ez zirela pentsatu zuela; bera hiltzen saiatu baziren, ordezkutzen zuenagatik izan zela uste zuen, eta ez bere pertsonarekin grinatu zirelako.

Gure osaba-izeba batzuek alokairuzko hainbat etxe ikustera joan ziren eta azkenean, autobus geltokitik hurbil zegoen bat aukeratu zuten. Ekainaren hogeita bederatzian gure gurasoak atera ziren eta uztailaren batean gu, behi betiko erbesterako bidean. Lehen adierazten genuenez, Logroñon oso gustura egon ginen, astebururo gure etxea jendez betetzen zelako, aitaren lagunak etortzen zirenean. Hilketaren ondoren ez genuen bisita gehiagorik izan, eta ezin hobeto ulertzen dugu.

Azkoititik ezkutuan irten eta lau urte eta erdi beranduago, gure gurasoek Logroñon autobus bat hartu zuten Gabonak etxean pasatzeko asmoz, euren senide eta lagunez inguratuta. 1984ko abenduaren hogeita hamaikan Beasainen autobusetik jaitsi ziren, arratsaldeko zazpitan. Han gure osaba bat zegoen zain gure gurasoak etxera autoz eramateko. Afaldu aurretik, gure aita lagunekin atera zen txikito batzuk hartu eta elkarri iristear zegoen urteagatik zorionak ematera. Bederatzi eta erdiak aldera bere koadrilari agur esan eta Alameda tabernatik ateratzean bizkarretik hil zuten; garondoan hiru tiro jaso eta gero hil zen.

Ez genekien hainbeste sufritu ahal zenik, horrenbeste min sentitu ahal zenik. Bere gorpu kuttuna etxean beilatu zen, jende ona eta bere lagun guztien agurra jaso ahal izateko. Gorpua prestatzen ari ziren bitartean gure neba Fernandok deitu zuen, soldadutza egiten ari zen lekutik, ezer jakin barik, oraindik ez baitzitzaion berria iritsi. Urte berri ona opa nahi zigun...

Jainkoari eskerrak maitasun handia sentitu genuen eta etxetik jende ugari pasatu zen, Azkoitiko lagun onak, gure aitaren heriotzagatik min

zintzoa sentitzen zutenak. Bere heriotzarekin, gure bizitzen parte bat ere hil egin zen eta hutsune sakona nabaritu genuen, arnas gabe uzten ziguna, ia erantzuteko gaitasunik gabe, bizitzen jarraitzeko gogo barik.

Beranduago, askoz beranduago (urteak, agian) lasaitasuna eta bakea berriz aurkitu genuen, gure oroimenean bere irudi maitatua agertzen zen bakoitzean, bere bihotzetik atera ohi zen alaitasunaren edertasuna gogoratzean, gure ondotik inoiz joan ez den alaitasuna. Orain, aitarekin bizitako denborak gogoratzen ditugunean, barre egiten bukatzen dugu, zoriontsu eta pozik, gure artean beti egoteko zeukan ilusioa eta bere bizitzeko gogoak orainera ekartzearren.

GREGORIO ORDÓÑEZ FENOLLAR

(1958-1995)

Espainiako familia asko bezala, Gregorioren gurasoak Ameriketara joan behar izan ziren gerra kaintaren ostean bizibidea ateratzeko. Horrela, bere aita, Gregorio, jatorriz Cutandakoa (Teruel), hogeita lau urterekin Venezuelara iritsi zen eta bere ama, Consuelo Fenollar, Valentziako Terrateig herrikoa, 1952an. Halabeharrez, urrutitik aberriarekiko maitasuna eta tradizio propioak mantentzen zituen kolonia espainolean ezagutu ziren. Harreman labur baten ostean, euren bizitzak betirako elkartu zituzten Venezuelako hiriburuko katedralean. **GREGORIO** Caracasen jaio zen 1958ko uztailaren hogeita batean eta bere arreba Consuelo, urte bat eta erdi beranduago.

Venezuelako egoera ekonomikoak txarrera egiten zuela ikustean, 1966an Espainiara itzultzea erabaki zuten, ez zutelako hobetzeko aukerarik ikusten. Gregorioren senide batek lanpostu bat eskaini zien Donostiako garbitegi industrial batean, Ulia mendiaren hegaletan, eta bi aldiz pentsatu barik, Espainiako iparraldeko hiri ederrenetako batean ezarri ziren.

Mundu Berrian bezalaxe, Ordóñeztarrek bizimodu oso gogorra eta lehiatsua izaten jarraitu zuten Atlantikoko alde honetan; hainbat orduz aritzen ziren lan eta lan, asteko zazpi egunetan eta urteko hilabete guztietan. Bere gurasoen ereduari jarraituz Gregoriok bizitzan lan xumea eta konstantea egitea oso garrantzitsua zela ikasi zuen. Familiatik lan egiteko gaitasuna hartu zuen, zintzotasuna, eginkizunei aurre egiteko erantzukizuna eta bere ustez bidezkoak ziren xedeak lortzeko gogo irmoa.

1976an, lorpen akademikoz betetako batxilergo ikasketak bukatu eta gero, Iruñera abiatu zen bost urte irauten zuen Kazetaritzako Lizentzia egiteko. Unibertsitate urte horiek pubertarotik zeukan izaerari akabera eman zioten, hau da, izaera oldarkorra, alaia eta beti zerbitzua emateko prest. Konturatu barik, lider edo gizataldeak gida ohi dituztenen ezaugarri eta edukiak bereganatuz joan zen. Bere ikaskideek laster deskubritu zuten

erakartzeko ahalmen handia eta bere usteak defendatzeko argitasun eta bizkortasun itzela zuela.

Unibertsitateko garai hartan, jende asko zur eta lur geratzen zen, bere aurkariei kontra egiteko zuen erraztasun dialektikoa eta bere betebeharrak atzerapenik gabe burutzeko zorroztasuna ikustean. Gregoriok curriculum akademiko ezin hobearekin amaitu zuen bere lizentzia, itxura batean ahalegin handirik gabe lortu zuena. Ostera, bere ikasle egunetan hiru ordu ematen zituen egunero ikasteko. Kazetaritza beti maitatu zuen, bere gurasoak maitatu zituen moduan. Beti argi izan zuen berak kanpoan ikasteko bere familiak ahalegin ekonomiko handia egiten zuela eta gutxienez, hori eskertzeko, nota onak atera behar zituela.

Bost urte ondoren, Donostiara bueltatu zen eta lana aurkitu zuen José Eugenio Azpirozaren bitartez, Gregorioren osabaren lagun on bat, Arabako *Norte Expres* egunkariaren Gipuzkoako ordezkari izateko helburuarekin jaio zena, baina egoera ekonomiko kaxkarrari eutsi ez ziona. Izan ere, petrolioaren prezioaren igoerak eragindako krisi ekonomiko luzea Espainiako lan eta ekonomia-egituraren barne-arazoei gehitu zitzaion, langile hoberenen lanpostuak ere arriskuan jarritz. Hortaz, Gregorioren kazetaritza-esperientzia *Norte Expres*-eko ordezkari izateko ez zen hilabete batera ere iritsi (lau langileetatik ailegatzen azkena izan zen). Hala ere lehenengo lanpostu horri esker jende berria ezagutu zuen, Donostia eta Iruñeko lagun-zirkulutik kanpo. Hain zuzen ere, erredakzio-bulegoan Carmen Zulueta ezagutu zuen, kazetaria eta aldi berean, Aliantza Popularreko Gipuzkoako presidenteordea.

Carmen miretsirik gelditu zen kazetari gaztearekin eta berehala alderdiko arduradunekin harremanetan jarri zen; inoiz ez zuen horrelako lan egiteko gaitasuna eta argi eta publikoki nahi zuena esateko (betiere bakea eta askatasunaren defentsan) adore berezi hori zeukan inor ezagutu, are gutxiago xantaia eta estortsio terroristapean bizi zen euskal gizartean, laurogeiko hamarkadan kalte ikaragarria eragiten ari zena gizartearen isiltasun zantarraren aurrean.

Askatasuna deuseztatuz etikari egiten ari zioten mespretxuak horrenbeste asaldu egiten zuenez, hogeita hiru urterekin, Gregoriok

Aliantza Popularreko Belaunaldi Berrietan sartzea onartu zuen. Handik eta hilabete gutxietara, eta beterano batzuek mesfidantza izan arren, alderdiaren probintziako Idazkaritza Teknikoaren arduradun izendatu zuten. Kargu berriarekin jasotzen hasi zen soldata laburrari esker, bizimodua ateratzen joan zen eta lanpostu bilaketa alde batera utzi ahal izan zuen. Momentu honetatik aurrera, Gregoriok buru eta bihotz ekin zion euskal probintzietan nazionalismo erradikalaren proiektu totalitarioak jazartzen zuen askatasuna eta espainolitatearen bandera lokatzetik ateratzeari. Abentura horretan murgildu zen momentutik, bere indar eta pasio osoa jarri zuen proiektuan eta hilabete gutxitan bere kideen laguntzarekin Belaunaldi Berrietarako afiliazio gehiago lortu zituen, gainontzeko Alderdirako lortu zituztenak baino.

Laurogeiko hamarkadaren hasieran, Aliantza Popularra lur jota zegoela esan daiteke. Aurretik esan denez, terrorismoak ehiza-barrutia aurkitu zuen zentro-eskuinaren posizioan eta ideologia horren alde lan egiten zuten kideak hiltzen joan ziren. Horrez gain, nazionalismo demokratikoa deituriko horrek aukera espainola eta aldi berean euskaldunarekin ere anker jokatzeko zuen, nazionalismotik kanpo, euren ametsetik at, ezer ez zegoela erakutsi nahian. Ordóñez orduan galtzailea zen alderdi batean sartu zen, egitura funtzionalik ez zuena. Horregatik hunkigarria iruditzen zaigu oraindik, hogeita hamar urte beranduago, hainbeste maitatu zuen lurraren etorkizuna bermatzeko jarri zituen gogo bihurriak eta eskuzabaltasun eta altruismo maila ikaragarria.

1982ko kongresuan Donostiako alkate izateko hautagai aukeratu zuten, Eugenio Damboriena eta gutxi batzuk gehiagoren sostenguekin, ez baitzegoen kide asko gehiegirik. Horrela hasi zen Gipuzkoako zentro-eskuin ez nazionalistaren berpizkundea, izua gainditzeko asmo irmoa zuen belaunaldi gazte horrek sorturiko ilusioari esker.

1983ko maiatzaren udal hauteskundetan, Aliantza Popularrak hiru eserleku lortu zituen, hilabete batzuk aurrerago pentsaezina zen garaipena. Hori dela eta, Gregorio zinegotzi bilakatu zen, hirigintza-araubide arloan, Ramón Labayen alkatearekin. Beranduago hiriaren irudiaz arduratuko zen, turismo arloan, Albistur alkate nazionalistak gutxiengoan zuzenduriko gobernuan. Turismo zinegotzi gisa egindako lan bikainari esker, ezaguna egin

zen gizatalde askoren artean, adibidez, sozietate gastronomikoak, bere politika egiteko modua, besteenganako zerbitzu gisa, erakusteko ikusgarritasuna lortuz.

Biztanleen artean bere izena aditzera eman zuen jarduera hori nazionalismoa eta Aliantza Popularrak hiria gobernatzeko egindako hitzarmenetik jaio zen. Handik gutxira, Gregoriori hirigintza zinegotzigoaren ardura eman zioten, aurreko zinegotziak hondatutako hirigintza-araubidea mantentzeko xedearekin, oraingo honetan Odón Elorza alkate zela.

Denbora gutxian hiria garatzeko hain garrantzitsua zen zinegotzigoaren gidaritza hartu zuen, ikaragarritzko lana eginez, lan zintzoa, bizkorra eta besteen zerbitzuan. Postu honetatik, era sakonean ezagutu zituen hiriaren arazoak eta donostiarrak laster ohartu ziren bere balioaz, interes orokorren alde (eta ez soilik parte baten onurarako) lan egiten zuen gizona zela ulertuz.

Etap horretan ezagutu zutenek adierazten dutenez, audientzia eskatu zioten milaka biztanleei harrera egiteko prest zegoen beti, horien doktrina ideologikoa alde batera utziz, beste arrazoiren artean inoiz ez zielako euren ideiei buruzko galderarik egin. Hirigintza zinegotzi bezala eta bere gainontzeko jarduera politikoan, zintzotasun osoz jokatu zuen, bereziki miresgarria zen balioa, beste erkidegoetan egiten ari zituzten lursail publiko eta pribatuen lege kanpoko birkalifikatzeak kontutan izanik.

Gregoriok ez zuen inoiz dirua irabazteko xedearekin jardun. Berearekin eskuzabala izan zen, eta besteen ondarearekin arduratsua. Zentzu honetan, hauteskunde kanpainen ondorioz beste tokietara joan behar zenean, maila ertaineko jatetxe eta hotelak aukeratzen zituen, Alderdiaren altxortegian zama gehiegirik ez jartzeko. Eta ez zituen beti fakturak pasatzen; askotan bere patrikatik ordaindu zituen bere konpetentziakoak ez ziren kontuak. Bereziki arduratsua izan zen beti ondasun materialak erabiltzerako orduan, diruak pertsonak usteldu ditzakeela bazekielako.

Etap honetan zehar, zinegotzigoaren garapenean murgilduta egon zen, Aliantza Popularreko zuzendaritzan bere figuraren inguruan zalantzak zituztelako. Ordóñezek Madrilekin talka egin zuen udal hauteskundetarako hautagaitzei Donostia kanpotik inposatzen zizkieten irizpideekin bat ez

zeturrelako. Nazionalismoaren aurka erresistentziaren etika era zorrotzean aplikatzeko zalantzarik izan ez bazuen, are gutxiago kostatu zitzaion beste alorretan bere usteei tinko eustea.

Balioen filosofia bati loturiko nortasun oparoari esker, oso denbora laburrean lagun talde bat sortzea lortu zuen. Determinazio handia izan arren, ez zuen inoiz besteekiko adeitasuna galdu, guztiekin zintzoa eta maitekorra zelako. Donostiako Udaletxean igaro zituen hiru legealdiak beste alderdiekin koalizioan izan ziren, hau da, etengabea zegoen hiriaren onurarako paktuak egiteko prest.

Zentzu honetan ez zen inolako ideologiaren mirabe; ondo zekien alderdi demokratikoek ongia eta sen onaren alde lan egiten zutela eta errealitate honen babesean, paktuak egin zituen beharrezkoa izan zenean. Auzokideen zerbitzuan lan egiten hartu zuen arrakasta ikusita, gainerako taldeek Gregorioren presentzia onartu zuten, gobernantzaren mesedean. Oso goiz hasten zen lanean eta zazpietarako udalbatzako bulegoan egon ohi zen jadanik, bere jardunaldi luzea prestatzen. Bere irmotasun eta sen onari esker, Benta Berriko lursailak desblokeatzea lortu zuen, bertan biztanleek behar zituzten ehunka etxebizitza eraikitzeko.

Zinegotzigo ezberdinetan egindako lan hori, Donostiako Udaletxeko hiru legealdietan zehar, Ordóñezen eginkizun ezezagunetako bat izan daiteke, seguru asko, bere ezaugarriak ezagunena eta mirespen gehiena sortu zuena askatasuna publikoki defendatzeko erakutsitako adorea izan zelako. Erabat haserretzen zen terroristek inolako zentzurik gabe garondoan tiroak emanez eta bonbak jarriz sortzen zuten izuarekin eta aukera zuen bakoitzean, Euskadin gertatzen ari zena salatzen zuen.

Denbora laburrean, bere uste berberak zituztenen lider bilakatu zen, eta beti beste aldera begiratzen zuen (eta batzuetan hiltzaileak babestu ere) nazionalismoaren jarrera nazkagarria hedabideetan salatzen animatzen hasi zirentzako erreferentzia. Gai honi dagokionez, Gregorio beti aho betean zabaldu zuen bere iritzia; argi eta garbi aldarrikatu zituen bere adierazpenak arazoa ezin hobeto azaltzen zuen semantika erabiliz, baina aldi berean ordura arte Espainiako politikan arrunta ez zena. Izuak sortzen zuen nazka ikaragarriari aurre egiteko, dialektikaren artilleria erabiltzea besterik ez

zegoen. Eta Gregorio arma horietan bikain hornituta zegoen.

Espainiako gizarteak Miguel Ángel Blancoren alde zaurretik iragarritako hilketaren aurrean izandako erreakzioa ezberdina izango litzateke, intentsitate gutxiagokoa, aurreko urteetan Gregorio eta bere taldeak ezarriak urratu ez balituzte nazionalismoaren eduki baztergarria eta bortizkeriaren diktadura salatzen.

Urte gutxietan, zentro-eskuin ez nazionalistaren aukera bazterketatik Gipuzkoako politikan garrantzitsu izatera pasatu zen Gregorioren lidergoari esker. Ez zen lan erraza izan. 1986an Eusko Jaurlaritzan galdutako eserlekua, lau urte beranduago berreskuratu zuten, botoen ehuneko sei eta erdiarekin. Ordóñez boto horien ordezkaria izan zen Gasteizen. Urte bat beranduago, 1991ean, botoek nabarmenki gora egin zuten udal hauteskundetan, ehuneko hamabitik hamaseira pasatuz, bost zinegotzigo sostengatuz. 1994ko Europa mailako hauteskundetan, Alderdi Popularrak botoen ehuneko hogeita bira lortu zuen, Donostian garaipena lortuz.

Euren estilo berria eta kudeaketa arrakastatsuekin, gazte politikari talde horrek José María Aznar ere liluratu zuen, Donostiara behin eta berriz bertaratu zena, Gregorioren taldearen gaitasunak goraiatzeko. Horrela, agerian geratzen zen lanean guztiz sartuta zeuden pertsonak, lagunkoia, egunero hautesleekin harremanetan zeudenak eta iturri publiko eta pribatuak erabiltzerako orduan soilak zirenak politikarako eta Alderdi Popularrerako onak zirela. Hori izan zen euren kudeaketa arrakastatsuen gakoa.

Baliteke, eta oso posiblea zen gainera, 1995eko udal hauteskundeetan Gregorio Ordóñezek bere hiriko alkatetza lortu izatea, bere xede politikorik handiena. Hori gertatu izango balitz seguruenik Donostiak aro garaikidean inoiz izandako alkaterik onena bihurtu izango litzateke. Eta hori iragarri zuen 1995eko urtarrilaren 19an José María Aznarrek, bera Espainiako gobernuko hurrengo presidentea izango zela, eta Gregorio, Donostiako alkatea, aitortu zionean. Lau egun beranduago, Udaletxeko taldearekin batera bazkaltzen zuen bitartean hil zuten.

Gregoriok ezin izan zuen Donostiako udal hauteskundeetako garaipena ikusi, horren alde horrenbeste borrokatu ondoren, baina, hurrengo

hauteskundeetan, urte bereko ekainean egin zirenak, Alderdi Popularrak Jaime Mayor Orejak zuzenduriko hautagaitza aurkeztu zuen, eta baita irabazi ere. Hainbestek onartu nahi izan ez zuten hori gertatu zen, ETAk saihestu nahi izan zuena. Alderdi Popularrak Donostiako udal hauteskundeetan garaile atera zen, Gregorioren kide eta laguntzaile gertuenak barne hartzen zituen hautagai-zerrenda batekin.

Gregoriok utzitako ondarea indarrean jarraitu zuen Donostiako Udaletxean, lehenengo bere idazkaria izan zenaren indar eta ausardiarekin, María San Gil, eta ondoren, María José Usandizagaren kemena eta determinazioarekin, Gregorio Ordóñezen ondare politikoa bizirik mantendu zuen zinegotzi talde bikain batekin batera.

Gregorioren hilketak hutsune itzela utzi zuen bere familia eta lagunen ariman eta ez zegoen nahigabe hori leuntzeko gai zen bigungarririk. Baina, aldi berean kontzientzia bat piztu zuen, garrasika askatasunean bizitzea aldarrikatzen zuena. Politika arloan, bere hilketak isiltasuna hautsi zuen eta nazionalismo erradikalak zapaldu, gutxietsi, birrindu eta samintzen ari zen euskaldun horien koldarkeriarekin bukatu zuen. Bere hilketaren berria hirian zehar zabaldu eta ordu gutxietara, ikasleek Donostiako Zuzenbide fakultatean manifestaldi espontaneo eta zintzoa antolatu zuten, euren nahigabea adierazi eta izu nazkagarriaren amaiera aldarrikatzeko. Mobilizazio horretan Borja Sémpér izan zen, gaur egun Gipuzkoako Alderdi Popularreko presidentea dena eta Gregorioren eskuzabaltasuna eta ereduaren eraginez 1993an Alderdi Popularreko kide bilakatu zena. Orduan, Borja, beste gazte gipuzkoar asko bezala, adibidez Arantza Quiroga edo Ramón Gómez, 2011ko Donostiako hauteskundeetan Alderdi Popularraren hautagai-zerrendan lehenengoa izango dena, Gregorioren heriotzaren ondorioz egindako askatasun aldarrikapenean parte hartu zuten. Orain haiek dira Alderdi Popularra gidatzen dutenak eta Gregorioren ondare politikoa, mezua, argitasuna eta zintzotasun politikoa mantentzeko ardura garrantzitsua daukatenak, gaur egun are oihartzun handiagoa duena.

Geroztik, bere izena daraman Fundazioak bere ereduarekin Euskadiko politika jakintasunez kutsatzeaz arduratzen da, Gregorio Ordóñez bezalako gizonen jarduera eta ausardiaren beharra duen politika.

MIGUEL ÁNGEL BLANCO GARRIDO

(1968-1997)

Nire familia bizimodua ateratzeko emigratu behar izan zuen horietako bat izan zen. Hirurogeiko hamarkada erdian, nire gurasoek, Consuelo eta Miguel, euren jatorrizko Galizia utzi eta Ermuan ezarri ziren, Durangotik gertu dagoen herria, Bizkaia industrialean. Lagun eta senide askok nire gurasoen bide berdina jarraitu zuten. Horrela, ni jaio nintzen urtean, 1974, Ermuak hamaika mila bat biztanle zituen, zeinetatik lau mila Galiziakoak ziren. Nire familia nahiko ezaguna zen Ermuan eta auzokideek asko maite gintuzten. Igeltseroa zenez, nire aitak inguruko familia ugari ezagutu zituen eta beti izan zena erakutsi zuen, gizon bihozbera eta bere lanean oso trebea.

Nire neba **MIGUEL** Ermuan jaio zen 1968ko maiatzaren hamahiruan. Esan genezake ez zuela inoiz bere jaioterria utzi eta beti eskualde honetan geratu nahi izan zela. Ez zuen inoiz beste tokietara begiratu bere bizitza-proiektua garatzeko. Hemen sortu gura zuen bere familia, oso ermuarra sentitzen zelako.

Miguel Ángelek enpresa ikasketak egin zituen Sarrikon, Euskal Herriko Unibertsitatean. Bost urtez, egunero goiz jaiki eta Ermuan Bilboko konurbazioaren fakultate ezberdinetara abiatzen zen unibertsitateko autobusa hartzen zuen, beste hainbat ikaslerekin batera. Arratsaldean, sistema berdina erabili ohi zuen etxera bueltatzeko, edo, batzuetan, Pesa enpresaren autobus publikoa hartzen zuen. Noizean behin ere, ostegunenean batean, Bilboko lagunen baten etxean geratzen zen parranda egiteko, baina normalean etxera itzultzen zen. Karrerako azken urtean Bilboko akademia batean izena eman zuen eta arratsaldetan joaten zenez, azken edo azkenaurreko autobus publikoa hartzen zuen etxera bueltatzeko. Esan daiteke, bere ikasle bizitza ez zela eroso izan; beste gazte asko bezala, batetik bestera ibiltzera moldatu behar izan zen.

Nire neba oso ermuarra zen, izugarri maite zuen bere herria. Bere nahia Ermuan ezkontzea zen, hemen familia bat sortzea eta, noski, eskualde

honetan lan egin eta kale hauetan bere azken egunak igarotzea. Tokikoa zen, herrikoa, eta hortaz espazio irekiak, edo beste paisaia edo kulturak ezagutzea bertan ezartzeko ez zitzaion interesatzen. Berarentzat Eibar eta jakina, Bilbo, bisitan joateko lekuak besterik ez ziren. Hemen lana aurkitu zuenean, bere xedeak betetzen zihoazela ikusi zuen eta gero eta zoriontsuagoa zela.

Bere bizitza herriko kaleetan zehar igarotzen zela argi zuenez, bertako bizitza hobetzeko esku hartzea erabaki zuen. Horregatik sartu zen politikan, bere hiribildu maitatuaren egunerokotasuna hobetzeko. Nire nebaren hilketaren aurretik, Ermua ez zen oso ezaguna, hamazortzi mila biztanleko hiribildua izan arren. 1997ko uztaila baino lehen, nongoa nintzen azaldu behar nuenean, Bilbo ondoko herri batean bizi nintzela esaten amaitzen nuen. Miguel Ángelek, ordea, garunak urtzen zituen Ermua non kokatzen zen azaltzeko adibide eta egoera ezberdinak erabiliz. Beti maite izan zuen bere herria.

Enpresa-ikasketek izugarri liluratu zuten, edo, behintzat, hori izan zen niri iruditzen zitzaidana, behin eta berriro ekonomia aldizkariak irakurtzen ikusten nuenean. Bereziki, era oso sakonean aztertzen zituen finantza-munduko burtsako edukiak; noizean behin Ibex-ari buruzko komentarioren bat botatzen zuen edo albistegian entzuten genituen ekonomiari buruzko berriak ikertzen zituen. Uste dut gaztetatik hedabideek herrialdeko ekonomiari buruz esaten zuten guztia ulertzeko adimena zuela. Nire neba ekonomiaz hizketan entzuteak erabat hunkitzen zituen gure gurasoak, nahiz eta esaten zuena ez ulertu. Oso harro zeuden euren seme-alaben egoera hobetzeko egindako ahaleginak zentzua hartzen zutela ikustez.

Ermuko Udaletxean zinegotzi moduan jarduten hasi zenean, ez zen zuzenean aurrekontuez arduratu, hori Ana Crespo Talde Popularreko bozeramailearen lana zelako. Baina ziur nago herri kontuak ikuskatzen lan ederra egin izango lukeela.

Asko irakurtzen zuen. Bere logela gai ezberdinei buruzko liburuz gainezka zegoen beti, eta irensten zituela esan dezaket. Tolkienen Eraztunen Jaunaren trilogia ere askotan irakurri zuen, seguruenik, autorearen kosmogoniak eta deskribaturiko paisaiak erabat liluratu zutelako.

Oso izaera erakargarria zeukan; beti baikor agertzen zen, pozez gainezka eta begitarte alaia eta irribarretsua zuen. Niri asko gustatzen zitzaidan nire neba begiratzea, haserretuta egon arren aldi oro aurpegi distiratsua zuelako. Bere zaletasunetako bat bere lagunekin ateratzea zen, ondo pasatzea, baina argi zuen dibertsioa bere bizitzaren parte bat besterik ez zela. Esan nahi dut etorkizunera begiratzen zuela eta gaztea izan arren, aurreratzailea zela. Bere bahiketaren aurreko egunean auto bat erosteko seinalea eman zuen, denbora luzez aurreztu eta gero lortu zuena. Bizimodu soila zeramanez, bere errekurtsio propioak erabiltzen zituen, gurasoen menpe egon beharrean.

Oso zuhurra zen bere sendotasunean. Urte batez ohiko bizitza alde batera utzi eta bere musika taldearekin eskualdeko ezkontza eta berbena guztietan jotzeko izena eman zuten, ahalik eta diru gehien irabazi eta kontsumo maileguen menpe egon behar ez izateko, erabat ikaratzen zuen kontua. Miguel Ángel musika zale amorratua izan zen. Hiru lagunekin talde bat osatu zuen eta maiz gure osaba baten lokalean indarrak ahitu arte entseguak egiten geratzen ziren. Taldearen izena aldatuz joan zen helduagoak bilakatzen ziren bitartean. Adis Kideak bezala ekin zioten abenturari Cañaveral deiturarekin bukatzeko, tarte batez Poker izen gorabeheratsuarekin inspirazioa probatu ondoren.

Lan egiteak ez zuen kikildu eta ahalegina eta soiltasuna jarri zituen xahutzearen aurretik; oso heldua zen zentzu honetan. Bere belaunaldiak puntocom krisia pairatu zuen lehenengo lanpostua bilatzeko momentuan, krisi txikia baina krisia azken finean. Ondorioz, bera eta bere lagunak ahalegin mentalitatea garatu zuten.

Oso dibertigarria zen. Maiz zirikatzen ninduen bere txantxeekin eta irribarre maitekor horrekin, berba egiteko zuen erraztasuna baliatuz. Tira, egin ezazu irribarre!, esaten zidan noizean behin, jostari begitara begiratzen zidan bitartean. Eta urteak pasa ahala, eskaera hori praktikan jartzen joan naiz, bizitzaren atsekabeak edo bere faltaren nahigabeak nire aurpegian etsipena irudikatzen zutenean.

Era berean, familiarekin egotea zeharo maite zuen eta elkartzen ginenean oso gogotsu agertzen zen. Horregatik liluratzen zuen Galiziak. Uda

guztietan lehengusuak bisitatzera joaten ginen gure gurasoen herrietara, Cabanas edo Junqueiran, Ourenseko bi herrixka eder. Azken udetan bidaiak atzeratu behar izan zituen bere musika taldearen ekitaldien ondorioz, abuztuan zehar izan ohi zirenak.

Poliki poliki, nire neba politikan sartuz joan zen. Etxean Espainiaren egoerari buruz hitz egiten genuen, Euskadiri buruz, eta jakina, nazionalismo erradikal eta totalitarioaren hilketen aurreko erreakzio ezak talde-kontzientzian eragiten zituen ondorio latzei buruz. Ez zuen bere lurralde maitatua koldarrez beteta zegoela onartu nahi, demokratikoki ideia legitimoak defendatzen dituzten horiek hiltzen dituztenen aurka esku hartu beharrean beste alde batera begiratzen zutenak.

Ezin hobeto gogoratzen dut nire nebaren aurpegia Gregorio Ordóñez bere alderdi-kidearen hiletatik etxera itzultzean, goibel, baina aldi berean kementsu eta bere lurralde maitatuaren bakea eta askatasunaren alde lan egiteko indarrez beteta, momentu jakin horretan bere atzerako kontaketa hasten zela jakin barik.

Herri-mailan, lehen eskutik ezagutzen zituen Ermuaren gabeziak eta horiek hobetzeko benetako nahia zeukan. Gure eskola garaiko irakasle batek parte hartzera animatu zuen, Miguel Ángel ilusioz beteta eta ondo prestatuta ikusi baitzuen. Aski seguru irakasle hori izan zen bizitza politikoan esku hartzera animatu zuen lehenengo pertsona. Beranduago, Unibertsitate garaian, Iñaki Ortega ezagutu zuen, orduan Alderdi Popularreko Belaunaldi Berrietako presidentea zena, eta honek jauzia ematera bultzatu zuen. 1995eko udal-hauteskundetara zerrendako hirugarren postuan aurkeztu zen eta aulkia lortu zuen gure Ermuko Udaletxean.

Asko ikasi zuen garai hartan. Kanpainan zehar, Alderdi Popularraren autoa kontrolatzeaz arduratu zen, bozgorailuekin. Kaleetatik propaganda ere banatu zuen, horrek erabat kikiltzen zuen arren, oso lotsatia zelako, baina nobedade guzti horiek gainditzeko gai izan zen. Gure amak hautagaitzaren parte zela jakin zuenean, kezkatu egin zen, nazionalista erradikalek inposaturiko sumindura giroa oso arriskutsua izaten hasten zelako. Miguel Ángelek beti erantzuten zuen bera mutil ezezagun bat baino ez zela, oso ezaguna ez zen herri batean. Gainera, Ermua emigrante hiribildua zen eta

nazionalismo erradikalak han ez zuen indar gehiegirik.

Nik dakidala inoiz ez zuen mehatxurik jaso. Noiz edo noiz, terrorismoaren defendatzaileen batek irainen bat botatzen zion, espainol, faxista eta horrelako adjektiboak erabiliz, baina, pairatzen ari ginenaren alboan, gauza horiek txikikeriak ziruditen. Nire neba oso adoretua izan zen eta eraso horien aurrean, buruz gora erantzun zuen beti. Normalean, irainak taldean zeudenean botatzen zizkioten, abereak bailiran, hau da, jendailaren babesa sentitzen zutenean. Baina, baten batek kaletik bakarrik nire neba gurutzatzen zuenean, lotsaz beteta burua makurtzen zuen; orduan Miguel Ángelek aurpegira botatzen zion: “Zer, orain ez nauzu iraintzen, ausart hori?”.

Beti egon zen bere ideia eta Alderdiaz harro, agian horregatik ahozko erasoek ez zioten kalterik egiten. Alderdi Popularrak pairaturiko aurreko hilketa Goyorena izan zen, horregatik baliteke familia politikoak oraindik beldur kolektiboan esperientziarik ez izatea; Estatuaren segurtasun indarren familiak, ordea, bazuen esperientzia hori. Nire ama asko kezkatu zen azaltzen ari zen egoera ikusita eta arren eskatu zion autobabes-neurriei fidelki jarraitzeko, hau da, aldi oro bidez aldatzea, bat-batean atzera begiratzea jarraitu ahal zuena urduri jartzeko... Berak esaten zuen Ermutik kanpo inork ez zuela ezagutzen eta beraz, ezinezkoa zela hiltzaile talde horren jomuga izatea.

Bere ametsa egi bihurtu eta ekonomia arloan lan egiten hasi baino lehen, denboraldi batez aitari lagundu zion igeltsero bezala. Hunkigarria zen biak batera lanean ikustea; nire aita lan gogor eta latzenetan laguntza jasoz eta bere semea, aita edonon laguntzeaz harro.

Biok heziketa bikaina jaso genuen gure familiatik eta ez genuen gizonen edozein jarduera, nahiz eta oso xumea izan, zerbitzu grinarekin egiten bada zoragarria dela esaten duen araua ikasi behar izan. Askotan ikusi nituen elkarrekin etxera itzultzen, lanagatik nekatuta, baina garrantzitsuena, elkarrekin egoteagatik pozik, edozerengatik bromak egiten. Beti oroituko naiz nire nebaren irudi horretaz, aitarekin, irribarretsu, eta horrela transmitituko diet nire seme-alabei, bere jarreraren baitago gure familiaren ondarea.

Handik gutxira bere ekonomia ikasketekin bat zetorren lanpostua aurkitu zuen *Eman Consulting* kontabilitate eta zerga-aholkularitza sozietatean, Eibarren kokatutakoa, Ermutik kilometro gutxi batzuetara. Hau guztia 1996ko bukaera eta 1997ko erdia bitartean gertatu zen. Uztailan, espainol guztiak poztu ginen José Antonio Ortega Lara espetxeko funtzionarioa askatzen zutela ikustean, zulo nazkagarri batean hamazortzi hilabetez bahituta egon ondoren. Handik eta egun gutxi batzuetara, terroristek nire neba bahitu zuten eta ordu batzuk pasa eta gero buruan bi tiro emanaz hil egin zuten, 1997ko uztailaren hamabian. Ordu horietan zehar jazotakoa izugarri kontsolatu gintuen, jende on guztiaren maitasuna sentitu genuen eta.

Liburu ugari idatzi dira egun zirrargarri horien inguruan, zeinetan lehenengo aldiz gizartea gure askatasuna defendatzeko, nire nebaren askatasuna, batasunean eta esku zuriekin altxatu zen.

Ordutik, negar eta nahigabe izugarriko hamalau urte igaro dira. Ezkontzeko eta bi seme-alaba zoragarri izateko dohaina izan zuen, osaba Miguel Ángelengatik maiz galdegiten didatenak. Nik, euren aingeru begiralea bezala irudikatzen diet bere figura, zaindu eta asko maitatzen dituen, eta zerutik irribarretsu begiratzen gaituena, isiltasunean, hain zoriontsu egin ninduten txantxak egiten dituen bitartean.

Agian egunen batean ulertuko dute, oso helduak direnean, euren osabaren heriotzaren atsekabea inoiz ez zela desagertu, baina, hala eta guztiz ere, atsekabe hori nolabait, askatasunaren zentzua erne zuen hazia izan zela, bizitza entregatzea merezi duen ondasun bakarra.

Nire nebak bizitzea baino ez zuen nahi, zoriontsua izan, eta ez zuen inoiz pentsatu beste batzuek hainbeste gorrotatu ahal zutenik. Gutxienez, lasai nago, nahiz eta urte gehiegi bizitzen utzi ez zioten, zoriontsua izan zelako bere familia eta lagunekin. Ez dut inoiz bere irri gozoa ahaztuko, bere begirada inozoa; labur esanda, ez dut inoiz ahaztuko beti nire neba izango dena, Miguel Ángel Blanco.

JOSÉ LUIS CASO CORTINES

(1933-1997)

JOSÉ LUIS Comillasen jaio zen, Kantabria, 1933ko apirilaren hamabostean, familia ugari batean. Bere aitona-amonak nekazariak izan ziren euren jatorrizko Montañako soro oparoetan eta ogibide horretan hezi zituzten euren seme-alabak. Bere bizitzaren une batean, ordea, José Luisen aitak nekazaritza alde batera uztea lortu zuen eta kamioi gidari bezala lan egiten hasi zen, Comillaseko Seminarioaren zerbitzuan. Urte horietan zehar, Carrión de Los Condesetik (Palentzia) marinela-herrira garaua eta beste hainbat elikagai garraiatzeaz arduratu zen. Urteak pasa ahala, berriro ere lanbidez aldatzea lortu zuen eta taxi batez arduratzera pasatu zen, betiere Comillasen.

Nire senarraren familia oso xumea izan zen diruaz disfrutatzerako orduan. José Luisek bere herriko moja-ikastetxe batean ikasten hasi zen eta, ondoren, Comillaseko Seminarioan apaiz ordenatzeko eskaera egin zuen. Dena den ez zen orden txikiak jasotzera ere iritsi, izan ere, bere familia mantenua ordaintzeko gai ez zenez, apaiz ikasketak bertan behera utzi behar izan zituen. Gertakari horrek ukitu zuen eta inoiz ez zuen ahaztu. Denborarekin, mezara joateari ere utzi zion, beti Jainkoa eta bere errukian sinetsi zuen arren. Inoiz ez zuen ulertu nola, dirua ez izateagatik, apaiz-ikasketekin jarraitzen utzi ez zioten. Berak zioenez, praktikantea baino gehiago OLT¹ zen; baina, zalantzarik gabe, beti izan zen gizon ona, eta hori da garrantzitsuena.

Erljio-ikasketak utzi behar izan zituenez, Madrilera joan zen, abenturan, Comillasen aurkitu ezin zuen lan horren bila. Ez dakit zenbat denbora igaro zuen Espainiako hiriburuan; beranduago esan zidan Madril bertatik derrigorrezko Soldadutza egitera abiatu zela, hain zuzen ere Irungo Bentak kuartelera, non Pirineo osoa zaintzen zuen Mendi Dibisioak jarduten zuen. Soldadutzan bi urte igaro zituela suposatzen dut, hori baitzen pasa den mendeko berrogeita hamarreko hamarkadan soldadutza iraun ohi zuena.

Eta horrela, soldaduz jantzita, ezagutu nuen. Berak kuarteletik ateratzeko baimena zuen eta nik, lan egiten nuen jostura tailerretik irteteko. Maitekontuetan hasi ginen, elkarrekin irteten, gure bizitzak elkartu genituen arte.

Ni ez naiz Irungoa jatorriz. Kordoban jaio nintzen eta bertako meskitan bataiatu ninduten. Nire aita guardia zibila zen. Ni jaio eta bi urtera, Galiziara mugitu ginen eta, hamaika urte geroago, Irunen finkatu ginen, nire aita lanean mailaz igo zutelako. Baina hemengoa sentitzen naiz, kale hauetan bizi izan naizelako kontzientzia dudanetik, bertan ezagutu nuelako José Luis eta hemen jaio zirelako nire seme-alabak. Nire aitak, nahiz eta Institutu armatuaren parte izan, inoiz ez zuen gu bere lana garatzen zuen kuarteletan bizitzea nahi izan. Ezkondu ginen arte, nire familiarekin Irungo erdialdean alokaturiko etxe batean bizi izan ginen.

Soldadutza bukatu eta gero, José Luisek Luzuriaga Ontziolan lana aurkitu zuen. Enpresan sartu zenean soldatzeari buruz zerbait zekiela uste dut; hala ere, langile sinple bat bezala hasi eta barne-ikastaroen bitartez mailaz igotzen joan zen, galdaragile titulua lortu zuen arte. Oso ona zen soldagailuarekin xaflak moztan, baina nahiko oharkabea ere; ez zen inoiz laneko segurtasun neurriez gehiegi arduratu, garai horietan ia existitzen ez zirenak. Bere langileburuek baimena eman zioten kasko eta larruzko eskularrurik ez erabiltzeko, berak esaten zuenez, molestetzen ziotelako. Zama astun batek behatz batzuk birrindu zizkion arte ez zen altzairuzko puntako botak erabiltzen hasi. Eta horrela, bere osasuna hondatzen joan zen, batez ere, bronkioak. Ez zuen lana aurkitzeko zailtasun berezirik izan. Garai hartan industria-jarduera itzela zegoen Irungo eskualdean eta Espainia osotik etorritako jendea elkartzen zen herri honetan. Gainera, gure auzokideetako askok, Frantzian lan egiten zuten. Oso laster, lagun talde zabala egin genuen eta haiekin geure gaztaroaz gozatzen joan ginen.

1960ko irailaren hogeita seian gure parrokiaren ezkondu ginen eta orduetik aurrera gure etxea izango zenaren lehenengo seinalea eman genuen. Nire aitak ez zidan ezkontzeko baimenik eman hogei urte bete arte eta oraindik gaur oso gazte esposatu nintzela uste dut, baina oso zoriontsua izan nintzen gure ezkontzaren lehenengo minututik. Pentsa liteke José Luis bere jatorrizko Comillasera itzuli nahi izango zuela bertan bere familia sortzeko, baina ez zen hala izan. Irunen zoriontsua izan zen beti eta eskualde hau

hemen jaiotakoek bezala maitatzera heldu zen. Agian, hain gazte izanik antzinako Santanderreko probintziaz alde egin behar izan zuenez, nolabaiteko deserrotze sentimendua piztu zen bere baitan, lurralde hau eta hemengo jendea maitatuz ezabatzen saiatu zena.

Eta horrela, gure bizitza egiten joan ginen; bi seme-alabak iritsi ziren, eskolak eta euren bizitza soziala. Gure lagun taldearekin izugarri gozatzen genuen; kale hauetatik paseatzen ginen eta udako asteburuetan txangoak egiten genituen edo, sinpleki, denok batera gozatzen genuen, zoriontsu. Asteazken zehar senarrak lanetik irten eta erronda egiteko biltzen ziren, txikitoa eskuan, munduko arazoak konpontzen zituzten bitartean. Asteburuak gurekin pasatzen zituzten, euren familiarekin. Gure bizitza oso xumea zen, guztiak oso pertsona xumeak ginelako.

Oso denbora gutxian José Luis lagun taldean nabarmendu zen bere izaera miresgarriaren ondorioz. Saltsa guztietan zegoen eta antolatzaile petoa zen, planak proposatzen zituen, nekatuta edo goibel zegoen hori animatzen zuena. Guztien lagun ona zela nabaritzen zen eta bere lagunaren arazoak bereak egiten zituela. Gure familiako ekonomiak utzi zionean, Irungo Kasinoaren kide egin zen eta bertan ezarri zuen bere adiskidetasunaren egoitza, han elkartzeko baitzen bere bizitzan ezagutu zituen askorekin.

Egun on batean, afaltzen genuen bitartean, oso urduri kontatu zidan egun batzuk aurrerago Manuel Fragak Espainiako eskuinaren proiektua azaltzeko batzar bat antolatu zuela, orain trantsizioa martxan zegoela, eta bera lagun on batekin joan eta biak Aliantza Popularreko kide egin zirela. Berri horrek nahiko larritu ninduen. Egia esan, ez nuen kezkatzeko arrazoirik, baina intuizioak edo agian Espainian gertatzen ari zenari buruzko ezjakintasunak oso sentimendu arraroa eragiten ninduen. Diktadura batetik atera berri ginen eta ez nuen uste José Luisen parte hartzea garrantzitsua izango zenik, are gutxiago Irun bezalako herri txiki batean.

Baina ez ninduen harritu José Luis proiektu politiko batean modu horretan sartu izanak. Beti izan zuen liderra izateko gaitasuna, jendea beste espazioetara, nahiz eta zailak izan, erakartzeko dohaina. Bere lanpostuan, Ontzian, denbora luzez sindikatuko bitartekaria izan zen eta ez zuen langile

eta bere kideen lan baldintzak hobetzeko liskar dialektikoetan sartzeko arazorik. Politika bezala, asko maite zuen eginkizun sindikal hura, inoiz inolako sindikaturen kide izan ez zen arren.

Eta bilera batera joateko ekintza inuzente horrekin, gure bizitzen aldaketa erradikala hasi zen. Ez dakit nondik atera zuten dirua, baina pisutxo bat alokatzea lortu zuten, Juan Arana kaleko laugarren zenbakian, gure etxetik hogeit bat metrotara, eta han hasi ziren lanean. Egoitza berrian ez zegoen ezer eta gauza guztiak besteok eraman behar genituen, baina poz-pozik egiten genuen. Zenbat aldiz hitz egin nuen Alvarito Moragarekin telefonoz, dena ondo atera zedin! Adeitasunez, Manuel Fragak gure egoitza inauguratu zuen eta, poliki-poliki, pisuan hitzaldiak ematen eta bisitak hartzen hasi ginen. Jose Luis, Herrera, eta egia esan guztien lanari esker, zetro-eskuinak Irunen presentzia izaten hasi zen eta baita boto asko ere, nahiz eta plaza horretan sozialistek beti emaitza hobeak izan zituzten.

Inoiz ez nion José Luisi hautagai izateko baimenik eman; terrorismoa pil-pilean zegoen eta ez nion inola ere hautatua izaten utzi. Bitartean, gure seme-alabek pozik bizi ziren, pubertaro garaian sartzen ari ziren eta ez zekiten euren aitaren jardueraz. Ordurako, José Luisek behin betiko lan-baja zuen jada, bere bronkioak erabat hondatuta baitzeuden ontzian sopletearekin lan egiteagatik, eta bere ahalegin guztiak Alderdi Popularrean zeuden. Eta ni enteratu barik, 1995ko toki-hauteskundetara aurkeztu zen, Errenteriako Udaletxetik. Jakin banekien, ahalegin izugarria egiten ari zirela Irunitik gertu hautagaitzaren bat ixteko, baina inoiz ez nuen pentsatu José Luis aurkeztuko zenik.

Errenterian ezaguna zen bertan Ontziolako lankide ohi asko bizi zirelako eta horiek estimu handitan zeukaten, bere lanean erakutsitako eraginkortasuna zela eta. Bi eserleku lortu zituzten, bat Concha Gironzarentzako eta bestea José Luisentzako, Taldeko Errenteriako bozeramaile bilakatu zena. Esan daiteke egunkarien bitartez izan nuela bere garaipenaren berri. Berarentzat erabateko garaipen politikoa izan zen, Alderdi Popularraren ezarpenerako ezinbestekoa zelako, eta pozarren ageri izan zen egun horietan.

Errenteriak lan itzela eman zion, baina ez zen inoiz kexatu, betekizunak

aurrera ateratzeko gaitasun handia zuen eta. Bitartean, arrantzan joateko zaletasunarekin jarraitu ahal izan zuen, kostaldeko haitzetatik praktikatzen zuena. Arazoak hasi zirenean, Levanter a joan gintezen eskatzen nion, bere kanaberekin, ni berarekin arrantzan joan eta elkarrekin pita itsasora botako gnuela esanez. Baina ez zen modurik egon; Irun asko maite zuen eta bere adiskideen beroa eta bere konpromiso politikoa dela eta tinko mantendu zen handik gutxira hasi zen tragediaren aurrean.

Miguel Ángel Blancoren hilketaren ondoren, 1997ko udan, hasi zen tortura. Terroristek egunero etxera deitzen zuten, Euskaditik alde egiten ez bagenuen heriotzarik beldurgarriena iragarritz. Telefonoz aldatzeko zorian egon nintzen, baina banekien terroristek lehenago edo beranduago telefono berria aurkituko zutela. Horrela egon ginen hil zuten arte.

Nire aburuz, José Luisen jazarpena nazionalismo erradikaleko zinegotzi batekin izandako gertakari baten ondoren hasi zen, bere udaletxeko kide bat, heriotza mehatxua egin ziona. José Luis Errenteriako jailetako pregoia atxilotu terrorista baten amak irakurtzearen aurka jarri zen udalbatzar batean, bere ustez, herrian epailearen erabakiaren ondorioz seme bat kartzelan zuen amak baino merezimendu zintzoagoak zituzten pertsonak zeudelako. Udaletxeko kide horrek, gorrotoz gainezka, listua bota ondoren pertsonalki esan zion udal eraikineko eskaileretan bere heriotza-epaia sinatu berri zuela.

Oraindik ez dut ulertzen nola eutsi genion hain denbora luzeaz klima horri. Agian izan zen uda horretan egin Euskaditik kanpora egin genituen bidai laburrei esker, aire garbi pixka bat hartzeko, ez dakit. Eta hala ere, pairatzen ari ginen guztiarekin, beti zoriontsu itzultzen zen eta lanean jarraitzeko indarberrituta, zaharren egoitza, musika kontserbatorioa eta bere eserlekuak eskumenak ematen zizkion beste kontuetan.

1997ko abenduaren bostean Elena Azpiroz hiltzen saiatu ziren, Donostiako Alderdi Popularreko aparteko neska. Horren berri izatean, nire seme nagusienak elkarrizketa batean eskatu zidan bere aita kargua uzteko konbentzitzeko, ez zuelako pentsatzen bizirik aterako zenik. Baina ez zen posiblea izan. Lehenengo aldiz nire semeari esan nion ezer gutxi egin ahal gnuela maite genuenok, bere aitak jada eusteko determinazioa hartu

zuelako, besteak laguntzeko maite zuen ardurari eusteko, bere bizitza guztia osatzen zuena. Inoiz ezer gertatuko balitzaio, azaldu nion, ezingo genioke gure buruari errua bota bere pasioa bertan behera uzteko gai ez izateagatik.

1997ko abenduaren hamaikan, beti egiten nuen moduan gauean egongelako leihoa ireki nuen José Luisen ahots indartsua entzuteko. Banekien aurreko tabernan bere lagunekin erronda bukatzen zuela, betiko koadrilarekin, eta amaitzean etxera igotzen zen, afaltzera. Bere orroa entzutean afaria prestatzen hasten nintzen. Gau hartan, leihotik bi tiroen eztanda iritsi zitzaidan eta bere bizitzarekin bukatu zutela jakin nuen.

Berehala azken besarkada emateko jaitsi nintzen, bakardadean, bere burua laztantzen nuen bitartean. Nire seme-alabak ezkondata zeuden jada eta euren etxeetan bizi ziren, hortaz, ez ziren aitari agur esateko garaiz heldu. Hurrengo egunak nire oroimenetik ezabatu ditut, nahigabe hodei batean murgilduta pasa nituelako. Ez nuen ezer sentitzen. Hilabete bat beranduago nazka iritsi zen eta atera izan ezin nintzen amildegi sakonean sartu nintzen. Handik eta hilabete batzuetara, lagun eta psikologo on batek laguntza eskaini zigun eta zauriarekin bizitzen lagundu zigun, inoiz desagertuko ez den atsekabearen memoriarekin.

José Luis hil zutenetik bizitza ez da bat ere erraza izan. Berriro ere, min ikaragarria sortu zidan Manuel Zamarreñok etxean egin zidan bisitak, Errenteriako Udaletxean nire senarra eta bere lagun handia ordezkatzeko zuelaren berri emateko. Arren eskatu nion ez egiteko, eta Marisol bere emazteak ere berdin egin zuen. Zazpi hilabete beranduago hil zuten Manuel gizajoa. Misteriotsua da gizon batzuek euren kontzientziaren aginduak jarraitzeko duten gaitasuna, betebeharraren etika azkenengo ondorioetaraino defendatzeko.

Ni Irunen bizitzen jarraitzen dut, nire seme-alaba eta ilobak bizi diren lurraldea delako, eta haiek dira nire itxaropenaren argia. Duela gutxi, txikitxoetako batekin paseatzen ari nintzenean, José Luisek bere lagunei oihuka nola deitzen zien gogoratzen nuen, bere irribarre handienarekin iloba bat zuela esateko, iloba potolo eta ederra.

Eskutik helduta hainbestetan zeharkatu genuen kale horretatik jarraitzen badut, gure lagun batzuen dendarekin egiten dut topo, zeinei

egun batean José Luisek euren saltokiaren atean berriro agurtuko ez zituela esan behar izan zien, euren bizitza arriskuan ez ipintzeko. Gauza horietan ere zen eskuzabala eta xarmangarria.

Nik egunero berarekin hitz egiten jarraitzen dut, oso maiz, horrek erabat lasaitzen nauelako farmakorik onenarekin ere lortu ezin dudan bake beatifikoa ekartzen nauelako. Gure etxean nabarmentzen den argazki horri begira hainbestetan komentatu genuen eta oraindik ebatzi ez den kontu horretaz hitz egiten diot eta laguntza eskatzen diot, eta senide baten bizitzan agertzea, baina batez ere, oraindik asko maite dudala esaten diot, izugarri, eta inoiz ez naizela berataz ahaztuko.

JOSÉ IGNACIO IRURETAGOYENA LARRAÑAGA

(1963-1998)

Nire semea **JOSÉ IGNACIO** tokiko politikan sartu zuena Gervasio Juaristi izan zen, gure familiaren lagun ona eta segurtasunez trantsizio politikoaren hasieratik Zarauzko zentro eskuinaren alde gehien lan egin zuen pertsona.

1977ko ekainaren lehenengo hauteskunde orokorretan eskuinaren marka politikoa *Gipúzcoa Unida* izan zen, Aliantza Popularraren menpe zegoena eta handik gutxira desagertu zena. Eraitza onak izan arren, urte horietan ez ginen akta erdiesteko gai izan.

Esaten nuenez, Gervasiok zuzentzen zuen Zarauzko zentro eskuin ez nazionalista eta hortaz, berari tokatu zitzaion 1984ko Eusko Jaurlaritzarako hauteskundearen kanpainarako mitina antolatzea, gure herriko Lizardi Institutuan, ia estreinatu gabekoa, aurreko urtean inauguratu zelako. Ekitaldia hasteko minutu eskas batzuk lehenago aretoan inor ez zegoela esan daiteke. Izan ere, ETaren bortizkeriaren beldurrez, jendea ekitaldia hasi baino segundo batzuk lehenago agertu ohi zen, ustekabean.

Manuel Fraga gizon berezia zen puntualtasunari zegokionez; egun horretan hogeita minutu lehenago iritsi zen bere kideekin eta denbora hori ia publikorik gabe iritziak elkar trukatzeko baliatu zuten, deialdiaren ordu zehatza heldu arte. Zortzietan puntu berrehun bat pertsona agertu ziren, Zarauzkoak denak, eta ekitaldia hasi zen. Egia da gure herrian eskuinak presentzia nabarmena izan duela; zinegotzi batekin hasi ginen eta denborarekin bi lortu genituen, eta ia hiru izatetik gertu ere egon ginen, baina hori ez dugu inoiz lortu.

Esaten ari nintzenez, mitina egin zen, baina bereziki bizkorra izan zen eta hogeita minutu pasa ondoren Manuel Fragak hitzaldiari bukaera eman zion. Orduan, ia jende guztiak alde egin zuen, baina jarraitzaile sutsu batzuen taldetxo bat han geratu zen Fragari argazkiak sinatzeko eskatuz. Hamar argazki ere sinatu ez zituenean, eztanda bortitza entzun genuen eta

hitzaldi gelaren eskaiolazko sabaiko zati bat eta txintxor batzuk gure gainean erori ziren. Zer egin jakin barik geratu ginela da esan daitekeen gauzarik leunena. Manuel Fragak ordean, ia larritu barik lasaitasuna eskatu eta argazkiak sinatzen jarraitu zuen. Handik gutxira Guardia Zibila heldu zen (oraindik ez zen polizia autonomikoa existitzen) eta kaos hartan txukuntasun pixka bat jarri zuten.

Eraikinak urte bateko bizitza baino ez zuen eta terroristek pakete bonba bat jarri zuten eraikinaren azpian, aireztapen kondukturen bat edo dena delakoa baliatuz. Jainkoari eskerrak ez ziren fin ibili areto nagusiaren azpiko parteak aurkitzeko orduan, eta beraz, bonbak gugandik urrun leher egin zuen. Ez zen zauriturik egon. Beranduago, Gerardok arazoak izan zituen, zentroko zuzendariak eta Aldundiko Kultura Sailak terroristek sortutako kalteen konponketa ordaintzea eskatu ziotelako... Abokatu batera jo behar izan zuen erreklamazio hori bere alde ebazteko.

Gervasiok interes handia zeukan gure aukeran eta Aliantza Popularretik udal-hauteskundetara aurkezteko asko animatu ninduen. Aurkeztu egin nintzen eta eserlekua aise lortu genuen. Izugarri disfrutatu nuen herriko arazoak konpontzeko ardurarekin.

Nire familia, Iruretagoyenatarak, Aiakoak gara jatorriz, Zarautzik hurbil dagoen eskualdea. Beste askok bezala, hemen jaiotako gehienak jatorri karlista dugu, eta lurralde honetan eraiki zuten nire arbasoek euren leinua. Ezkondu eta pixka bat lehenera arte, familiaren baserrian bizi izan nintzen, Gurrutxaga baserrian (horrela ezagutzen gaituzte hemen; Gurrutxagatarak), eta gero, dagoeneko esan dudanez, ezkondu baino lehen, Zarautzera jaitsi nintzen, udatiarren herri txiki batek eskaintzen zuen erosotasunaren bila.

Lanean hasi bezain laster, pentsatu barik zur saltoki oso handi bat zabaldu nuen, zerratoki eta guzti, gure familiari jaten eman diona. Sozietatearen izenak gure abizena darama eta bertan nire seme-alaba guztiek lan egiten dute, alaba bat izan ezik. José Ignacio gaitasun handiena zuena zen, bere adimen naturala eta bere aitak sortutako enpresaren alde borrokatzeko zituen gogoengatik.

Nire semea hil zutenean atsekabe ikaragarria sentitu nuen, nire errua

zela uste nuelako, nik animatu bainuen Alderdi Popularrarekin aurkezteko. Egia da José Ignacio hauteskundetara aurkeztu zenean trantsizio hasierako tentsio itogarria, zeinean terrorismoak astero pertsonaren bat hiltzen zuen, desagertu zela. Inoiz ez nuen pentsatu gorrotoak José Ignacioren bizitza, nire seme maitea, eraman zukeenik. Mundu guztiak daki lehenengo unean nik ez nuela nire kargua utzi nahi izan eta berriro aurkeztu gura nintzela, baina Gervasio konturatu egin zen nire semeak balio handiagoa zuela eta herriaren aldeko lan bikaina egin zezakeela.

Lau urtez hirigintza zinegotzi izan nintzen eta Zarautz garatzea tokatu zitzaidan; egia esan, HAPO (Hiri Antolamenduko Plan Orokorra) trantsizioa baino lehenago egituratu zen, Peña Ganchegui agentziaren bitartez. Udaletxean igaro nituen lau urteetan, Hirigintzaz arduratu nintzen, nahiz eta koalizioan gobernatu, eta asko ikasi nuen. EAJk hauteskundeak irabazi zituen, seguruenik Carlos Garaicoecheak eragindako zatiketa oraindik pairatu ez zuelako. Zinegotzigoa tokatu zitzaigun, beraiekin gobernatzea onartu genuelako eta baita, nitaz esaten dutelako beti gizon zintzoa izan naizela ia inoiz trabarik jartzen ez zuenetakoa, politikoki oso sentikorrak ziren gaiak ukitzen ez baziren, adibidez, presoen hurbilketa edo antzeko kontuak. Gure lana oso probetxugarria izan zela uste dut. Legealdi hori bukatu baino lehen, Gervasiok nire semeari lekua uzteko eskatu zidan behin eta berriz, balio handiko mutila zelako, Zarautzen alde asko egin zezakeena. 1995ko maiatzean José Ignacio zinegotzi aukeratu zuten eta hiru urte beranduago hil egin zuten.

Nire semeak Zarauzko La Salle ikastetxean egin zuen batxilergoa, aparteko emaitzak lortuz. Bere seme nagusiak, nire iloba, ia ezagutu ez zuena, nota ezin hobeak ere ateratzen ditu. Batxilergoa bukatzean, José Ignaciok bere kabuz aparejadore ikasketak gauzatzea erabaki zuen, familiako enpresan lan egiten jarraitu ahal izateko. Urte horietan zehar ia ez zuen bizitza sozialik izan, aldi berean lan egin, zinegotzigoaz arduratu eta, gauez, ikasten zuelako. Eta tokatzen zenean, Donostiara abiatzen zen azterketak egiteko.

Sasoi horretan gauero ikasten ikusi nuen, orduak eta orduak, irmotasun izugarriarekin. Ezerk ez zion adorea kentzen. José Ignacio oso ona zen, azkarra, ongi hezia, adeitsua eta zeharo eraginkorra. Jende askoren

laguna zen eta maitasun hori elkarrenganako zen. Arratsalde askotan Udaletxera abiatzen zen, langile amorratua zela erakutsiz, Jorge Knof Alderdiko kidearekin batera. Familia-enpresan goizeko zortzietan sartzen zen eta funtzio administratiboaren arduradun eta negozioaren kontularia zen.

Ez zen gizon ideologizatua izan. Espainiako zentro eskuinaren ideiekin bat zetorren, besterik ez. Zentzu horretan oso normala zen eta izaera lasaia zuen. Era berean, esan daiteke ere zinegotzi guztien laguna izan zela eta bere nortasuna ez zela inorentzako oztopoa izan. Oso kirolzalea izan zen, futbol zalea, baina bestalde ez zitzaion surfa gustatu, hor bertan hondartza paregabea genuen arren; urte horietan, bere lagun taldeak “ekologistei” muzin egiten zien, horrela deitzen zieten furgonetan Europako hondartzetan zehar olatuak hartzen bidaiatzen zirenei; zikinak zirela uste zuten eta herrian integratzen ez zirela. Hori guztia aldatu egin da, ezaguna denez.

José Ignacio Donostiako euskararen patronatuaren kide izan zen, Alderdi Popularraren ordezkartzan.

Hil zutenean, Zarauzko herria gure alde jarri zen, elkartasuna adieraziz, eta gure nahigabea ulertzen zutela sentitu genuen. Gogoratzen dut kazetari batek José Ignacio batasunoen laguna zela idatzi zuela eta nolabaiteko gertutasuna zuela talde horrekin. Gure familia erabat gogaitu zen hori irakurtzean, batez ere nire erraia María José. Egia da ez zuela beraiekin batzartzeko edo ardo bat edateko arazorik, Udaletxeko ardurak hala eskatzen bazuen. Informazio horrek min handia eragin zion bere alargunari, min izugarria, gu bezalako pentsamoldea duelako eta familia karlista bateko alaba ere delako.

Nire semeak ez zuen eskoltarik eraman nahi izan, Alderdi Popularrean garrantzitsua ez zelako, Gervasiok egun batzuk aurrerago eskolten babesa segurtasuna errefusatu ezin zuela azaldu zion arren. Zarauzko jendeak asko maite zuen José Ignacio, herriko guztien laguna zen; horregatik, gertutasun hori sentitzen zuenez, ez zuen kezkatzeko arrazoi berezirik ikusi.

Hogeita hamabost urte zituela hil zuten eta ez zioten lau urteko Mikel eta zortzi hilabeteko Natxo bere semeek disfrutatzeko denborarik utzi, bizitza honetako gauzarik handiena. Bere auto azpian jarritako bonba batek lehertu zuen, 1998ko irailaren bederatzian, goizeko zortziak hamar

gutxiagotan, lanera abiatzen zenean.

Hiletara Aznar presidentea etorri zen, nire lagun handia, zazpi ministroekin batera. Nahiago nuke bisita hori inoiz gertatu ez balitz, horrek José Ignacio gurekin jarraitzen duela esanahiko lukeelako. Geroztik, ezin izan dut bere irribarrea ahaztu, hain alai egiten gintuen adeitasuna, bere bizitzeko ilusio ikaragarria eta bere emaztea eta bi semeekiko maitasun mugagabea.

MANUEL ZAMARREÑO VILLORIA

(1955-1998)

MANUELEN familia Salamancan jaio zen eta nirea Leonen, baina beharraren gorabeherak zirela bide familia biek euren jatorrizko tokiak utzi behar izan zituzten. Halabeharrak Gipuzkoara eraman zituen eta lurralde horretan eta euren ahaleginetan jarri zuten gure gurasoek itxaropen guztia.

Manuel Donostian jaio zen 1955eko urtarrilaren seian. Bere gaztaroa normala izan zen, beste edozein umerena bezalakoa, ordura arte gatazkarik ez zuen gizarte batean. Bere etxetik hurbilen zegoen eskola publikoan ikasi zuen, eskola-graduatuak bukatu zuen arte, hau da, hamalau urte bete arte. Momentu hartan aitari esan zion ez zuela liburu eta ikasketa arautuez ezer gehiago jakin nahi. Aukera gehiago ez zeudenez, aitari lanpostua aurkitzeko laguntza eskatu zion, Luzuriaga Ontzian lan egiten zuena. Horrela, aitak Manuel Pasaiako ontzi industria txikian ikastun bezala sartzea erraztu zuen, Erreterria era Irunetik oso hurbil zegoen herria.

Ontzian bere bizitza osoa egin zuen. Esaten ari nintzenek ikastun bezala hasi zen, bere adina zela eta, baina barne prestakuntzan ahalegin handiak jarri zituen eta promozioen bitartez galdaragile ona izatea lortu zuen. Asko maite zuen bere lana, garrantzitsu sentitzen zelako bere soldagailuarekin kalitate handiko plantxak egiten. Enpresan lagun onak egiteko zoria izan zuen, bere bizitzaren momentu larrienetan bere ondoan egon zirenak, gure ondoan.

Diru nahikoa aurreztu zuenean Erreteriarra bizitzera joan zen, bere lanpostutik gertuago egoteko eta langile baten ekonomia konplikatu ohi duten desplazamendu gastuak saihesteko. Eta egun on batean ezagutu, gustatu, eta elkarrekin ateratzen hasi ginen. Laster ezkontzea erabaki genuen. Manuel gizon ona zen, besteak animatzeko bihotz handia zuena, beti negatiboki arduratzen zena, eta bere semeengatik ahalegin guztiak egiten zituena. Bere lagunak lagun ona izan zen eta beti arduratu zen beraietaz, baita gure bizitza literalki jasanezina zen momentu horietan ere, zeinetan

itxuraz bizitza mantentzean besterik ez genuela pentsatzen irudi zezakeen. Zentsu honetan esan daiteke gure lagunetako inork ez gintuela bertan behera utzi terrorismoak gure bizitza jasanezin bihurtzen hasi zenean.

Laurogeiko hamarkadaren hasieran Errenteria herri beldurgarria zen dagoeneko. Erradikalismo abertzalearen iskanbila politikoak etengabeak ziren eta jadanik hainbat hilketa gertatuak ziren gure kaleetan terrorista erradikalen eskutik. Baina han bizi behar ginen, plaza horretan ezarri baikenuen gure bizilekua, gure etxe-ekonomia xumearen ondorioz beste edonon ostaturik aurkitzeko aukerarik gabe. Bestalde, Manuelek lan egiten zuen enpresak garai makala pasatzen ari zen kontratu faltaren ondorioz, eta itxi behar izan zuen, lansari guztia langabezian utziz. Hori izan zen Manuel eta bere lagun min askoren kasua.

Betidanik politika asko gustatu zitzaion. Egunkarian irakurtzen zituen artikuluak, eta telebistan gai honen inguruan agertzen zen informazioak erabat erakartzen zuten. Ezin zuen bidegabekeria jasan, erradikalismo abertzale ofizialak Euskadin ezarritako izuaren diktadura eta euren identitate zeinuen inposaketa euskaldun guztien ondare bakar eta eksklusiboa balira bezala, euskaldun izatearen bestelako identitate edo esentzia alde batera utziz. Bera Donostian jaioa zen eta bagenekien gure lurraldearen historia txikia Espainiako historia handiaren parte garrantzitsua zela.

1995ko urtarrila bukatu baino lehen, Gregorio Ordóñez hil zuten. Zaila da horrek eragin zigun nahigabea azaltzea. Gregorio izan zen nire senarrari Alderdi Popularrean sartzeko abala eman ziona. Hilketa horrek eragin zigun nazkaren ondorioz politikan esku hartzea erabaki genuen, gure ideiekin bat zetorren alderdian. Era berean, alderdiko kide batzuen lagunak ginen, adibidez, José Luis Caso eta Juani bere emaztea, ezaguna denez Manuelekin Ontziolan lan egiten zuena. Biak lagun bikainak izan ziren.

José Luisen bitartez Alderdi Popularrak lehenengo aldiz hautagaitza Errenterian aurkeztuko zuela jakin genuen, eta Manuelek bere burua eskaini zuen zerrendako hirugarrena izateko. Bere esku-hartzea zerrenda betetzeko besterik ez zela uste genuen, inoiz ez baikenuen pentsatu gure hautagaitzak bi eserleku lortuko zituenik; sorpresa itzela izan zen eta poztasun politikoz

bete gintuen, baina emazte batzuek, gure intuizio sakonenetan hainbeste desiratu genuen garaipen horrek gauza txarrak ekar zitezkeela ulertu genuen. Errenteriako giro sozial eta politikoa latza zen dagoeneko, baina bi eserleku horien ondoren txarrera joan zen.

Egunak pasatuz joan ziren eta Miguel Ángel Blanco gizajoa bahitu eta hil zuten. Zelako larritasuna, zelako mina. Lehenengo aldiz, Espainiako gizarteak tragediaren larritasunaren neurriko erantzuna eman zuen eta kaleetan zehar terrorismoa jazarri genuen gure esku zuriekin, foro guztietan askatasuna, askatasuna oihukatuz, erradikalismo abertzalea ezkutatzen zen bitartean. Espainia eta Euskadi osoa zeharkatu zuen aldarria, ordea, ez zen Errenteriara heldu, erradikalen beldurrez, jendea etxean ezkutatuta geratu zelako. Ordurako gure hautatutako karguek infernu ikaragarria bizitzen ari ziren eta etengabea telefono deiak jasotzen zituzten, telefonoa ume batek edo gure zinegotzien lanarekin zerikusirik ez zuen beste senideren batek hartzen bazuen inportatu gabe.

Miguel Ángel en hilketatik bost hilabetetara, José Luis Caso hil zuten, gure adiskide bikaina, lagun mina eta gizon benetan bihozbera. Berria jasotzean Manuel eta biok mutu geratu ginen eta isiltasunean negar egin genuen. Ni ez nintzen Juani, bere emaztea, besarkatzera joateko gai izan, ez nengoen atsekabe gehiago jasotzeko moduan.

Baina horrek ez zituen terroristak ase eta geratzen zitzaigun zinegotziaren bila joan ziren, Concepción Gironza, bere etxean bonba bat jarritz. Concepción gizajoak, logikoa denez, ezin izan zion presioari eutsi eta bere bizitza kontserbatzeko baztertu egin zen. Manuelek gertakari hauetaz Borja Sémpér, José María Trimiño Hidalgo eta Alderdiko beste kide batzuekin hitz egiten zuen, guztien laguntza behar genuelako.

Egun goibel batean José Luis ordezkatzeko asmoa zuela esan zidan, Concepción alde batera egin eta gero bera zelako Alderdi Popularreko zerrendan hurrengoa. Erabaki handiak hartzeko baretasun horrekin esan zidan bera euskalduna zela, lurralde honetan jaio izan zela eta inork ez zuela bere etxetik botako, eta are gutxiago hiltzaile talde batek, Eusko Jaurlaritzan finkaturiko gainerako nazionalisten euskarria izan arren.

Erabakiz aldarazten saiatu nintzen mota guztietako argudioak bilatuz,

batez ere gure familia eraikitzen jarraitzeko bizirik behar genuela esanez. Gizon adoretua zen eta lotsatia eta lasaia izan arren, bere izaeraren indarra erakusten zuen. Bera eta José María Trimiño Hidakok (zerrendan hurrengo) zegozkien eserlekuak okupatzeko erabakia publikoa egin baino lehen, terroristek euren jarduerara itzuli eta Errenteriako kaleak ituen pintadez bete zituzten, euren izenekin, telefonozko deiak, irainak eta beste hainbat txakurkeriaz aparte.

Oso noizbehinka, izutik aldentzeko gogoz bidai txikiren bat egin genuen Extremadurara. Baina Gipuzkoara itzultzeko kotxean sartzen ginenean, estutasuna eta ikara berriro agertzen ziren, jasanezina zen. Batzuek heroiak ginela esaten zuten, baina ez zen horrela. Nik izugarri maite nuen Manuel eta ahalegin handiak jartzen nituen nire isiltasuna eta beldurrarekin bera gehiago ez larritzeko. Bere erabakia behin betikoa zela ulertu nuenean, samurtasuna erakusteko ahal nuen guztia egin nuen eta nahigabetuta ikusten nuenean lasaitu egiten nuen.

Manuel eta José Mariak kargua hartu zuten 1998ko maiatzaren 21ean eta nire jantzi onenekin joan nintzen ekitaldi handira. Eserlekuak, aldiz, beranduago okupatu zituzten. Izan ere, José Luis Caso hil zutenean, Manuelek publikoki adierazi zuen Herri batasuna terrorista hiltzaileen gauza berbera zela eta hauek kereila kriminala jarri zioten. Orduan, Manuelek atzera egin zuen, baina alderdi erradikaleko kideek aurrera jarraitu zuten kereilarekin. Momentu horretan hasi zen sei hilabete baino gehiago luzatu zen amesgaiztoa.

Asteak pasa ahala Manuelen bizitza, gure bizitza, okertuz zihoan. Berarekin kaleetatik joaten nintzenean jendeak saihesten gintuen eta espaloiez aldatzen zen; kafetegiren batean zerbait hartzera sartzen baginen errenteriar askok gu ikusi bezain laster ordaindu eta alde egiten zuten. Izkinan autoa uzten bagenuen, besteek euren kotxeak mugitzen zituzten. Bistan zegoen beldur zirela bonba edo bala galdu batek eragingo liekeen kalteez; azkenean terroristek gure kotxea erre zuten, bizirik birrindu gintuzten.

Manuel eta José María kalean elkarrekin ez ibiltzea erabaki zuten, jomuga txikiagoa eskaintzeko. Jarri zieten eskolta eskasak hasiera ordua

publikoa zenean Udaletxeko komisiotara beti ez joatea aholkatu zien, ezinezkoa zelako euren segurtasuna bermatzea. Amaiera heldu baino lehen San Marko gotorlekuan biltzen ziren udalbatzar eta komisiotako hitzaldiak prestatzeko, arratsaldea bukatzeaz zela, aire zabalean, ia ezkutuan, ezezagunek euren urratsak jarraitzea ekiditez, beste hainbatetan gertatu zen moduan. Hori egin zuten bere hilketaren aurreko egunean, eta autonomia poliziaren eskakizunez segurtasun neurriak ere handiagotu zituzten, Erreterian hilketak gertatuko zela sinesten zutelako, bizikleta edo motor batean instalaturiko bonba baten bitartez.

Zenbaitetan euren artean hitz egin zuten, lasaitasunez, politikatik bizirik aterako ote ziren, euren ahaleginak pena merezi al zuen, hainbeste sakrifizio, min eta estutasunez gainezkako lanak zentzurik ote zuen komentatuz. Beti baietz esaten bukatzen zuten, beraien seme-alabak gorroto nazionalistatik gabeko Euskal Herri batean haztea nahi zutelako, askatasunean bizi ahal zen leku batean.

Hamahiru urte pasatu dira nire Manuel hil zutenetik, besteez arduratzen zen gizon ona. Denbora luzez, gure seme-alaben ikastolako guraso elkartearen kide izan zen. Euskaraz hitz egiten zuen, bakezalea eta oso lasaia zen, baina hori bai, gauzak bere izenez deitzen zituen bere irribarrea (batzuetan ironikoa) galdu gabe, eta abertzale erradikalek ezin izan zuten hori inoiz hori jasan.

1998ko ekainaren hemeretziaren poz-pozik hegoaldera bidaia egin genuen, Almuñecarrera, *Costa Popular* aldizkariaren erredakzioak adorea saria eman ziolako. Hori izan zen gure agurra: bidai zoragarri batean bi egun igaro ondoren, lau egun beranduago hil zuten.

Etxera itzultzean, Manuel José María Trimiño eta bere eskoltekin paseatzen ari zela, gazte talde baten ondoan pasatzean, mutiko bat Manuelengana hurbildu zen irain larriak botaz eta hiru egun geratzen zitzaizkiola esan zion. Handik eta lau egunetara, 1998ko ekainaren 25ean, bere bizitza eraman zuen bonbak eztanda egin zuen. Horrelakoa zen Erreteria Alderdi Popularra eta askatasunaren aukerarentzako XX. mende bukaeran.

Bere hilketarekin batera hutsa heldu zen, ezereza, eta itoaldia, beste

arrazoiren artean betikoak kaletik iraintzen jarraitzen nindutelako eta etxera deitzen heriotzarik okerrera desiratuz. Nire alaba nagusiak unibertsitatea bukatzean Euskadi betirako uztea erabaki genuen, Espainiako beste leku batean ezartzeko. Asko kostatu zitzaidan berriro leku berri batera moldatzea, hain heldua izanik, baina poliki-poliki berriz osatzen joan nintzen, gorrotoz beteriko aurpegi batzuk gehiago ikusten ez nituelako. Orain zain nago, bihotza hautsita, Manueli bere heriotza goiztiarraren erruz eman ezin izan nizekion besarkadak emateko nahiarekin, eta bere irudi hain maitekorra nire oroimenetik inoiz ez joateko irrikaz. Nire oroitzapenetan bere ondoan paseatzen jarraitzen dut, eskutik helduta, begitara begira.

ALBERTO JIMÉNEZ BECERRIL

(1960-1998)

ASCENSIÓN GARCÍA ORTIZ

(1956-1998)

1960ko abuztuaren hamabian jaio zen momentutik, **ALBERTOREN** bizitzak zorionez bete zituen bere ondokoak. Klinika barruan dagoeneko, erizainek jaio berri zen haurtxoa paseatzeaz gozatu zuten, entzuteko prest zeuden guztiei euren besoetan munduko umerik politena zutela esanez.

Eta hori egia zen. Haziz joan zen heinean, bere aurpegiko hazpegiak ere zehaztu ziren eta ume ederra bilakatu zen, bereziki erakargarria. Horrela, Sevillako Jesuitetan batxilergoa bukatu baino lehen, garaiera ezin hobea zuen eta edozein neskaxa sorgin zezakeen ile kizkur azabatxea. Oso ederra zen.

Niri ere andaluziarrak miresteke garaia iritzi zitzaidanean, asko pozten nintzen Albertok ni eta nire laguna Triana edo Sevillako edozein txokotik berarekin ateratzera gonbidatzen gintuenean, bere alboan bitxiztatuta sentitzen nintzelako eta konpainiarik onena nuela uste nuelako, nebarik onenarekin.

Baina guztia ez zen aurpegia. Oso alaia zen eta bizitzaren pozak bere izaeran lekua aurkitu zuela nabaritzen zen besteei eskaintzen zien denboran, bere hizkeraren grazian, bere inteligentzia naturalari esker zituen burutazioetan. Bere xedea izan barik, eta oso gaztetatik, bere presentzia nabarmena egin zen familia bileretan, edozein elkarrizketan baretasuna eta gatza jartzen zituelako.

Madrilgo San Pablo CEU unibertsitatean zuzenbidea ikasten hasi baino lehen, Estatu Batuetara joateko beka bat lortu zuen. Horri esker, bertan denboraldi luzea igaro zuen eta hizkuntza ikasi eta nazio handi horren egitura politikoa lehenengo eskutik ezagutzeko aukera izan zuen. Izan ere, garai horretarako jadanik, politikak nolabait erakartzen zuela sentitzen zuen. Trantsizio politikoaren hasieran bere gaztetasunaren indarra Espainiaren etorkizuna interpretatzeko baliogarria izan zitekeela ikusi zuen, bere belaunaldiaren ikuspuntu moderno baliatuz. Nik ere, bere urratsak jarraitu

nituen eta urte bat beranduago Madrilera abiatu nintzen. Hala ere, nire helburua informazioaren munduan lan egitea zen eta kazetaritza ikasi nuen. Esaten nuenez, politikak gaztea zenetik erakarri zuen Alberto eta aukera izan bezain laster, UCDn sartu zen. Oraindik ikusten dut Leopoldo Calvo Soteloren taldean laguntzen, hauteskunde propaganda banatuz. Besteak laguntzearekin zerikusia zuen dena bihotz guztiaz egiten zuen.

Zuzenbideko lizentziaren bigarren zikloa, hau da, laugarren eta bosgarren kurtsoak, Sevillako Unibertsitatean burutu zuen, bere jatorrizko hiria eta aurrerantzean inoiz utziko ez zuena. Gela horietan bere bizitza osatu eta zoriona ekarri zion emakumea ezagutu zuen, **ASCEN GARCÍA ORTIZ**. Maitemindu eta gazte ezkondu ziren, 1988ko maiatzean, Macarenako basilikan. Hiru seme-alaba izan zituzten: Ascensión, Alberto eta Clara.

Ascen Cadizen jaio zen 1956ko maiatzaren hamaikan, baina zazpi urte zituenean bere aita, militarra, Sevillara mugiarazi zuten. Batxilergo ikasketak Sevillako Irlandesas eta Murillo ikastetxeetan gauzatu zituen eta beranduago, zuzenbidezko lizentzia atera zuen. Luis Escribanoren bulegoan ekin zion bere karrera profesionalari, prokuradore lana bertan behera utzi gabe.

Ikasketak bukatzean, nire etorkizuna Sevillatik kanpo bideratu nuen. Horregatik nire nebarekin aurreko maiztasunez hitz egiteari utzi nion. Badakit, ordea, lizentziatu eta gero denboraldi batez abokatutza bulego batean lan egin zuela, ofiziozko txandaz arduratzen zen bitartean. Lan alorrean berari buruz etortzen zaidan hurrengo oroitzapena Aliantza Popularrak Sevillako Los Remedios auzoan zuen egoitza batean sartzen zen momentukoa da eta pixka bat beranduago, Udaletxean zinegotzi lanean ari zen garaikoa, hautesleen ordezkaritzan. Hau 1987an izan omen zen, toki-hauteskundeak egin ziren urtea. Aliantza Popularrak zortzi eserleku lortu zituen, hiria gobernatzeko gutxiegi, baina Albertorentzat eskola ezin hobea izan zen eta Sevillako hiritarren alde lan egiten ikasi zuen, politikan lan egitea erabaki zuenetik bere pasioa bihurtu zen jarduera.

Hauteskunde horietan Soledad Becerril ezagutu zuen, hurrengo legealdiko alkatea izango zena, oraingo honetan Popularren zerrendan

independente gisa aurkeztu zena. Lehenengo momentutik bikain moldatu ziren bien artean, Soledadek nire nebaren hiritarrak zaintzeko grina ulertu zuelako. Zerbitzu publikoaren alde lan egiteko mirespen harrigarria izan zuen beti, korporazio publikoetan lan egiten dutenek oso gutxitan erakusten duten konpetentziarekin.

1991an hasitako legealdian Alderdi Popularrak gobernua osatu zuen eta bere programaren eraginkortasuna erakutsi zuen. Alberto funtsean Sevillako osasun delegazioaz arduratu zen, bere trebezia eta bizkortasuna baliatuz beste zenbait arazo konpontzen zituen bitartean. Itxuraz, bere lana ahalegin handirik gabe burutzen zuen, besteekin harremanak izateko zuen erraztasun handiari esker konturik larrienak ere elkarriketa eta adostasunaren bitartez konpontzen baitzituen. Lagun handiak izan zituen sindikatu bitartekari, funtzionario eta oposizioaren zinegotzien artean, terrorismo nazionalistak bizkarretik bere emaztearekin batera hil zuenean negar egin zuten lagun zintzoak. Gainerako alderdi politikoak euren taldean Alberto bezalako zinegotzirik ez izateagatik damutzen ziren. Izan ere, erakutsitako eraginkortasunari esker, denbora laburrean entzutetsua bilakatu zen; inizatibazko gizona zen eta ez zuen kolpe politikoren bat hartzeko beldurrik, berak proposaturiko ekimenak Sevillako hiritarren bizitza hobetuko zuela sinesten bazuen.

1995ko maiatzean hasi zen legealdian, udalbatzak Alberto hiriko alkateorde eta Ogasuneko ordezkari izendatu zuen. Asko poztu zen izendapenaren berri izatean, orain bere hiri maitea hobetzeko tresna eraginkorrak bere menpean zituelako. Soledad Becerrilek oso aurrekontu estua utzi zuen bere esku eta, egia esan, ez zen inoiz kexatu. Ordea, berriro ere eraginkortasun ikaragarria erakutsiz, emari publiko eskasa behar bezala bideratu zuen. Hiria eta bere zerbitzuak ezin hobeto funtzionatzen zutela egiaztatu zen, gobernua bere funtzionarioen irizpide teknikoaz guztiz fidatu zelako, hori baita korporazioak zuzenki kudeatzeko modurik onena. Alberto pozarren zegoen. Hil zituztenean bere ondasunen artean ondarrerik utzi ez zuela esan daiteke. Kotxe arrunt bat eta ezer gutxi gehiago utzi zuten, inoiz ez zuelako politika bere onura propiorako erabili.

Ez da harritzekoa Udaletxean hain maitatua izatea. Langile sutsua izan zen, bere bulegotik berandu ateratzen zena, dokumentu guztiak aztertu

ondoren, bat ere irakurri gabe utzi barik. Batzuetan, seme-alabak lanera eramaten zituen, orduan oso txikiak zirenak, aita bihozbera eta oso umezalea zelako, Ogasun saila bere barre eta jokoekin betez. Lanetik ateratzen zenean bere emazteari deitu eta hirian zehar paseatzera irteten ziren, lagunekin hitz egiteko.

Ascen adiskide bikaina izan zen bere senarraren eginkizun profesionalean. Ahal zuen ekitaldi guztietara joaten zen berarekin, bere pertsonalitatearekin Albertoren eginkizunak handiagotuz. Oso maiteminduta zegoen eta hori nabaritzen zen, bistan zegoen bikotearen bizitzan ez zegoela errutinarako lekurik eta euren familia proiektua lehenengo uneko ilusioarekin bizitzen zutela.

Inoiz ez ginen iparraldetik iristen ziren berri latzez mintzatu, gure kideen hilketez. Albertok denak bezala aplikatzen zituen, batez ere hasieran, auto-babes neurriak. Baina denborarekin lasaitu eta guardia jaisten joan ginen; azken finean, nork pentsatuko ote zuen terrorismo nazionalista hain hegoaldera iritsiko zenik, Sevillara.

1988ko urtarrilaren hogeita hamarrean bizkarretik hil zituzten, gau ilun batean, etxera bueltatzen zirenean. Bitartean euren hiru seme-alaba txikiek lasaitasunean lo egiten zuten euren gurasoak bizirik berriro ikusiko ez zituztela jakin barik. Besteoi, euren familia, lazturak hartu gintuen eta denboraldi batez, adorea ere galdu genuen. Denborarekin, haiek gurekin gehiago ez egoteari ohituz joan ginen eta gorrotoa defendatzen dutenek sortutako hondamena konpontzen hasi ginen, batez ere, euren seme-alaba eta gure ilobak beraien gurasoen alaitasun berdinarekin hazten zirela ikustean. Gure amak umeak zaintzea erabaki genuen, eta baita asmatu ere, bere bihotzean inoiz falta ez zitzaient maitasuna aurkitu zuten eta.

Geroztik hamahiru urte igaro dira eta zauria oraindik ez da sendatu, ez da inoiz sendatuko. Euren seme-alabek maiz galdetzen digute ea nolakoa zen euren gurasoen izaera eta zer nolako gauzak gustatzen zitzaizkien, nola gozatzen zuten euren lagunekin tapak hartzen edo Aste Santua eta Feriarekin. Guk gure bihotzetan gordetzen dugun egiarekin erantzuten diegu, euren gurasoek bi pertsona on zirela esanez, ikaragarri maite zituztela, haurtxoak zirenean asko zaintzen zituztela eta beraiekin leku

guztietara eramaten zituztela.

Askotan eta haiek galdetzen dutenez, euren gurasoen bizitzaren berri ematen diegu, beraiei buruz hitz egitean etortzen zaizkigun oroitzapenak gure azken hasperena arte gure gogoan gera daitezen irrikaz.

JESÚS MARÍA PEDROSA

(1942-2000)

JESÚS MARI 1942ko abenduaren hamabian jaio zen Villafranca de Orian, gaur egun Ordizia bezala ezagutzen dena. Gipuzkoako herriaren grafia horrek herrialde honetako beste hainbat gauza bezala eraldatu zen, baina berak etxean umetatik ikasitako izendapena erabiltzen jarraitzea erabaki zuen. Lau urte zituela, herria utzi eta Durangora abiatu ziren, inoiz utziko ez zuen tokia. Izan ere, bere aitak hemengo enpresa batean lana aurkitu zuen, makina muntatzaile gisa, erretreta hartu arte egin zuen lana. Horrela, Jesús Marik Gipuzkoa utzi eta ez zen inoiz itzuli; oster, realzale sutsua izaten jarraitu zuen, txikitatik maite izan zuen taldea.

Bat gehiago izan zen bere jendearen artean. Durangoko Herriko Eskolan ikasten hasi zen eta ondoren batxilergoa egiteko Jesuitetan matrikulatu zen (ikasgela horietan ezagutu zuen bere laguna Juanjo Gastañazatorre), erdi pentsiodunentzako diru-laguntza baliatuz, bere familiako egoera ekonomikoa nahiko xumea zen eta. Erdi mailako ikasketak bukatzean Unibertsitate Laboral batean sartu zen, hain zuzen ere Sevillan, injinerutza elektronikoan peritu-ikasketak burutu nahi zituelako, geroago, Bilbon Injinerutza lizentzia lortzeko asmoz, egokitze-ikastaroen bitartez.

Baina bizitzak bere ilusioa inoiz beteko ez zela erakutsi zion. Erditik soldadutza zeharkatu zitzaion, bere luzapenekin, eta ondoren lan munduan sartu zen. Gauez karrerako laugarren eta bosgarren urteetako irakasgaiak ikasten saiatu arren, ez zen denari eusteko kapaza izan eta lehentasuna eman zion lanpostua eta familiako bizitzari, ezkondu berriak ginen eta. Bere lehenengo lanpostua zerbitzu militarra bukatu bezain laster lortu zuen, San Miguel Galdategian. Bertan sei hilabetez ikerketa eta garapeneko laborategiaz eta kalitate kontroleko zereginenez arduratu zen. Ondoren, Berrizko *Industrias Inder*-eko kalitate kontrolaren buru izatera pasatu zen, auto osagaiak fabrikatzen zituen enpresa. Firma horretan lan egiten zuen bitartean ezkontzea erabaki genuen, gure bizitzako ilusiorik handienarekin.

Atxondoko ibarrean ezarri ginen, Abadiñotik hurbil eta beraz, Durangotik nahiko gertu ere, Udaletxearen alokairuzko pisu batean. Leku hori aukeratu genuen, beste arrazoien artean, nire aita Udaletxeko idazkaria zelako. Bost urte beranduago Durangora mugitu ginen, gure alaba eskolatzeko leku aproposagoa zela pentsatu genuelako.

Ezkondu eta hurrengo hamabost urteetan, Jesús Mari egunero autoa hartu eta Berrizera joaten zen. Pasa den mendeko hirurogeita hamarrekota hamarkada iristean, Inder firmak arazoak izaten hasi zen: langile grebak, eskabide-zorroan arazoak eta abar. Jesús Marik ahal izan zuen bitartean eutsi zion egoerari, baina azkenean, enpresa utzi eta *Puskas* konpresore fabrikari lan egiten hasi zen. Han igaro zituen bere lan bizitzako azken bost urteak, enplegu-erregulazioko espediente batek kalean utzi zuen arte.

Langabezia egoera tamalgarrira pasatu baino lehen, bihotzeko larri bat pairatu zuen eta horretatik ez zen inoiz guztiz osatu. Hain zen ahula bere egoera fisikoa bihotzari dagokionez, ezintasun iraunkorra eman ziotela; geroztik buru-belarri ekin zion politikari.

Juanjo Gastazañatorre izan zen mundu honetan sartu zuena. Beranduago jakin nuen dena hasi zela 1983ko hauteskundeetako hautagaitzan zerrendako bigarrena izatea eskaini zionean. Jesús Marik ezetz esan zion, ez baitzuen bere burua zinegotzi bezala ikusten. Eta Juanjok, beti bere lagun mina izan zena eta aldi berean oso pertsona saiatua, 1987rako postu berbera eskaini zion, oso profesional ona zela zekielako.

Oraingo honetan bai, onartu zuen, bere eserlekua aise lortuz. Badakit nire senarra aukeratu bazuen gizon oso azkarra, langile eta zintzoa izateagatik zela. Bere heriotzaren ondoren esan zidatenez, Jesús Mari Durangoko Udaletxeko Ogasun Komisioko buru izan zen urteetan zehar, alderdi politiko guztiek bere aurrekontuei buruzko irizpide eta proposamenen alde bozkatu zuten; guztiek, baita ezker erradikalak ere. Hori harrigarria izan omen zen, ordura arte inoiz ez baitzuen Alderdi Popularrak besteen partetik baiespen parlamentariarik jaso izan.

Jesús Marik oso denbora gutxian ospea lortu zuen. Beti izaera plurala izan zuen eta Udaletxeko talde politiko ezberdineko osagaiekin hitz egiteko erraztasuna; horrez gain, beti harro ageri izan zen mundu guztiarekin

harreman ona izateagatik. Ziur nago bere irribarre alaia eta gaitasunei esker, besteak baino askoz arinago egiten zituela adiskideak.

Jesús Marik baietz esan zion Alderdi Popularrari durangarrak laguntzeko tresnarik onena zela sinesten zuelako, orduan hogeita hiru mila biztanleko herria. Jakin badakit inoiz ez zela zentro eskuineko posizio erradikaletan kokatu; aitzitik, bere aita komunista izan zen. Bestalde, ezaguna zen bera, ni eta gure alaba bat ELAko kideak ginela 1986tik, jakina denez Eusko Alderdi Jeltzalearen menpe jarduten duena.

Sindikatu hori gure lan kontuak defendatzeko eraginkorra zela uste genuen eta atxiki ginen. Ez genion bere posizionamendu nazionalistari begiratu. Zenbaitetan Jesús Mari lehen lerroan egon zen, maiatzeko bateko manifestaldietan, gure sindikatuaren pankartaren atzean. Honekin esan nahi dut bere ondokoen existentzia errazten zuen guzti horretan esku hartzen zuela.

Gogoratzen dut Jesús Marik esaten zidala Alderdi Popularraren ikuspuntua zela bere Espainiako historia eta garaiko politika ulertzeko modutik gertuen zegoena, behin zentro eskuineko firmak elkartu eta José María Aznarrek alderdiaren jarrera eta norabidea zehaztu zituenean. Ez zen sozialista, ezta euskal nazionalista ere, hortaz, bere ideietatik gertuen zegoena Alderdi Popularra zela ondorioztatu zuen. Horrela hasi zen dena.

Gazte izanda iritsi zitzaion ezintasun iraunkorra, horregatik, bere lanbideetan jarritako ilusio berdina ipini zuen udalbatzan. Gosalduek ondoren Udaletxera abiatzen zen eta han orduak pasatzen zituen. Jesús Mari komodin bat zen; adibidez, udal deialdi bateko azterketa zaintzen zuen eta edozer egiteko prest zegoen. Zentzu honetan, politika egiten denbora ugari galdu zuen beti, eta oso gustura gainera. Esan daiteke pertsona prestua zela, beti eskura zegoen horietakoa. Askotan etxera berandu itzuliko zela esateko deitzen zidan, beste batek utzitako tokia hartu behar zuelako. Inoiz ez nuen dei horietan espero ez zuen azken orduko lana egin behar izateagatik atsekaberik nabaritu, alderantziz, egiten zuen guztia gogoko zuen eta bere ardura seriotasun eta pasio osoz hartzen zuen.

Laster, Pedrosa zinegotziak arazoak konpontzen zituela, eraginkorra zela, espedienteak prozesatu eta beti bere eskakizunen egoera prozesalari

buruz egia esaten zuenaren berria zabaldu zen eta durangar askok audientzia eskatu zioten. Asko disfrutatu zuen besteak lagunduz eta poz-
pozik agertzen zen bere auzokideen benetako arazoak konpontzen zirenean.
Esan daiteke Jesús Marirekin gauzak ondo zihoazela eta jendeak funtzionario
ona zela ikusi zuela. Ni izugarri pozten nintzen bera zoriontsu ikustez eta
herritarrek, ideologia begiratu barik, bere lana aintzat hartzen zutela
konprobatzen nuenean.

Baina zoriontasunaz gozatzeari dagokionez, inoiz ez nuen gure bi
alabatxoak bere beso indartsuetan hartzen zituenean bezain pozik ikusi.
Samurtasunez begiratzen zien, arreta handiaz, eta euren bizitza harrigarriek
bere bihotza ukitzen zutela nabaritzen zen. Maiz entzun nion bere lagunei
etxean benetako altxorak zituela kontatzen, dena kontatzen baitzuen. Beti
harritu ninduen ezagutzen zituen guztiekin zeukan zintzotasuna. Era berean,
bere jendetasunak lehengo unetik liluratu ninduen eta edozein elkarrizketa
errazagoa egiteko gaitasuna. Egia esan, bere ondoan oso gustura bizi
nintzen, erabat disfrutatzen nuen eta ez zegoen errutinarako edo aspertzeko
denborarik.

Beranduago askok aitortu zidatenez, parlamentari lanean oso zorrotza
zen eta seriotasun osoz burutzen zuen bere eginkizuna Talde Popularreko
zinegotzi gisa. Era berean, oso dialektika ona zuen eta guztiek miresten
zuten aurkezpenetan edo proposamen ezberdinen aurka egiteko orduan
erabiltzen zuen tonu ironikoa. Politikan igaro zituen 13 urteetan zehar, bere
korporazio kideek langile sutsu batekin egin zuten topo, paktu inteligenteak
errazten zituen elkarrizketarako jarrera irekia zuena. Miresgarria zen
dokumentuak aztertzerako orduan jartzen zuen arreta. Guztia arakatzen
zuen komisió ezberdinetan bozkatzeko zena Durangorentzat onena izan
zedin.

Oporrak abuztuan hartzen genituen beti. Biok gure ogibideetan lan
egiten genuen eta, nire enpresak abuztuan ixten ez zuenez, bere atsedean
egunetara moldatzen nintzen, derrigorrean uda erdiko hilabetea hartu
behar zituenak. Hasieran Errioxara abiatzen ginen, klima lehor baten bila,
gure alaba baten gaixotasunak arintzeko egokia zena. Lau urte beranduago
Isla herriko hotel batean logela bat alokatu genuen, Ris-eko hondartzatik
hurbil, Kantabrian. Lagunekin atsedean hartzen umeak bagina bezala

disfrutatu genuen, etengabea txangoak egiten.

Denborarekin, nire arreba batek etxetxo bat erosi zuen Harotik hurbileko herritxo batean eta geroztik, Errioxaren lagun bereizezinak bihurtu ginen, Jesús Mariren pozerako. Han oso zoriontsua izan zen, batzuekin eta besteekin hitz egiten, ibilaldi luzeak egiten, leihoren bat margotzen, etxean konponketak egiten, bere koadrilarekin bazkari amaigabeak antolatzen eta sukaldeko agintea hartzen... Bera arduratzen zen familiarentzako paella eta errekiak prestatzeaz, izan ere, eta hori ere esan beharra dago, oso sukaldari ona zen eta aldi berean edozein girorako saltsa. Dena den, Errioxan lagunekin gozatzen hasi baino lehen, egunero Udaletxeko dokumentuak irakurtzen zituen; oporretan ere izan zen bere lan publikoarekin arduratsua.

Oso gazte ezagutu nuen, oraindik galtzerdiak eramaten nituenean, hamahiru urte bete berrirekin. Ekainaren hamahiru batean izan zen, San Antonio egunean eta Durangoko jaietan, eta momentu hartatik ez ginen inoiz banandu. Asko izan ziren erakarri ninduten gauzak, urteak pasa ahala amodiozko irudia osatu zutena. Bere lagunek ni bezala pentsatu zuten, batez ere bere eskuzabaltasuna eta besteak laguntzeko nahiari zegokionez. Hilabeteen behin adineko pertsonen sozietate gastronomiko batean janaria prestatzen zuen, maite zuen pertsoneri laguntzea asko gustatzen zitzaiolako, eta horiek asko eta oso ezberdinak izan ziren.

Zorigaitza bere heriotzaren bi edo hiru urte lehenago hasi zen, terroristen tregoa bat bukatu ostean. Denbora tarte horretan ez ziguten bizitzen utzi eta egunero terrorismoa defendatzen zutenak gure etxera etortzen ziren gure bizitza izorratzera. Manifestaldietan gure portalera etortzen ziren, etengabea telefonoz deitzen gintuzten kristorenak iragarritz eta gutunontzian mehatxuzko gutunak uzten zituzten. Inoiz ez nion politika utzi behar zuela esan, hori bere bizitza zelako, bere arrazoia goizero altxatzeko.

Guztiok batera gozatu genuen azken Gabonetan berriro ere botila huts bat jaso genuen, presoak kartzeletan jarraitzen zuten bitartean bera jomuga zela esan nahi zuena. Urte latzak izan ziren, zeinetan defendatu ezin izan ginen, batez ere gure alabak. Txikia (dagoeneko hamazortzi urte bete zituena) psikiatra batera joaten zen oso maiz, tentsio itogarriari eusteko

laguntzaren bila.

1999ko Gabonak jasanezinak izan ziren. Terroristek Durangoko alde zahar osotik itunak margotu zituzten Jesús Mariren izenarekin, “hurrengoa zu zara” testuarekin. Gure alabetako batek bere aitarekin borrokatu ere egin zuen, familia horrela ezin zuela jarraitu esanez, bonbaren bat jarriko zietela edo zerbait larria gertatuko zitzaiela sinesten zuelako. Baina azkenik amore eman zuen eta modu tazituan kontu horri buruz gehiago ez hitz egitea erabaki genuen. Terrorista horietako bat bere kideen txaloen artean gure etxera etorri zenean mehatxuzko gutun bat entregatzeko ere, ez genuen ezer esan. Ateko behatxulotik telebistako kamarekin zetozeela ikusi nuen, irainak grabatzeko asmoz, baina ez nien atea ireki.

Jesús Marik, horrelako gertakarien aurrean autonomia poliziari deitzen zion, beti berandu iristen zena, morroiak jadanik alde egin zutenean. Behin batean ere talde ugari bat hurbildu zen etxeko espalaira, pankartekin leihoetara harriak botaz eta belak lurrean jarriz, gorrotoz beteriko irainak botatzen zizkiguten bitartean. Denbora oso luzez iraun zuen izuaren irudikapen horrek, baina beti bezala polizia berandu heldu zen.

Egun benetan gogorrak izan ziren eta egunero kristorenak pasatzen genituen. Gure etxetik oso gertu Institutua zegoen, nondik gazte erradikalak maiz etortzen ziren garaiz kanpoko nazionalismotik jaiotako arima ustelduta zutela gogoratzerik. Jasanezina izan zen. Batzuetan ere beste auzokideek gazte terrorista horien ondorioak pairatzea nire errua zela pentsatzen nuen.

Ordea, atalondoko auzokide guztiak ez ziren pertsona onak izan eta oraindik gaur agurtzen ez nauen baten bat dago. Egun batean gure etxe aurrean pankarta bat jarri zuten Jesús Mariri gaitzik handienak desiratuz, eta hori egiteko auzokideren baten laguntza beharrezkoa zuten. Bere bizitzako azken hilabeteak ilusioz gainezka bizi izan zituen, poz-pozik Ainhoa gure alaba nagusiaren ezkontza prestatzen genuelako.

2000 urteko ekainaren lauan bizkarretik hil zuten, mezara joan eta Durangoko batzokian bere lagun batzuk agurtu eta gero. Askok esan zidaten, baita zinegotzi erradikalen batek ere, bere hilketa ulertezina zela, beste arrazoiren artean Jesús Mari herriko zinegotzirik onena zelako, eta ezaguna zelako bere xedea besteak laguntzea zela, zein alderdiren alde bozkatzeko.

zuten pentsatu barik. Nire senarraren hilketa gaitzesten ez zutela ikustean Durangoko alkate nazionalistak terroristen alderdiarekin zeukan gobernu-ituna haustea erabaki zuen. Oso gizon maitatua izan zen. Baina bere hilketarekin ez zen tragedia bukatu eta etxean telefono deiak jasotzen jarraitu genuen, horrelako gauzak esanez: p...semea hilik zaude jada, horman zaude jada... Telefono konpainiak zenbaki berri bat eman zidanean, gidaliburu publikoetan agertzen ez zena, pixka bat lasaitu ginen, eta tentsio eta mina nolabait murriztu zen.

Handik gutxira prentsan agertu zen terrorista batzuk bonba bat manipulatzeko zuten bitartean hil zirela eta haien artean Jesús Mariren hiltzaileak zeudela. Biak Durangokoak ziren eta haietako bat gure iloba baten koadrilakoa zen.

Orain nire alaben maitasuna besterik ez zait geratzen, bere besoetan hainbeste maitasunez kulunkatu zituen alabak, eta oraindik umeak diren biloben ilusioa. Eta oroitzapenak, gazteak eta itxaropentsuak ginenean Durangaldeko mendietatik elkarrekin egindako ibilaldienak, bere irribarrearenak, eta bere izaera alaiarenak, inoiz galdu ez zuena, ezta gure bizitza izurridun batena zirudienean ere.

Hamahiru urterekin begiratu ninduen lehenengo momentutik jakin nuen nire adiskidea izango zela eta nire arima adiskidea izaten jarraituko du azken hatsera arte.

MANUEL INDIANO AZAUSTRE

(1970-2000)

Oso pertsona gutxi dakite gure familia ingurunetik kanpo Manuelen amaren lehengusina naizela eta gainera bera baino urte batzuk nagusiagoa naizela. **MANUEL** 1970ko urriaren hamazortzian jaio zen Madrilen, eta esan daiteke ia ez genuela elkar ezagutzen, harremanetan hasi eta nirekin Zumarragara bizitzera etorri zen arte. Gure familiak Espainiako leku ezberdinetan bizi zirenez, ezohiko familia-ospakizunen edo hiletaren batean baino ez ginen elkartzen. Hala gertatu zen Manuelen amonaren hiletarako Madrilera joan nintzenean. Horren ondoren urte bat igaro zen Manuelekin berriro topo egin nuen arte. Orduan, nire jaioterrirako bidean, hiru edo lau egunez bere gurasoen etxean geratu nintzen.

Bere aita Valencia del Ventoso izeneko herrikoa zen, Badajozeko probintzian, eta bere ama, nire familia zetorren herri berberekoa, Alcaudete, Jaeneko hego-mendebaldean. Guztiak ingurune xume eta langileetatik gentozen, zeinetan lanean jo eta ke aritzea gauzarik naturalena zen. Manuelen amona oso gazte alargun geratu zen eta Madrilera joan zen bere alabekin, horien artean, Manuelen ama. Han taberna ezberdinetan sukaldeko laguntzaile gisa lan egin zuen eta giro xume horretan joan ziren bizimodua ateratzen. Manuelen gurasoak ezkondu zirenean, bere amona euren etxera mugitu zen eta denborarekin seme gaztearen eredu bilakatu zen, bere gogoia altxatzen zuena. Manuelek asko sufritu zuen bere amona hil zenean.

Nire aita 1960an heldu zen Zumarragara bere anaien bideari jarraituz, jatorrizko herrian aurkitu ezin zuen lanbide baten bila. Nire ama ile-apaintzailea izan zen berrogei urtez, baina momentu batean ez zen gehiago lan-erritmo horrekin jarraitzeko gai izan, hankak nekatzen zitzaizkiolako. Aitak Urola ibaiko haranean lan egiteko tokia aurkitu zuen, hain zuzen ere siderometalurgia sektoreko enpresa batean, eta horren inguruan bizitza antolatzea lortu zuen. Ama, bitartean, herrian geratu zen ni jaio arte eta azkenik mundura etorri nintzenean aita gure bila etorri zen eta nire anai-

arrebekin batera Espainiako iparraldera eraman gintuen.

Zumarraga eta eskualdeko paisaia oso ederra da; ez da harritzekoa gure lurraldera etortzen diren bisitariak Gipuzkoako edertasunarekin miretsita geratzea. Hain zuzen ere hori gertatu zitzaion Manueli lehenengo aldiz bisitan etorri zenean, gurekin hamabost eguneko oporrak pasatzeko. Ingurune horrek zeharo liluratu zuen, hain zen polita bizitzak irribarre egiten zigunean! Gure etxetik ibarreko parte garaia ikusten zen eta nire alaba txikiaren amabitxiaren baserritik, Gipuzkoa erdia.

Euskadi sakona deitu zion Manuelek horrenbeste miretsi zuen paisaia horri. Laster gurekin bizitzera etortzea erabaki zuen, ondorio guztiak onartuz, momentu batzuetan herriko giro sozialean betiko nazionalista erradikalek eragindako amorrua hauteman ahal zen arren.

Gogoratzen dut 1996ko iraileko hilabete horretan Manuel gehiago ezagutzen ari nintzenean, asko harritu ninduela bere logelako armairu batean Euskadiko pegatina bat ikusteak. Nire harriduraren aurrean, hamarkada batzuez geroztik pairatzen ari ginen terrorismo-arazoak arduratzen zuela esan zidan, eta konpontzeko zerbait egitea gustatuko litzaiokeela. Orduan ezin genuen beranduago gertatuko zitzaiguna imajinatu ere egin.

Manuelek Madrilen egin zituen goi-mailako ikasketak, Telekomunikazio ingeniartzaren adarretako batean. Oso trebea zen mekanika kontuekin eta noski, elektrizitate edo komunikazioekin zerikusia zuen guztiarekin. 1996an Euskadin ezarri zenean bere alorrean lanposturen bat aurkitzea erraza izango zela pentsatu zuen, baina ez zen horrela izan eta oso txarto pasatu genuen.

Ordurako, ni urte asko neramatzan ludotekak eta Zumarragako Udaletxeko gelak garbitzen zituen zerbitzuarekin lanean. Hori dela eta, zinegotzi ugari ezagutzen nituen, horien artean Valeriano Martínez eta Faustino Villanueva, Alderdi Popularreko zinegotziak. Valeriano alderdian denbora gehien zeramana zen. Aurretik UCDko militantea izan zen eta geroztik asko sufritu zuen, terroristen jazarpenaren ondorioz. Manueli buruz hitz egin eta bere sektorean langileren bat behar zuen inguruneako enpresarik ezagutzen al zuen galdetu nion. Manuelekin elkarrizketa bat izan

zuen eta azkarra eta trebatua zela eta bere adopzio-herriari laguntzeko gogoak zituela ikusita, bere alderdiko zerrendan udal-hauteskundetara aurkezteko konbentzitu zuen. Berria jasotzean bihotzeko bat izateko hurbil egon nintzen, ordurako alderdi popularreko hamaika lagun hil zituztelako jadanik.

Ez dakit Valeriano edo beste pertsona baten bitartez izan zen edo ez, baina Manuelek garbiketa industrialeko enpresa batean lana aurkitu zuen. Zoritxarrez denbora gutxi igaro zuen bertan, lan-istripu batek, nahiz eta garrantzi txikikoa izan, berriz kalean utzi zuelako. Gauza hauen artean, 1999ko hasieran beste lanpostu bat aurkitu zuen baina bertan behera utzi behar izan zuen; egia esan kaleratu zuten, ez ziotelako lanera alderdiak jarritako eskoltarekin joaten uzten. Manuel depresio izugarri batean sartu zen, txarto pasatu genuen, oso txarto, bere kaleratzea mespretxagarria zelako eta, bestalde, ekonomiari zegoikionez nire garbitzaile soldatarekin bizi ginelako. Pertsona alaia izatetik, bere lagunekin beti pozik zegoena, hain ondo prestatzen zuen Madrilgo eltzekoaren inguruan, goibeltasunaren atsekabea pairatzen hasi zen.

Momentu batean Faustino Villanuevak, zerrendako bigarrena, bere eserlekua uztea erabaki zuen, bere ahalegin guztiak toxikomanoen errehabilitazioan jartzeko, eta Manuel Alderdi Popularrak irabazitako bi zinegotzigoetako bat hartzera pasatu zen. Zerrendako seigarrena zen eta, beraz, hiru pertsona zituen aurretik, ulertuko denez kargua onartu ez zutenak. Manuelek baietza eman zuen ziur zegoelako langabezian zegoen gizon batek, leku guztietan ezezaguna zena, batez ere Zumarragan, inoiz ez zuela inoren atentzioa erakarriko, ezta terroristena ere.

Zinegotzi bezala onartu zutenean asko larritu ninduen bihozkada sentitu nuen, baina pasatzen utzi nuen, ilusioz beteta ikusten nuelako. Bere samurtasunean, bere adopzio-herriaren alde lan egiteagatik auzokideek gehiago maitatuko zutela ere uste egin zuen. Manuel irekia eta atsegina zen eta ez zuen inoiz inorekin arazorik izan. Mundu guztiarekin hitz egiten zuen, nazionalista erradikalekin ere, baina ez zekien Espainiako iparraldean batzuk neurridunak zirela beraien koadriletan lagun berriak onartzerako orduan.

Herrira iritsi berri zenean, egun batean plazara joango zela esan zidan,

koadrilek poteoa hasten zuten orduan, lagunak egin eta pixka bat gehiago integratzeko. “zein gutxi ezagutzen duzun nire lurraldeko jendea”, pentsatu nuen nire barnerako, eta laster etxera bueltatu zen inorekin berba egiteko gai izan ez zelako, inork ez baitzion jaramonik egin. Bere auzokideen inbidia osasuntsua sentitu zuen, euren sozietate gastronomikoetan, koadriletan eta afarietan gozatzen ikusten zituelako.

Zer egin ez zekienez, gozoki denda bat erostea erabaki zuen eta bertan jarri genituen gure ilusio guztiak. Bi urte zeramatzan Zumarragan eta herrian integratzeko eta nirekin familia bat osatzeko gogoek erronka gogorrak onartzeko adorea ematen zioten. Dendatxoa berritu genuen, baimen ezberdinen aitzakiak erabiliz Udaletxeak jarri zizkigun oztopoei aurre eginez, apaindu, ogia egosteko makina instalatu eta loro bat ere erosi genuen, umeak nolabait erakartzeko. Kokolo izena jarri genion eta ahalegin handien ondoren, San Juan egunean ireki genuen, publikoaren artean arrakasta eta kritika bikaina lortuz.

Harrigarria izan zen. Manuelek umeak erakartzen zituen txikienek Hamelingo txirulari berria balitz bezala, euren ahoak dendako gozokiekin eztatzen zituen. Manuelek erretratudunei ere itxaroten zien etxera bueltatzen zirenean eta, zigarro bat ahoan eta txiste eta barre artean, gozoki eskukadatxo bana ematen zien.

Hala ere arrakasta hasiberriarekin batera, kezka ere iritsi zen; izan ere, eskolta batek negozioa zaintzen zuen bitartean egin behar izaten zuen lan. Hainbeste ume erakartzen zituen lokalean zerbait gertatzearen beldur zen.

Gainera, ordurako bere izena nazionalismo erradikalaren aldizkari batean argitaratua zen jada eta inguruko herrietan ituen pintadak agertzen hasi ziren, bere izenarekin. Dei oso arraro bat ere jaso genuen eta asko sufritu zuen. Momentu honetan gure segurtasuna arriskuan ikusi zuela uste dut eta zinegotzi kargua utzi nahi zuela esan zuen.

Denbora tarte horretan, bere izena argitaratu zutenetik hil zuten arte, erabat sufritu zuen bere barnean. Tentsioaren ondorioz, hainbat kilo galdu zituen. Ni ahal nuenean laguntzen saiatzen nintzen eta gure lagun zintzoek ere animoak ematen zizkieten euren komentario gogotsuekin. Dendako atzealdean sukalde txikitxo bat instalatu zuen, baina ez genuen gehiegi

erabili. Nik berarekin bazkaltzen nuen eta, ahal nuenean, bulegoan laguntzen nion ogia egiten, handizkariei eskariak egiten, baina, benetan, nire eginkizuna denda garbitu eta txukun jartzea zen. Egia esan, ezin nuen gauza asko gehiagorik egin, gure lehenengo alabaren zain geundelako, nire bigarrena, aurreko harreman batetik hamabost urteko beste alaba bat nuen eta. Ondo zetorkidan denda atzealdeko lasaitasuna, nire ohiko lanarekin jarraitzen nuelako eta etxera nekatuta eta ohiko goragaleekin iristen nintzelako. Uda horretan gainera, bero jasanezina egin zuen.

2000ko abuztuaren hogeita bederatzian, hiltzaile nazionalistek gure lokalean hil zuten, dozena bat pistola tiroren bitartez, eta ni ere hil egin ninduten, baina barrutik, bizitzeko gogorik gabe geratu nintzen. Jainkoari eskerrak gure alaba bi hilabete beranduago jaio zen, eta maitasuna eta errukia eskatzen zuen aurpegitxo hori ikustean bere aitaren aurpegia ikusi nuen, Manuelena, nigatik guztia utzi zuen aparteko gizonarena.

Nik hainbat maitatu nuen Manuel eta baita berak ni ere. Beti elkarrekin joaten ginen leku guztietara eta nahiago nuke berarekin dendara zorigaiztoko goiz horretan joan izana, ezer gertatu izango ez litzakeela pentsatu nahi dut eta. Baina batek daki, agian ni eta orduan nire erraietan bizi zen alaba ere hil egingo gintuzten, María deituko zena berak hala nahi zuelako. Zailtasun ekonomikoak izan eta lurralde honetako politika gu iluntasun sakonean hondoratzen saiatu zen arren, bikote zoriontsua izan ginen. Pertsona bat hiltzen denean, eta are gehiago era bortitzean bada, beti esaten da pertsona ona zela, baina Manuelen kasuan bereziki, hori egia da. Aparteko pertsona izan zen eta ziur nago ezinezkoa dela mundu honetan bera bezalako beste inor aurkitzea. Euskadin bera bezalako jende gehiago balego, seguruenik ez nuke horrelako hausnarketarik egin beharko.

Beti gogoratuko Pedro garbitzailearekin ibarreko bidexketatik ematen zituen paseoak, edo beste batzuetan bakardadean, gure txakurraren zaunken melodiaren konpainiarekin soilik; bere irribarrea baserrietan egiten zituzten ogi biribilen usain gozoaz mintzatzen zenean edo hainbeste miresten zituen ardiak mendi-hegaletan bazkatzen ikusten zituenean; bere nostalgia hemen jaio eta gure paisaia izugarriez txikitatik gozatzeko aukerarik ez izateagatik.

Gauza hauek guztiak kontatzen dizkiot bere alabari, oraindik umea dena, bere aitaren bihotz maitekorrarekin samindu dadin, berea egin nahi izan zuen lurraldean itxaroten gaituena, heriotzara eramán zuen lurra.

JOSÉ MARÍA MARTÍN CARPENA

(1950-2000)

JOSÉ MARÍA hegoaldean jaio zen, bere familia guztia bezala, Malagako hirian, 1950eko apirilaren hemeretzian. Lurralde hori oso hunkigarria da niretzako, Malagakoa ez izan arren, kale horietan bizi delako eta bizi izan zelako bizitza honetan gehien maitatu dudan hori. Ni Galizian jaio nintzen 1949an, nire aita guardia zibil moduan lan egiten zuen lekua. Oso txikia nintzenean (oraindik ez nituen lau urteak bete) aita lekualdatu zuten eta denak Mediterraneoaren gerizpera etorri ginen.

José María familia xume batetik zetorren, ni bezala. Bere aita RENFEko langilea zen eta enpresa horretan igaro zuen bizitza osoa urte mordoaz lan gogorra egin ondoren erretiroa hartu zuen arte. Euren betiko etxean ezagutu nituen, Gamarra auzoan kokaturiko etxe apala, La Purísima elizatik oso hurbil, hiriaren iparraldean. Lehenengo momentutik erakarri ninduen familia horren izaerak; nabaria zen José María eta bere anaia Ángeli gurasoetatik zetorkiela bihotz ona.

José María El Buen Pastor eskolan hasi zen ikasten, bere etxetik oso hurbil, eta han egon zen emaitza onekin oinarrizko batxilergoa amaitu zuen arte. Goi-mailako batxilergorako ikastetxez aldatu eta Virgen de la Victoria-ko institutuan izena eman zuen. Aldi berean, goizean ordenantza bezala lan egiten zuen Itsasoko Gizarte Institutuan, orduan Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren menpeko erakundea zena. Zegozkion oposizioak gainditu ondoren lortu zuen ordenantza lanpostu hori. Urte horietan ohikoa zen familia xumeetako gazteak laster ernatzea eta José Mariak, zentsu horretan, jarrera ezin hobe izan zuen. Inoiz ez zuen bere bizitzaz kexarik izan eta lan kaxkarrak egin behar izan zituenean ere ez zituen eratzunak galdu. Oso arduratsua izan zen eta harro zegoen bere familia-ekonomiarentzako zama ez izateagatik. Beti burua gora begiratu zion bizitzari.

Zaletasun ugari zituen eta horietatik aski seguru musika izan zen bere

lehenengo gaztaroan denbora gehien kendu ziona. Hiru lagun onekin talde bat osatu eta *Los Amables* deitu zuten, formazioaren izaera leialki islatuz. Berak gitarra akustikoa jotzen zuen eta hainbat abestitan ere ahotsa jartzen zuen. Nik askoz beranduago ezagutu nuen, ahalegin guztiak lanean jartzeko helburuz musika taldea utzi zuenean.

Bereziki neketsua izan zen Itsasoko Gizarte Institutuan ordenantza moduan lan egin zuen garaia, aldi berean Martiricoseko Merkataritza Eskolan idazkaritza ikasketak bukatu eta zentro horretan administratibo izateko oposizioak prestatu zituelako. Asko lan egin zuen, eta are gehiago ikasi, eta azkenean, azterketa gainditu zuen. Intentsitate handiko sasoia izan zen; goizean lan egin, arratsaldean ikasi eta amaitzean, gaua hasten zenean, musika taldearekin saioak egiten zituen. Asteburuak familiarekin igarotzen zituen, hainbeste miresten zituen gurasoekin, eta igandeko mezara joaten zen; batzuetan ere, festetan jotzen zuen. Urteak pasatu arren, José Mariák ez zituen inoiz erlijioari buruzko ideiak aldatu, eta zentzu horretan ezerk ez zion bere gurasoen bihotzetik ikasitako guzti hori galarazi.

1976an ezagutu eta hiru urte beranduago ezkondu ginen San Vicente de Paúl elizan, irailaren 15ean. Pozarren atera ginen elizatik eta hastear zegoen abenturagatik ezin zoriontsuago. Gaur esan dezaket, hainbeste urteren ondoren, elkarrekin igaro genituen egunetako bakoitza esperientzia ikaragarria izan zela.

Gamarra auzoan bizitzea erabaki genuen, bere gurasoen eta Ángelen (bere anaia) etxetik hurbil. Denborarekin, nire neba-arreba eta gurasoak ere inguru honetara mugitu ziren.

Ezkondu eta hiru urte beranduago gure alaba ederra jaio zen, María José, fisikoa eta izaerari dagokionez bere aita bezalakoa zena. Momentu hartan José María munduko gizonik zoriontsuena zen.

Gizon ona izan zen beti eta oso erraza zen berarekin ados egotea, adeitasunaren dohaina zuelako, besteak maitasunez betetzeko ezaugarri berezi hori. Bestalde bere izaera barea eta zuzenari esker, lasaitasuna ekartzen zuen bere ingurunera eta edozein egoeratan arazorik ez egotea lortzen zuen, Limoneroko presa gainbeheratzen ari bazen ere, eta hori ez zen huskeria...

Zurgin edo bestelako gremioko langileren bat kontratatu baino lehen, etxeko konponketak berari egitea gustatzen zitzaion, erreminta kutxarekin oso mainatsua baitzen. Agian horrek ere bere gogo-aldarte pazientearekin zerikusia zuen. Horregatik bizi gara oraindik etxe berdinean, José Mariarekin hainbeste urtez konpartitu genuena. Denak hitz egiten digu berataz. Edozein txokotan bere konponketen apartekotasunarekin topo egiten dugu, edozein konponbideren arrazionaltasunarekin, olio teknikarekin margotutako koadroekin... Bere eskulana leku guztietan bizirik dago eta berarekin, bere oroitzapena eta gureganako izugarrizko maitasuna...

Eta oso dibertigarria zen. Giroa alaitzen zuen, eta era naturalean egiten zuen gainera, ez zuen algara handirik sortzeko beharrik gure bileretan gatzat jartzeko.

Laurogeita hamarreko hamarkada erdian izan zen berarekin administrazioan lan egiten zuen Alderdi Popularreko lagun batek bestek laguntzeko bere bizitza konplikatzera animatu zuenean. Helburua malagarren bizitza hobetzea zen, biztanleak zuzenean eragiten zituzten gauza horientzako konponbide politikoa bilatuz. Jarduera bizkorra behar zen hirugarren adineko behardunenei bizilekua emateko, hiriko eremu batzuetako saneamendua hobetzeko, kaleak garbitzeko eta hiriko hainbat eta hainbat kontu gehiago konpontzeko. Baietz esan zuen; izan ere, beti gustatu izan zitzaion zeregin praktiko eta erabakitzaileetan esku hartzea.

Hasiera batean asko harritu ninduen nire senarra alderdi politiko batean esku hartzen ikusteak, momentu horretara arte inoiz ez baikenuen zentzu horretan adierazpenik egin. Ez genuen inon militatzen eta gure alaba ere ez zen inolako gazte erakunderen kide. Familia arrunta ginen, ideia sozial kontserbadoreak dituen familia baten jarrera tipiko eta normalarekin, bizitzaren abenturan eta gure herri eta nazio handiaren garapenean alboan zeuden horientzako hoberena besterik nahi ez zuena. Baina, jakina, hasieran bere aisialdian bilera batzuetan besterik parte hartzen ez zuen arren, laster konpromiso pertsonal irmoa hartu zuen proposatzen zituen konponbideekin. Eta batzarren batean bere iritzia ematetik Alderdi Popularreko kide aktibo izatera pasatu zen, bere esku hartzearekin Malaga hobia eraiki zitekeela ikusten zuelako. Oso lan ona egin zuen eta bere kide berriek José María ausarta eta eraginkorra zela ikusi zuten. Hortaz, 1995ko

hauteskundeetan Alderdiaren udal hautagaitza gizentzea proposatu zioten hamaseigarren postua hartuz, zerrenda betetzeko helburu hutsarekin. Posturik lortzeko xederik ez zuenez, ideia ona iruditu zitzaion.

1997an, Juan Manuel Moreno Bonilla, legealdi horretan zinegotzia zena, Andaluziako Juntara mugitu zen eta José Maríak bere lekua hartu zuen. Horrela, hurrengo hauteskundeetan (1999) hautagaitza errepikatu zuen eta Udaletxean zinegotzi bezala lan egiten jarraitzeari zer generitzon galdetu zigun. Ondo iruditzen zitzaigula esan genion, ilusio handia zuela ikusten baikenuen. 2000 urtean Celia Villalobos alkatea Osasun Ministro bihurtu eta Aznarren gobernu taldera pasatu zen, Francisco de la Torre egungo Malagako alkateari lekukoa utziz.

Orduan, nire isiltasunaren sakontasunean kezka itzala piztu zen. Izan ere, ezkondu eta urte batera nire aita, guardia zibila zena, Donostiako Intxaurrondo kuartelera bidali zuten, ekintza terrorista ugari egon zen lekua. Eta nire senarraren jarduera politikoak urduritasun hori gogora ekarri zidan urteak pasa eta gero.

1995ko urtarrilean Gregorio Ordóñez hil zuten, 1997ko uztailean Miguel Ángel Blanco gizajoa, abenduan José Luis Caso eta 1998ko urtarrilean Sevillan Jiménez Becerril bikotea. Hilketak guzti hauengatik min ikaragarria sentitu genuen. José María eskolta batekin bizi behar izan zuen terroristek su-etena deklaratu arte. Bitartean nik nire barnerako pentsatzen nuen terrorismoa Málaga iritsi ezin zela, Espainiako beste hiriburuen aldean oso garrantzi txikia zuelako.

Noizbait gertatzen ari zenari buruz hitz egin genuen, baina esaten dudanez guztiz ziur geunden ezer txarrik gertatuko ez zitzaigula. Hala ere, ezinbesteko segurtasun neurriak gordetzen genituen, kotxe azpian lehergailurik ba al zegoen begiratzea, adibidez.

José Maríak bitartean poz-pozik jarraitzen zuen udalbatzan lanean. Denbora tarte horretan, 1997tik aurrera, Puerto de la Torre eta Carretera de Cádiz-eko Juntaren presidentea izan zen (azken hau Malagako barrutitik jendetsuena ehun eta berrogei mila pertsonekin). Era berean, komisio garrantzitsu ugariaren kide izan zen: Hirigintza, Etxebizitza, Trafiko, eta abar. Etxera berandu iristen hasi zen, bere eginkizunek denbora gehiegi kentzen

ziotelako eta beti itxaroten genion, nekearen ondorioz gure alabak maiz loak hartzen zuen arren. Orduan bere logelan sartu eta isiltasunean muxu bat ematen zion, samurtasunez, segundo batzuez begiratzen zuen bitartean; gero atea itxi eta bera ere atsedean hartzera joaten zen.

1997tik hil zuten arte besteen alde lan egiten aritu zen. Tarte horretan, Udaletxean ezkontza zibil mordoren lekuko izatea tokatu zitzaion. Ezetz esaten ez zekienez, bere lanalditik kanpoko ezkontza ugariez arduratu behar izan zen, baina beti pozik egin zuen, nahiz eta bere erlijio ideien aldetik edozein ezkontzaren lekukoa apaiz bat izatea nahiago izan. Kontu honetan gainontzekoetan bezala, oso errespetutsua izan zen besteen ikuspuntuarekin; besteen ideiak berarekin bezain baliozkoak zirela uste zuen, betiere eskubide zibilak errespetatzen bazituzten. Ezkontzak beti asteburuetan egiten ziren eta maitasun handiz prestatzen zituen. Zeremonian gure literaturaren klasikoren batetik harturiko hitz politak irakurtzen zituen, ezkonberriek hasiko zuten bizitza komunarekin lotuta. Eta amaieran, zeremonia bukatzen zenean, Udaletxetik atera eta gure bila etortzen zen, guztiok batera gure gurasoak ikustera joan eta asteburuaz gozatzeko.

Horrelakoa izan zen gure bizitza, normala eta sinplea. Samurtasunez gogoratzen ditugu familia-txangoak, udako oporrak Mallorkan eta nire neba eta euren seme-alabekin Ciudad Jardín polikiroldegian ikusten genituen Malagako Saskibaloi Taldearen partidak. Beste hirietara ere joan ginen gainerako zaleekin taldea animatzeko. Horregatik, bere izena jarri zioten beranduago inauguratu zen kiroldegi berriari, malagarren memorian gera dadin.

2000ko uztailekoa oso arin gertatu zen. Etxean Udaletxeko kotxe bat zegoen gure zain, José María ekitaldi instituzional batera eramateko. Autora igo baino lehen, pertsona bat hurbildu zitzaion eta bere aurka tiro egin zuen hainbat aldiz. Broma bat zela pentsatuz, errieta egin nion. Nire alaba eta biok dena ikusi genuen. Benetako egoeraz ohartu nintzenean, alaba bistaz galdu nuen. Beldurrak hartuta, autoen artean ezkutatuta zegoen. Eta horrela izan ginen izua, ikara eta ezintasunaren lekuko, nire senarraren bizitza zurrustaka ihes egiten zuela ikusten genuen bitartean, ezer egin ahal izan barik. Eta horrela, bere auzokideen alde lan egiteagatik, hil egin zuten euskal hiltzaile nazionalistek.

Hileta eta malagarrek hilketa gaitzesteko egindako manifestaldiaren ondoren (bizi naizen bitartean eskertuko dudana), isiltasuna iritsi zen, hutsune existentzial batean hondoratu ninduen min jasanezina, askoren laguntzari esker urteekin gainditzen noana. Hiltzaile baten borondatez José María gurekin gehiago izango ez zela pentsatzea jasanezina egiten zitzaidan, ezin nuen ulertu.

Bere bizitza eta alaitasunarekin gure bizitza betetzen zuen. Horregatik ez dugu etxe honetatik alde egin, txoko bakoitzak bere oroimenera eramaten gaituelako.

JOSÉ LUIS RUIZ CASADO

(1958-2000)

Gure familiak bizimodu hobe baten bila batetik bestera ibiltzen diren giza-taldeen mugikortasunaren adibide bat gehiago dira. José Luisen gurasoak, jatorriz Kordobako ipar-ekialdean kokaturiko herri batekoak, Kataluniara mugitu ziren berrogei eta hamarreko hamarkadaren hasieran, Bartzelonara hain zuzen ere, eta bertan ezarri ziren.

JOSÉ LUIS Bartzelonan jaio zen, 1958ko abuztuaren hiruan. Laster bere familia Sant Adrià de Besòs-era lekualdatu zen eta hiri horretako gabrielisten kongregazioaren menpeko Sagrado Corazón ikastetxean ekin zien lehen mailako ikasketei. Geroago, Bartzelonan egingo zuen goi-mailako batxilergoa.

Unibertsitatea hasi bezain laster, José Luisek kolpe gogorra jaso zuen bere aita hil zenean. Ondorioz, Ekonomia ikasketekin batera, etxean laguntzeko lan egiten hasi behar izan zen. Hala ere, soldadutza dela eta lan bizitza hori eten behar izan zuen. Bukatu bezain laster bere lanpostura itzuli zen, Bartzelonako inportazio eta esportazio enpresa batean. Bertan, nazioarteko lurreko garraioaren mundua ezagutu zuen eta horri esker, beranduago zama-bolumen handien nazioarteko garraioan espezializaturiko *Thyssen Haniel Logistic*, S.A. Alemaniako enpresa handiaren Zuzendariondoko bilakatu zen.

Urteekin, ABX LOGISTICS ESPAÑA Sozietate Anonimoak (Belgika) enpresa hori xurgatu eta José Luis Lurreko Trafiko Zuzendaria izatera pasatu zen. Azken aro horretan Antonio Gutiérrezen lagun egin ginen, familiakoa balitz bezala maite zuen pertsona. Eta sentimendu hori guri pasatu omen zigun, izan ere, izugarri maitatzen dugu oraindik eta bera eta bere emaztea Consuelo gure alboan egon dira azken urte hauetan.

Oso gazte ezagutu ginen, 1976an. Orduan kirolari handia zen. Haur-kategorian Espainiako futbol txapelketa irabazi zuen bere eskolarekin eta zaletasun horri eutsi zion heldua izan zen arte. Soldadutza egiteko Coruña

bidali zutenean Deportivo de la Coruña-ko beheko kategorietako talde batean jokatu zuen. Bukatzean era profesionalean futboleko jokatzeari eskaini zioten, baina bere sen onak uko egiteko esan zion. Denborarekin areto-futbolera pasatu zen, hain gogorra ez zena eta, gainera, bere lagunekin kontaktuan jarraitzeko denbora gehiago uzten ziona.

Oporretan eta neguko astebururen batean ere eskia praktikatzen zuen, benetan miresten zuen jardura. Canfranc-ko ibarreko eski-estazioetara, eta beranduago noizean behin Frantziara, lagunekin egiten genituen bidaietara (oraindik ez ziren Arianna eta Alejandro, guretzat Álex, jaio) Emilio, nire neba, etortzen zen beti. José Luis berarekin bat zetorren gauza mordoetan eta bereziki kiroltarako zaletasunean. Hala ere, konponbiderik gabeko desadostasun bat zeukaten: José Luis beti Bartzelonaren zalea izan zen eta nire neba erabat madrildarra. Umeekin elurretara joaten jarraitu genuen, baina Katalunia eta Andorrako pistetara. Han ikusi genuen nola hazi eta euren aitaren presentziaz gozatzen zuten.

1982an ezkondu ginen, elkarrekin hasi genuen abenturako funtsezko eta garrantzitsuenari hasiera emanez; gure bi seme-alabak handik gutxira jaio ziren eta euren irribarrearekin gure bizitzak alaitasun eta zorionez bete zituzten.

José Luis gizon dibertigarria zen. Berarekin lehenengo aldiz hitz egiten zutenek gizon serio baten jarrera antzeman zezaketen arren, umore-sen ironiko eta fina zuen. Baliteke bere aurpegiak errespetuzko irudi hori transmititzea, baina ez zen horrelakoa. Berarekin barre asko egin dut, bizitza honen alde dibertigarria ikusteko eta gauza positiboak aurkitzeko prest baitzegoen beti.

Hainbat urteetan zehar, bere lan beharrak zirela eta, enpresa-lidergoarekin zerikusia zuten gaiei buruzko prestakuntza jaso zuen, funtsean taldeak zuzendu eta giza talde oso ezberdinekin negoziatzen ikasteko, bere helburuak lortzeko xedez. Bere ideiak hobeto adierazteko, erretorika arina hartu zuen; edo hobeto esanda, hobetu egin zuen, beti izan baitzuen hitz egiteko erraztasuna eta bere oinarri pertsonalen seriotasuna zutenean erakusteko gaitasuna, kasu honetan enpresako munduari aplikatuta.

Bere lankideetako askok hilketaren ostean esan zidaten berataz beti

fidatu ahal izan zirela eta oso eraginkorra zela, besteen arazoak entzutean zuhurtasuna beti mantentzen zuelako, nahiz eta kontu oso konplexuak izan. Noski, bere lagunek bazekiten hori.

Laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran, egun batean esan zidan bere lagun on bati, Salvador (edo guk beti deitu diogun moduan, Salva), guztiok daukagun bizitza osorako lagun min horietako bat, Alderdi Popularrean enkoadratzea eskaini ziotela, bere denborarekin auzokideen arazoak konpontzen laguntzeko xedez. Kontua da lagun horrek gonbidapena José Luisi ere luzatu ziola eta biak baietz esateko asmoa zutela. Egia esateko, ideia horrek ez zitzaidan bat ere ilusiorik egin, batez ere segurtasun pertsonalari zegokionez gure bizitza aldaraziko zuela susmatzen nuelako eta José Luisek gure familiari eskaintzeko denbora gutxiago izango zuela pentsatzen nuelako. Hala ere bere erabakia errespetatu nuen, elkarrekin bizi ginen bitartean hartu zituen erabaki garrantzitsu guztiak bezala, maite nuelako eta egiten zuen guztia miresten nuelako.

Sant Adrià de Besòs-eko Udaletxean zinegotzi aukeratu zuten 1995eko kontsultan eta baita 1999koan ere. Nik gogo handiz ikusten nuen eta pozik, gobernu sozialistaren oposizioan egon arren bere kideek batzorde sektorial eta udalbatzarretan egiten zituen hitzaldiak aintzat hartzen zituztela ikusten zuelako. Denbora gutxian korporazio guztiaren errespetua lortu zuen, eta zinegotzi gehienek lagun mina egin zen, haietako batzuek ideia desberdinak izan arren. Bere negoziatzeko gaitasuna eta tokiko arazoak iritzi ezberdinak kontutan hartuz konpontzeko egiten zituen ahaleginei esker, pertsona oso maitatua bihurtu zen.

Injustizia eta basakeriak nire senarra eraman eta hamaika urte beranduago diktatzen ditudan adierazpen hauek, askoz aurretik igartzen ziren, Jesús Canga “Sito” alkatea eta bere kide ugari bere heriotzaren ondoren Sant Adriàk lankide ona, baina batez ere, pertsona on bat galdu zutela adierazi baino lehen.

Berak uste zuen politikaren bitartez (zeinean langile nekaezina zen), nahiz eta esku hartze txikia izan, askoren bizitzak hobetu litzakeela, batez ere hausnarketa egiteko aukerarik ez zutenen bizimodua.

Beti dotorea eta manera onekin, nabarmentzen diren pertsonetako

bat zen, besteen artean bereizteko keinu handirik behar ez duten horietakoak. Ostera, bere idiosinkrasia zintzoari esker, beti izan zuen umiltasun miresgarri bat, teorian politikari handiaren prototipoa irudikatzen duten ezaugarriak, hau da, bere balioak defendatzeko, ondokoa laguntzeko eta injustiziari fronte guztietan aurka egiteko ahalegin guztia egiten duen hori.

2000ko irailaren hogeita batean José Luis galdu genuen; gaizkileek bizkarretik tiro egin zioten, era bihozgabe eta zitalenean. Izan nezakeen adiskiderik onena galdu nuen, eta gure seme-alabek amets zezaketen aitarik onena. Zorigaiztoko egun hori iritsi zenean umeek hamahiru eta hamar urte zituzten... Zelako antza duten aitarekin!

1982an berarekin hasi nuen proiektua bizirik dirau. Zer esanik ez egunero gogoratzen dugula, bere usain gozoaren zantzuren bat aurkitzeko irrikaz bere libururen bat hartu eta usaintzen dugun momentutik, sukaldari penagarria dela gogoratu eta barre egiten hasten dugun arte (sukaldeak ez zion inolako interesik pizten); etxeko lanak ez zitzaizkion bat ere gustatzen, inor ez da perfektua, ez zen dohain horrekin jaio.

Oso familiakoa zen, hitzaren zentzu zabalenean. Bere amaren egoerari adi zegoen beti, izugarri miresten zuelako, eta bi familien gainerakoekin zuhurra eta arduratsua zen.

Lehenengo momentutik, aurretik geneukan bizitza berri eta elbarrituaz kontziente izan ginenean, José Luis familiaren oinarria izaten jarraituko zela erabaki genuen. Horregatik, bere objektu eta gauza pertsonal pila bat gorde ditugu, bere pertsonaz hitz egiten gaituztelako, bere izaeraren handitasunaz, eta bere ondoan guztiok batera, berak beti nahi izan zuen moduan, bizitzaz nola disfrutatu genuen gogorarazten digutelako.

Gaur egun, José Luisek oinordetzan utzi zizkigun balioak argi ditugu. Izan ere, orain inoiz baino gehiago, gure heroi partikularra izango da, ad aeternum.

FRANCISCO CANO CONSUEGRA

(1955-2000)

Nire senarraren familia lehenengo aldiz Kataluniara etorri zen bere aitak, bere jatorrizko La Carolina herrian (Sierra Morenan kokatuta, Jaen) meatzaria zena, gaixotasun baten ondorioz lurreko sakontasunean lan egiteari utzi behar izan zionean. **FRANCISCO** La Carolinan jaio zen 1955eko martxoaren hogeita batean, baina esan dudanez handik urte batera bere familia Espainiako parte honetara emigratu zuen, bizitza aurrera ateratzeko leku berri baten bila.

Terrassako eskualdean bizi izan zen bere familiarekin, Viladecavals izeneko herrian, eskola-graduatuak bukatzen zuen bitartean. Nolanahi ere, ikastea ez zitzaion gehiegi gustatzen eta bere familiaren ekonomia arintzeko independizatu beharra zuen. Beraz, lantegi batean sartu zen ikastun gisa, iturgin lanbidea ikasteko. Lehenengo momentutik lan horrengatik dena eman zuen, ahalegin izugarria jarritz eta profesional ona izanez. Denborarekin lagun batekin lantegi propioa ireki zuten, urte dezentez dozena bat langileri lana eman ziena.

Nik hirurogeiko hamarkadaren erdialdean ezagutu nuen eta lehenengo unetik bere izaeraren alaitasuna gustatu zitzaidan, bere lagun mordoarekin zeukan jarrera irekia, leku guztietan sortzen zuen giro ona. Gainera, garai hartan lanean oso serioa eta arduratsua izatearen ospea zuenez, bere lantegia iturgintza arloan erreferentzia zen herrian eta eskualdean.

1979an ezkondu ginen, eta hemen bizitzea erabaki genuen, hau gure alaben lurra izango zela jakinez. Gure alaba nagusia 1981ean jaio zen eta hurrengo bost urte beranduago. Haur lirainak ziren biak eta hunkigarria zen Franciscok bere alabak besoetan hartzen zituenean ikustea, laztanak eta amodiozko bestelako keinuak egiten. Eta horrela joan ginen gure bizitza egiten, lan handiaz eta egunerokotasunetik ateratzen gintuen gauza berezirik gabe.

Noizean behin atsedeen-egun urrietan lagunekin Huescako Pirinioetara

joaten zen erbiak, untxiak eta abar ehizatzeke, labur esanda, ehiza xehea. Poliki poliki ehiza alde batera utziz joan zen, gure alabek basoko animalia gizajoak defendatuz bere bihotza biguntzea lortu zutelako. Horren orde, alabekin mendi eta landetatik paseatzen hasi zen, perretxikoak, gari-esparragoak eta naturan bizi den guzti horren bila. Hori egitea ikaragarri gustatzen zitzaien eta umeetako batek abentura txiki horietan berarekin joaten jarraitu zuen ia hil zuten arte.

Franciscok alaitasuna ekartzen zuen gure etxera. Gure alabek izugarri maite zuten eta miretsi egiten zuten munduko gizonik dibertigarriena zelako. Ezaguna zen Francisco festaren batera joaten zenean zalaparta hasten zela, bera baitzen festaren arima. Ez naiz oroitzen zein urtetan, auzotar pila konbentzitu zituen guztiok batera mozorrotuta inauterietara joan gintezen. Ez dakit nondik atera zuen gorila mozorroa, baina bere inguruan egon ginen guztiok asko gozatu genuen gorila zoroarekin. Hain zegoen paperean sartura, autobuseko barretatik eta zumardiko zuhaitzetatik igotzen zela; bere jokabidea festa bat izan zen eta bere alaitasuna ez zen bat ere artifiziaia izan, bera zoragarria zelako.

Laurogeita hamarreko hamarkada hasieran, egun on batean esan zidan gure auzuneko arkitektura eta hirigintza arazo ezberdinak konpontzeko ikusten zuen modu bakarra barrutik jardutea zela, Viladecavals-eko Udaletxetik bertatik, eta bere burua zinegotzi aurkezteko asmoa zuela. Alderdi Popularreko norbaitekin hitz egin zuen, bere sentsibilitatetik hurbilen zegoen aukera zelako, eta 1995eko udal-hauteskundetara aurkeztu zen.

Modu erraz honen bitartez sartu zen politikaren munduan. Gure auzokideei eguneroko bizitzan enbarazu egiten zieten arazo batzuk konpondu nahi zituen eta lanean jarri zen. Francisco Alderdi Popularretik hautatu zuten zinegotzi bakarra izan zen, nire ustez, herrian oso ezaguna zelako eta auzokide mordoari konponketak egin zizkiolako. Jendeak profesional ona zela zekien eta gainera, pertsona ona zela uste zuen; horregatik konfiantza beregan jarri zutela uste dut. Eta egia esan, oso ondo jardun zuen, bere lanaldia bukatzen zuenean besteen alde lan eginez. Bera eta gainerako zinegotziek ez zuten soldata ezta dietarik jasotzen arazo publikoez arduratzeagatik.

Viladecavals Terrassatik bost kilometrotara dagoen ia bost mila biztanleko herria da, herri txikia eta garrantzi gutxikoa. Horregatik ez nintzen inoiz euskal terrorismo nazionalistaren hilketa politikoen berriez gehiegi arduratu eta ez nuen inoiz pentsatu gure herrira iritsi liratekeenik. Baina Ernest Lluch hil zutenean, 2000ko azaroan, Franciscori adierazi nion orduan bai nintzela beldur bere afiliatzeak izan zitzakeen ondorioengatik eta kontuz ibili behar zela. Beti berdin erantzun zidan: “ni ez nau inork ezagutzen”. Eta hori egia zen.

2000ko abenduaren hamalauan bere eserlekuaren azpian bonba bat jarri zuten, bere iturgin furgonetan, eta betirako eraman zuten. ETAko hiltzaileek aita eta senarrik onena zela jakin izango balute, agian sortu ziguten nahigabeaz errukituko lirateke.

Batzuek esaten dute hamaika urte absentziaren mina, arimaren zauriak ixteko denbora nahikoa dela. Gure familietan, ordea, gure bizitzetan utzi zuen hutsunea baino ez dugu sentitzen, etengabeen bere irri gozo eta distiratsuena gogoratzen dugun bitartean.

MANUEL GIMÉNEZ ABAD

(1948-2001)

MANOLO Iruñean jaio zen, 1948ko abenduaren lauan. Garai hartan Jacan eskualde-ospitalerik ez zegoenez, bere gurasoak Iruñeara joan behar izan ziren umea izateko. Hala ere, egun gutxi batzuen ondoren Manolo Jacara itzuli zen, haurtzaroa eta lehenengo gaztaroa Aragoiko Pirinioaren hiriburuan igarotzeko. Manoloren aita karrerako militarra zen eta Jacako hirian bizi eta karrera profesionala garatu zuen.

Anak ondo aski ezagutzen zuen bere familia, batzuetan udako oporrak han pasatzen zituelako. Bere ahizpa Manoloren arrebaren laguna zen. Hala ere, Londresen kasualitatez topo egin zuten arte ez ziren bera eta Manolo lagun onak bilakatu.

Manolok ez zuen inoiz bere aitaren ogibidearekin jarraitzeko gogorik izan. Agian bere amaren familiaren eraginez, urteekin letrak eta joera klasikoko ikasketak aukeratu zituen. Izan ere, bere amaren familia liburuei lotuta egon zen beti. Bere aitona Jacako *La Unión* egunkariaren editorea zen, joera liberala zuena. Horrez gain, inprenta eta liburu-denda bat zuten.

Jacako ikastetxean batxilergoa espediente onarekin bukatu eta gero, Nafarroako Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatean izena eman zuen. Urte horietan diziplina intelektualaren zorrotasuna ikasi zuen eta esperientzia hori baliatu zuen, seguruenik, beranduago Estatuko Abokatuen Gorputzerako oposizioak egiteko. Era berean, ikasle garaian bere izaera osatu eta bere ideietan beti mantendu zuen beste ezaugarri bat ere garatu zuen: zintzotasuna.

Hain berea zuen ezaugarri horrek ezin hobeto azaltzen du sentitzen zuen deserosotasuna bere gurasoek egiten ari ziren ahalegin ekonomiko ikaragarriarengatik, oso argi baitzeukan bera unibertsitate pribatu batean ikasteak, etxetik urrun, familiari gastu mordoa zeramakiola. Oposizioa prestatzen zuen bitartean, Administrazio Zibileko Teknikarien gorputzerako plaza batera aurkeztera erabaki zuen, eta baita plaza lortu ere. Orduan, Ana

eta Manolok ezkontzea erabaki zuten eta elkarrekin bizitza berri bat hasi zuten.

Bere lehenengo lanpostuak Madrilera eraman zituen, Administrazio Publikoko Eskolara hain zuzen ere. Asko gozatu zuen Ministerioaren Alcala de Henaresko egoitzan klaseak emanez. Geroago Iruñera bidali zuten eta bertan Lan Ministerioaren Delegazioaren atal batez arduratzerara pasatu zen. Bere ohiko hirira bueltatzean, Unibertsitatearekin berriz elkartu zen eta hainbeste liluratzen zuen jarduera egiteko aukera eskaini zioten, hau da, administrazio-zuzenbidean klaseak ematea.

Iruñean urte bat besterik ez zuten igaro berriro ere Madriletik deitu ziotelako, administrazio zentraleko postu ezberdinetan lan egiteko. 1979ko irailean Eskualdetarako Idazkaritza Nagusiaren kontseilari tekniko izendatu zuten, Lurralde Administrazioako Ministerioaren barruan. Bost urte horietan lehen eskutik ikasi zuen administrazio zentralaren barne egitura nahasia, eta denboraldi horretan ere bere lehenengo semea jaio zen, Manuel. Urrun egon arren, urte horietan zehar Manolo eta Anak jakatarrak izaten jarraitu zuten eta ia astebururo ehunka kilometro egiten zituzten Piriniora itzultzeko.

Anari asko kostatu zitzaion Espainiako hiriburura moldatzea eta hoberena Zaragozara itzultzea zela ulertu zuten. 1980ean Manolori zerbitzu-aldia eman zioten Aragoiko Diputazio Nagusian, Autonomia Erkidegoaren lehenengo pausoak garatzen ari ziren garaian.

Bertan, eta Aragoiko Gorteetan beranduago, Manolok bere balioa eta profesionaltasuna erakutsi zuen, eta bere lan bizitza garrantzi ikaragarria hartuz joan zen. Bitarteko kargu horretatik Autonomia Erkidegoaren funtzionario izatera pasatu zen. Geroago, Lehendakaritzako Idazkari Tekniko Nagusi izendatu zuten eta azkenik, Aragoiko Gorteen Legelari Nagusi, 1986 eta 1995 bitartean.

Baliteke, ezagutzen ez zutenentzako bere pertsonalitatearen aspekturik hunkigarriena bere jarduera politiko labur baina inteligente horretatik eratorritakoa izatea, baina berarekin egunero lan egiten zuten horiek badakite Manolo hori baino askoz gehiago zela. Beste batzuk iritsi ziren bere lekua hartzeko, baina bere hilketak eragindako hutsunea ez da inoiz beteko.

Manolo aparteko gizona izan zen. Bere barne isiluneek, bere bizitza erakusten zuena baino askoz aberatsagoa zela erakusten zuten. Batzuetan, asteburu eta atsedeen egunetan bakarrik paseatzera joaten zen eta izugarri disfrutatzen zuen ibilaldi horietaz, lehenengo eta behin bere Pirinioen itzalean egiten zituelako, bakardadearen beldur ez zelako eta, noski, bertan aieruak eta hausnarketa egiteko espazioa aurkitzen zuelako.

Bere semeak hazi eta indar nahikoa hartu zutenean bere aitarekin mendira joaten hasi ziren, Manoloren zaletasunik handiena. Hasieran udan ere beti hotz mantentzen ziren aintzira garaietara, eta gero, Panticosako zirkuaren alboko tontor errazen batera, Brazatos edo Garmo Negro ingurutik, Aragoiko mendebaldeko lehenengo hiru mila. Ana zoriontsua zen hirurak motxilarekin irteten zirela ikusten zuenean, Manolok bere semeei ezagupen mordoa transmititzen ziela zekielako eta haiek bere semeak maite zituen aita bihozberatik erraz xurgatzen zuten jakintasun hori. Gainera, segurtasunez nekien aita bere onura guztia erakutsiko ziela eta umeek berataz guztia ikasiko zutela.

Eta denbora laburrean lortu zuen. Hori da mendira joatearen abantaila. Guztiaz hitz egiteko denbora dago, ahaleginerako denbora, eta han goian baino ez dagoen edertasun estetikoaz gozatzeko. Hazi zirenean, Anak beraiekin joateari utzi zion, ezinezkoa egiten zitzaiolako euren erritmoari jarraitzea, batzuetan, bere indarretarako lehiakorregia zena. Neguan, ordea, laurak elkartzen ziren Candanchúko eski pistetara joateko. Denborarekin, Manolo eta Ana pistak alde batera utziz joan ziren, asteburuetan gero eta zale gehiago joaten zelako eta haiek aglomerazioetatik urrun erosoago sentitzen zirelako.

1995ko egun batean Manolok bere emazteari Santiago Lanzuelak (Aragoiko Gobernuaren Lehendakaria) kargu politiko bat eskaini ziola esan zion, eta kargua onartzeko asmoa zuela. Berri horrek ez zion batere graziarik egin, alderantziz, baina, beste alde batetik, bazekien politika asko gustatzen zitzaiola.

Ez zitzaion arraroa iruditu Alderdi Popularraren ideiek bere senarra erakartzea, nahiz eta unibertsitate garaian beste aukera politikoetan eroso sentitu izan zen. Manolo denborarekin aldatuz joan zen, zentroko posizio

integratzaileagoetara hurbilduz. Gainera, beti izaera zuhurra zuenez, bere erabaki guztien atzean hausnarketa sakona zegoen.

Aragoiko Gorteetan funtzionario bezala lan egiten hasi zenean, Manolo hainbeste erakartzen zuen giro politiko horretan nolabait sartu zen. Bere izaera adeitsua eta bihozberari esker, parlamentari guztien lagun egin zen, talde guztien osagaiekin harreman ezin hobe sortuz. Lasaia eta barea, ez zen bat ere beligerantea bere irizpideak defendatzerako orduan eta beti besteen usteak entzuteko prest zegoen, bere iritzia eman baino lehen. Horregatik jauzia eman baino lehen adiskidetasun harreman zintzoa sortu zuen politikari guztiekin.

Noizbait aitortu zuen ez zuela bere burua betirako Aragoiko Gorteetako Legelari Nagusi bezala ikusten, eta, zergatik ez, politikan probatzea ere gustatuko litzaiokeela, baina orduan inork ez zuen pentsatu hain laster pauso hori emango zuenik. Bere erabaki irmoak berehalako ondorio praktiko bat ekarriko zuen: orduko soldataren erdia irabaztera pasatuko zen. Bere ondare bakarra funtzionarioen eskalako soldatak emandakoa zen. Erabaki gogorra zen, 1995ean familiak ia azkenengo ahalegin handia egiten ari zelako semeen eskola eta Unibertsitatea ordaintzeko, hizkuntza ikasketez aparte. Anari ez zitzaion dagoeneko hartuta zeukan erabaki hori gustatu, baina azkenik erabakirik onena zela onartu zuen. Horrela, 1995ean Lehendakaritzaren Kontseilari izendatu zuten eta kargu horretan jarraitu zuen 1999ra arte.

Koherentzia pertsonaleko ariketa egin ondoren Alderdi Popularreko kide bilakatu eta Zaragozako Alderdi Popularraren egituran ezaguna izaten hasi zen, ordura arte, egia esan, ia inork ez baitzuen ezagutzen. Alderdian ohiz kanpoko ibilbidea izan zuen, ia afiliatu bezain laster popularrekin lan egiten hasi zelako.

Bere esperientzia eta noski, sen ona baliatuz, semeei politikara karrera profesional sendo batekin eta independentzia ekonomikoarekin ailegatzea zein garrantzitsua zen azaltzen zien, horiek baitziren irizpide eta jarduera independentzia izateko gakoak. Manolo ezer eskatu barik heldu zen politikara, bere moduan, ardura publikoaren ekintza eginez. Santiago Lanzuelak eskaintza egin eta gero onartu zuen politikan sartzea; aurretik

berak ez zuen inoiz mundu horretan sartzeko iradokizunik egin. Lau urte beranduago, Alderdi Popularreko zerrendetan aurkeztu zen, Huescako probintziatik Aragoiko Gorteetarako hautagai bezala, eta akta lortu zuen. Pozik zegoen, bere lana eraginkorra zela ikusten zuelako eta kargu berrian bere inguruan zegoen jendearekin ondo moldatzen zela ikusten zuelako. Ondo egindako lana aintzat hartzen da beti eta ordura arte erakutsitako eraginkortasuna eta balio pertsonal, profesional eta politikoaren ondorioz, Alderdi Popularreko Aragoiko Eskualdeko Lehendakari izendatu zuten, bere heriotzaren lau hilabete aurretik, Javier Arenasen sostengu sutsuarekin.

Hain lanpetuta egon arren, bere bizitzaren azken urteetan Jaca eta bertako mendiak eta ibaiak berdin maitatzen jarraitu zuen. Udak berdin jarraitu ziren, agian are zoriontsuagoak berarentzako, dagoeneko bere semeekin gauza garrantzitsuez hitz egin zezakeelako. Era berean, Manuel eta Borjak adiskidetasun zintzoa zeukaten euren aitarekin eta asko miretsi eta maite zutela nabaritzen zen. Denak haziz joan ziren eta euren izaera leunduz, baina Manolok inoiz ez zuen galdu bereenganako samurtasuna. Bere semeen heziketarako sen on harrigarria aplikatzen zuen. Euren semeetako batek Ana bere onetik atera zuen bihurrikeriaren bat egin zuen lehenengo egunean, Manolok lasaitasunez konpondu zuen, bere semearekin hitz egiten eta zergatik hori egitea ondo ez zegoen azalduz. Hain berea zuen jarduteko modu hori ez zen heziketa taktikaren bat izan, baizik eta berak zeukan detaileetako beste bat besterik ez, besteenganako ulermena agerian jartzen zuten horietakoak, are gehiago bere semeak baziren. Eta jakina, ulermen hori bere emaztearekin ere aplikatzen zuen, beti maitasun eta errespetuz lagundu zuena.

2001eko maiatzaren seian, bere semea Borjarekin Zaragozaren futbol zelaira abiatzen zenean, terrorismo nazionalista eta koldarrak bizkarretik hil zuen, hoztasunez, errukirik gabe.

Ondoren gertatu zena, nahiz eta sinesteko zaila izan, erabat kontsolatu zuen bere familia, ez baitzuten uste hainbeste jendek Manolo maite zuenik. Gero isiltasuna iritsi zen, isiltasuna besterik ez. Asko negar egin behar izan zuten, asko, bere heriotzak suntsitu zuen oreka berriz aurkitzeko. Bere bizitzak familia guztiarena bereganatzen zuen, beste gauza guztien gainetik Manolo gizon ona izan zelako.

Hiletatik egun gutxietara Anak bere semeei azaldu zien familia existitzen jarraitzen zuela eta orain lau beharreen hiru pertsonak osatzen zutela. Horrela ulertu zuten eta horrela bizi izan dira geroztik. Bere semeek ez dute inoiz bere heriotzaren egunaz hitz egin euren artean. Hilketaren hurrengo egunean euren logelaren intimitatean besarkatu eta inoiz ez bezala negar egin zuten.

Orain Manolo euren bizitzetan bizirik jarraitzen du eta asko hitz egiten dute berataz, modu misteriotsuan egunero transmititzen dien irribarrea, bizitzeko gogoak eta bihozberatasuna gogora ekartzeko beharra sentitzen dutelako. Bere ideiek indarrean jarraitzen dute familiaren ekintza guztietan, eta modu horretan helaraziko dizkiete etorkizunean Manoloren ilobei.

BIKTIMEN ZERRENDIA (AVT)

2010/03/16 Jean-Serge Nérin (Dammarie-lès-Lys)
2009/07/30 Carlos Enrique Sáenz de Tejada (Palmanova)
2009/07/30 Diego Salva Lezaun (Palmanova)
2009/06/19 Eduardo Antonio Puellas García (Arrigorriaga)
2008/12/03 Ignacio Uría Mendizábal (Azpeitia)
2008/09/22 Luis Conde De La Cruz (Santoña)
2008/05/14 Juan Manuel Piñuel Villalón (Legutio)
2008/03/07 Isaías Carrasco Miguel (Arrasate/Mondragón)
2007/12/05 Fernando Trapero Blázquez (Capbreton)
2007/12/01 Raúl Centeno Bayón (Capbreton)
2006/12/30 Carlos Alonso Palate Sailema (Madrid)
2006/12/30 Diego Armando Estacio (Madrid)
2003/05/30 Bonifacio Martín Hernández (Sangüesa/Zangoza)
2003/05/30 Julián Embid Luna (Sangüesa/Zangoza)
2003/05/17 Jesús Lolo Jato (Portugalete)
2003/03/07 Domingo Durán Díez (Santander)
2003/02/08 Joseba Pagazaourtundua Ruíz (Andoain)
2002/12/17 Antonio Molina Martín (Collado Villalba)
2002/09/24 Juan Carlos Beiro Montes (Leitza)
2002/08/04 Silvia Martínez Santiago (Santa Pola)
2002/08/04 Cecilio Gallego Alaminos (Santa Pola)
2002/03/21 Juan Priesse Pérez (Orio)
2001/11/23 Ana Isabel Arostegi Lejarreta (Beasain)
2001/11/23 Javier Mijangos Martínez de Bujo (Beasain)
2001/11/07 José María Lidón Corbi (Getxo)
2001/08/20 Francisca Eraunzetamurgil Alkorta (Donostia-San Sebastián)
2001/07/28 Justo Oreja Pedraza (Madrid)
2001/07/14 José Javier Múgica Astibia (Leitza)
2001/07/14 Mikel Uribe Aurkia (Leaburu)
2001/07/10 Luis Ortiz De La Rosa (Madrid)
2001/05/24 Santiago Oleaga Elejabarrieta (Donostia-San Sebastián)
2001/05/06 Manuel Giménez Abad (Zaragoza)

2001/03/20 Froilán Elespe Inciarte (Lasarte-Oria)
2001/03/17 Santos Santamaría Avedaño (Roses)
2001/03/09 Iñaki Totorika Vega (Hernani)
2001/02/22 Josu Leonet Azkune (Donostia-San Sebastián)
2001/02/22 José Ángel Santos Laranga (Donostia-San Sebastián)
2001/01/26 Ramón Díaz García (Donostia-San Sebastián)
2000/12/20 Juan Miguel Gervilla Valladolid (Bartzelona)
2000/12/14 Francisco Cano Consuegra (Terrassa)
2000/11/21 Ernest Lluch Martín (Bartzelona)
2000/11/08 Jesús Sánchez Martínez (Madrid)
2000/10/30 Jesús Escudero García (Madrid)
2000/10/30 Armando Medina Sánchez (Madrid)
2000/10/30 José Francisco Querol Lombardero (Madrid)
2000/10/22 Máximo Casado Carrera (Vitoria-Gasteiz)
2000/10/16 Antonio Muñoz Cariñanos (Sevilla)
2000/10/09 Luis Portero García (Granada)
2000/09/21 José Luis Ruiz Casado (Sant Adrià de Besòs)
2000/08/29 Manuel Indiano Azaustre (Zumarraga)
2000/08/20 José Ángel De Jesús Encinas (Sallent de Gállego)
2000/08/20 Irene Fernández Pereda (Sallent de Gállego)
2000/08/09 Francisco Casanova Vicente (Berriozar)
2000/08/08 José María Korta Uranga (Zumaia)
2000/07/29 Juan María Jauregui Apalategui (Tolosa)
2000/07/15 José María Martín Carpena (Malaga)
2000/06/04 Jesús María Pedrosa Urkiza (Durango)
2000/05/07 José Luis López De La Calle (Andoain)
2000/02/22 Fernando Buesa Blanco (Vitoria-Gasteiz)
2000/02/22 Jorge Díaz Elorza (Vitoria-Gasteiz)
2000/01/21 Pedro Antonio Blanco García (Madrid)
1998/06/25 Manuel Zamarreño Villoria (Errenteria)
1998/05/09 Alfonso Parada Ulloa (Vitoria-Gasteiz)
1998/05/06 Tomás Caballero Pastor (Pamplona/Iruña)
1998/01/30 Alberto Jiménez Becerril Barrio (Sevilla)
1998/01/30 Ascensión García Ortiz (Sevilla)
1998/01/09 José Ignacio Iruretagoiena Larrañaga (Zarautz)
1997/12/11 José Luis Caso Cortines (Irun)

1997/10/14 José María Aguirre Larraona (Bilbo)
1997/09/05 Daniel Villar Enciso (Basauri)
1997/07/13 Miguel Ángel Blanco Garrido (Lasarte-Oria)
1997/05/12 Servando Rivas Pérez (Donostia-San Sebastián)
1997/05/03 Juan Manuel García Fernández (Zierbena)
1997/04/24 Luis Andrés Samperio Sañudo (Bilbo)
1997/03/11 Francisco Javier Gómez Elósegui (Donostia-San Sebastián)
1997/02/17 Modesto Rico Pasarín (Bilbo)
1997/02/13 Ángel Portugal del Alamo (Donostia-San Sebastián)
1997/02/11 Patxi Arratibel Fuentes (Tolosa)
1997/02/10 Domingo Puente Marín (Granada)
1997/02/10 Rafael Martínez Emperador (Madrid)
1997/01/30 Eugenio Olaciregui Borda (Donostia-San Sebastián)
1997/01/08 Jesús Agustín Cuesta Abril (Madrid)
1996/10/14 Serafín Apellaniz Pagola (Donostia-San Sebastián)
1996/07/26 Isidro Usabiaga Esnaola (Ordizia)
1996/05/20 Miguel Ángel Ayllon Díaz-González (Kordoba)
1996/03/04 Ramón Doral Trabadelo (Irun)
1996/02/14 Francisco Tomás y Valiente (Madrid)
1996/02/06 Fernando Música Herzog (Donostia-San Sebastián)
1995/12/22 Luciano Cortizo Alonso (Leon)
1995/12/16 Josefina Correa Huerta (Valentzia)
1995/12/11 Manuel Carrasco Almansa (Madrid)
1995/12/11 Santiago Esteban Junquer (Madrid)
1995/12/11 José Ramón Intriago Esteban (Madrid)
1995/12/11 Félix Ramos Bailón (Madrid)
1995/12/11 Florentino López Del Castillo (Madrid)
1995/12/11 Martín Rosa Valero (Madrid)
1995/12/10 Iñaki Mendiluce Echeverria (Itsasondo)
1995/12/10 José Luis González Villanueva (Itsasondo)
1995/10/20 Enrique Nieto Viyella (Donostia-San Sebastián)
1995/06/19 Jesús Rebollo García (Madrid)
1995/04/20 Eduardo López Moreno (Endarlaza)
1995/04/19 Margarita González Mansilla (Madrid)
1995/04/10 Mariano De Juan Santamaría (Donostia-San Sebastián)
1995/01/23 Gregorio Ordoñez Fenollar (Donostia-San Sebastián)

1995/01/13 Rafael Leyva Loro (Bilbo)
1994/12/15 Alfonso Morcillo Calero (Lasarte-Oria)
1994/08/21 José Santana Ramos (Bilbo)
1994/08/10 José Antonio Díaz Losada (Bilbo)
1994/07/29 Francisco Veguillas Elices (Madrid)
1994/07/29 Francisco Martín Moya (Madrid)
1994/07/29 Cesar García Contonente (Madrid)
1994/07/26 José Manuel Olarte Urresti (Donostia-San Sebastián)
1994/06/01 Juan José Hernández Rovira (Madrid)
1994/05/23 Miguel Peralta Utrera (Madrid)
1994/04/28 José Benigno Villalobos (Valle de Trápaga-Trapagaran)
1994/04/18 Vicente Beti Montesinos (Bartzelona)
1994/04/04 Fernando Jiménez Pascual (Bilbo)
1994/02/07 Leopoldo García Campos (Bartzelona)
1994/01/14 José Santos Pico (Donostia-San Sebastián)
1993/11/26 Joseba Goiciechea Asla (Bilbo)
1993/10/19 Dionisio Herrero Albiñana (Madrid)
1993/09/16 Juvenal Villafrane García (Andoain)
1993/06/21 Domingo Olivo Esparza (Madrid)
1993/06/21 Fidel Dávila Garijo (Madrid)
1993/06/21 Javier Baró Y Díaz Figueroa (Madrid)
1993/06/21 José Alberto Carretero Sogel (Madrid)
1993/06/21 Juan Romero Álvarez (Madrid)
1993/06/21 Manuel Calvo Alonso (Madrid)
1993/06/21 Pedro Robles López (Madrid)
1993/06/02 Ángel María González Sabino (Donostia-San Sebastián)
1993/03/18 Emilio Castillo López (Donostia-San Sebastián)
1993/01/22 José Ramón Domínguez Burillo (Donostia-San Sebastián)
1993/01/19 José Antonio Santamaría Vaquerizo (Donostia-San Sebastián)
1992/11/30 Miguel Miranda Puertas (Madrid)
1992/09/29 José Luis Luengo Martínez (Errenteria)
1992/09/14 Ricardo González Colino (Donostia-San Sebastián)
1992/09/02 Antonio Heredero Gil (Salamanca)
1992/08/17 José Manuel Fernández Lozano (Oiartzun)
1992/08/17 Juan Manuel Martínez Gil (Oiartzun)
1992/04/23 Juan Manuel Hélices Patiño (Irun)

1992/03/31 Joaquín Vasco Álvarez (Madrid)
1992/03/23 Juan José Carrasco Guerrero (Madrid)
1992/03/19 Enrique Martínez Hernández (Lliçà d'Amunt)
1992/03/19 Antonio José Martos Martínez (Sant Quirze del Vallès)
1992/02/25 José San Martín Bretón (Getxo)
1992/02/19 Eutimio Gómez Gómez (Santander)
1992/02/19 Julia Ríos Rioz (Santander)
1992/02/19 Antonio Ricondo Somoza (Santander)
1992/02/10 Ángel García Rabadán (Murtzia)
1992/02/06 Juan Antonio Núñez Sánchez (Madrid)
1992/02/06 Ramón Carlos Navia Refojo (Madrid)
1992/02/06 Emilio Domingo Tejedor Fuentes (Madrid)
1992/02/06 Francisco Carrillo Pérez (Madrid)
1992/02/06 Antonio Ricote Castilla (Madrid)
1992/01/16 Virgilio Más Navarro (Bartzelona)
1992/01/16 Juan Querol Queralt (Bartzelona)
1992/01/15 Manuel Broseta Pons (Valentzia)
1992/01/14 José Anseán Castro (Bilbo)
1992/01/08 Arturo Anguera Vallés (Bartzelona)
1991/12/13 José Antonio Garrido Martínez (Bartzelona)
1991/12/13 Francisco Javier Delgado González-Navarro (Bartzelona)
1991/11/26 José Javier Urtegui Aramburu (Donostia-San Sebastián)
1991/11/19 Pedro Carbonero Fernández (Galdakao)
1991/11/07 Fabio Moreno Asla (Erandio)
1991/10/23 Juan Carlos Trujillo García (Donostia-San Sebastián)
1991/10/23 Eduardo Sobrino González (Donostia-San Sebastián)
1991/10/17 Francisco Carballar Muñoz (Madrid)
1991/09/16 José Luis Jiménez Vargas (Mutxamel)
1991/09/16 Víctor Manuel Puertas Viera (Mutxamel)
1991/09/16 Francisco Cebrián Caberas (Mutxamel)
1991/09/01 Alfonso Menchaca Lejona (Bilbo)
1991/08/07 Francisco Gil Mendoza (Irun)
1991/07/28 Carlos Pérez Dacosta (Getxo)
1991/07/01 Pedro Domínguez Pérez (Sevilla)
1991/07/01 Luis Laraco López (Sevilla)
1991/07/01 José Luis Jiménez Barrero (Sevilla)

1991/06/28 Manuel Pérez Ortega (Sevilla)
1991/06/28 Jesús Sánchez Lozano (Sevilla)
1991/06/28 Donato Calzado García (Sevilla)
